

TXOMIN AGIRRE

Auñemendiko Lorea

Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano



SUTONDOAN

1020

SUTONDOAN deritxon bilduma honetan, Bizkaiak Euskalerruari eskeini deutzazan literatur-obrarik bikainenetarikoak plazaratu gura dira.

Gehienbat, hizlaurkoak dira bildumako lanok, nahiz eta genero mueta ezbardinetakoak izan: eleberrri, alegi, ipuin, kazetari-lan, etab.

Obra honeek aspaldi samar idatziak diran kasuetan, idatzi zira-neko moduan barik, hareantxo gaurkoturik eskeini ohi dira, grafiari eta fonetikari dagokion punturen batzuetan; gaurko irakurle xehea errezago murgildu dadin irakurketan.

Horrez gainera, beste berezitasun garrantzitsu bat dabe argitalkizunok: obra bakotxak, sarre-ra gisa, aurkezlan bat daroa, luzeagoa edo laburragoa, autorearen eta obrearen inguruan.

Auñemendiko Lorea nobela historiko honi, sarre-ra lana, hiztegitxoa eta gaurkoratzea egiteaz arduratu dana Rosa Mari Arano da, Labayru Ikastegiko lankidea eta Derioko Irakasle Eskolako irakaslea, Deustun Euskal Filologian lizentziatua.

SUTONDOAN bildumako obrak aukeratu, atondu eta aurkezlanak egitea, Labayru Ikastegiaren Hizkuntza Mintegiaren ardura-pean ohi da, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzari eskerrak ateraten da bilduma bera.

AUÑEMENDIKO LOREA

Txomin Agirre

TXOMIN AGIRRE

Auñemendiko Lorea

Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano



LABAYRU IKASTEGIA





SARRERA

Rosa Mari Arano

Ez da Txomin Agirre euskal letren munduan aurkezpen beharrik dauan idazleatarikoa. Poesiatik hasi eta garaiko hainbat aldizkaritan argitaratu eban ipuin eta beste idazlanen egile honek, badau aitagarria dan eginkizun garrantzitsua beste askoren artean, euskal literaturara jenero barriak ekarte hain zuzen ere. Agirre dogu, eta bere lehen nobelaren urtea «Añemendiko Lorea» (1897) euskal nobelaren sorrera eta aldi luze bateko joera literarioa markatzen dabenak.

Nobela dogu izan ere, literatura guztietan jenerorik berankorrena, euskal literaturan besteetan baino berankorragoa.

Ez eutsen Agirrek sorrera honetarako kasu handiegirik egin egozan kontakizunei, Elissanbururen «Pierres Adame»ri edo «Athea gaitzeco ohiartzunak» izeneko Dasconagarreren itzulpenari. Atzerrira jo eban eredu bila eta halan idatzi «Añemendiko Lorea», nobela historiko-erromantikoa berau. P. Lhandek dinoanez Navarro Villosladak 25 urte arinago idatzitako «Amaya o los vascos en el siglo VIII» dalakoak izan eban harrera onak bultzaturik edo. Garai barri baten hasiera markatuko dau, nobelaren garaia, eredu legez jarraitua izan ez bada ere. Izan ere, hemen dakargun hau ez da izan Agirre goi mailara jaso ebanetarikoa, baina bai lehenengo urratsa maila horretara heltzeko. Lehenengo pausoa da gatxena emoteko, oker emon eta jaustea ere sarri gertatu ohi da. Ez jakon, ostera, Agirrerri holakorik jazo, lehen pausoa txarrago edo hobeto emonaz ibiltan ere ikasi eban, ez txarto barrez. «Kresala» eta «Garoa» ohitura-eleberriek jarraitu eutsen lehen pausu horri, batean itxas herrietako bizimodua konstatzen deuskula, bestean baserri ingurukoa. Nobela biok izango dira Agi-

© LABAYRU IKASTEGIA-BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Aretxabaleta, 1-1.º

48010 BILBAO. Tel.: 443 76 84

ISBN: 84-505-2676-0

D. Legal: BI-462-1986

Fotocomposición: Ipar, S.C.L.

Inprimatzailea: Gráficas Ibarsusi, S. A.

C.º de Ibarsusi, s/n - 48004 BILBAO

rre gure artean hain ezagun egiten lagundu dabenak, urte luze batzutan, harik eta 1950ra arte, ereduzat hartuak izango diralarik. Baina badirudi Agirre nobela historikoak hainbat erakarten ebalu; heriotzea heldu jakonean ere, beste honetariko bat idazten ziharduen eta: «Ni eta ni», kapituluaren batzuk argitaratuak ere izan ziralarik.

Giroa ere aldeko zan nobelak egiten hasteko.

Foruen galtzearen ondorioz, Euskalerrira ere zabaldu zan peninsula mailan (batez ere Cataluñan) eta Europa osoan irakiten egoan abertzale-tasuna. Herrien nortasuna, kondaira eta kultura aintzat hartzen hasiko dira. Nortasun horren ezaugarri behinenetakoa hizkuntza izango da.

Honela, XIX. mendearen erdirantza atzeraka joian euskera salbatu eta indartu beharra somatzen da. Irakurteko eta idazteko gose egarri berririk sortzen da. Olerki sariketak eta euskal jaiak atontzen dira, hainbat liburu zahar ta barri argitaratu; aldizkariak ere garai honetan hasten dira, eta ez lan txikia eginaz: sariketak antolatatu, liburuak argitaratzeko orriak zabaldu e.a. Giroa aproposa bada, molde barrietara jotzeko ere.

AUÑEMENDIKO LOREA (1897)

Harrera

Ez da, lehen esan bezala, «Auñemendiko Lorea» Agirreridiazle puntarengoen artean lekua egin arazo deutsienetariko lana. Ez eban izan bere garaian, «Euskalzale» aldizkariak antolaturiko txapelketan garaille gertatu bazan ere, ez iturri izan eban Villosladaren «Amaya»ren arrakastarik, ezta lehenengo horri jarraitu eutsien «Kresala» eta «Garoa» ohitura eleberririk osperirik. Baztertuta gelditu zan. P. Lhandek jakintsu ta euskalzale batzuen artean gelditu zala dino eta Agirrereren «okertzat» jotzen dau gaia desegokia zalako: «An zebilzkigun arrotz zarren egiteak, Txilperko, Txildeberto ta beste perretxiko orienak gure baseritarren egitekoakin antzarik etzeukaten» dino Lhandek eta jarraitu: «Berak bere begiez ikusitako gertaldi bat zuzentzea, lehenagoko kondaira zarrak jostea baino zurrago izango zala usmatu zuan»¹ eta «Kresala» eta «Garoa» idatziaz zuzendu bere okerra.

¹ Lhande, P.: «Agirre Irakurgaikiña.» Itzaldia 1923 II, 107 or.

Errealismo falta da Lhandek atxikitzen deutsana lehenengo lan honi eta ez ebilen oker. Izan ere, Españako nobela historikoak konparatzen badogu, askozaz errealistagoak zirela garai honetakoak autortu behar, baina errealismo falta bera somatzen dogu «Kresala» edo «Garoaren» orrietan.

Agirrek bere nobeletan ez dau hartzen gizartea iturburutzat, berak bere gizarterako nahi leuken errealitate ideal bat deskribatzen dau. Bere irakurleagoari ideologia konkretua ezarri gureak, errealitatea desfiguratzera daroa. G. Garatek dinoanez «erremantizismo zaharkituaren eraginez idatzi zuen»¹. Gorago aztertuko dogun didaktismoa da bere nobeletan nagusi.

Baztertua orduan, eta baztertua gaur ere. Argitaraldiak ikustea nahiko da. Lehenengoz «Euskalzale» aldizkarian 1898. urtean, 19tik 267ra, 30 zatitan; urte berean liburu bezala emon eban Azkuek berak; 1966.era arte ez zan barriz argitaratu. Hiru argitalpen besterik ez, gure honetatik kanpo. Ez dau izan behar besteko harrera onik, estaldugeitxo geratu da jarraitu eutsien bi ohitura eleberririk itzalpean.

Dana dala, uste dogu lan honetan Agirrek gero maisukiago landuko dituen ezaugarrietariko batzuk badirela. Deskribapenetarik batzuk «Kresala»n edo «Garoa»n agertzen diranei ez deutse zorrik. Alkarrizketak ere, nor-nori zuzentzen jakon kontuan izanik moldatuta dagoz, hika behar bada sartuaz e. a. Agirrek baekian ordurako non zapaltzen eban eta luma ondo erabilten ekianaren eskua ikustea ez da gatxa lan honetan ere.

Folletín nobelen eragina

Gorago esan dogunez, Agirrek molde barrien bila atzerrira jo eban, España aldera hain zuzen, baina ez eban beti urik onenetik edan ikusiko dogunez.

España aldean 1840 inguruan nobela mota berezia sortzen da, «novela de folletín por entregas» deritxona, paraliteraturatzat jo izan dana, baina nahiko pisu handikoa. 1870ean hasiko da bere beheakada, XX. mendera arte idatziko diran arren. Agirrek, bere lehen lan honetan ikuturren bat badauala pentsa daiteke, pertsonaien egitura, dualismoa, eta toki denporen tratamendua hain zuzen ere.

¹ Garate, G.: *Euskal eleberraren kondaira*. Gero. 1985, 25 or.

J.I. Ferrerasesk hauxe dinosku entregazko nobelen egitura aztertzen dabilenean:

«La novela de aventuras, histórica o no, posee dos personajes fundamentales y obligatorios: el héroe y el antihéroe. Ambos se encuentran a veces fuertemente simbolizados, ya que la falta o excesiva esquematización del universo novelesco impide toda caracterización o espesor psicológico. Héroe y antihéroe son dos ideas-hombres que se afrontan a lo largo de la novela. La figura del héroe admite muy pocas variantes (sexo, generalmente, masculino; edad, generalmente, juvenil; posición social indiferente) y posee todos los atributos acostumbrados: valor, sacrificio, liberalidad, amor y, desde luego, belleza.

El héroe suele estar acompañado por los «compañeros» amigos de preferencia, parientes, servidores (...). La enamorada detenta los mismos valores del héroe en su versión femenina (si el héroe es del sexo masculino): castidad, humildad, espíritu de sacrificio y, desde luego, hermosura. También la enamorada puede estar rodeada de «compañeras» o «compañeros»: padre, aya, criadas, fieles, amigos, etc.

El antihéroe (...) es la versión negativa del héroe: cobarde, avaricia, hipocresía.»¹

Nobela honetan hau bete betean emoten da. Heroea eta heroina, Adabaldo eta Riktrudis euren laguntzaileekin: Amando, Andre Luzia, Ubero, Peru Padarra, Pedro Mari... Birtute guztien jaube eta defendatzaile. Adabaldo, honela deskribatzen dau kontalariak: «... gizon gazte guztizko ederra (...) andia baina ez lodia, ardatza baino lerdanagoa; ule gorri ta begi urdin argi ta bizien jaubea (...) gizon jakintsu ta guztiz aberatsa; Jesukristoren lege zalea ta onoidade andiakaz apaindua.»

Riktrudis: «neskatilla gaztea zeruko aingeruen antzeko arpegi biribil, gozo, leuna, gaztaina-margoko ule ugari ederra (...), begi baltzak eztsutsuak Mondarrain mendiko lorarik eztsutsuenak baino.» Bere inguruan era-

¹ Ferreras, J.I.: *La novela por entregas 1840-1900*. Madrid. Taurus, 1972, 257 orr.

biliko diren adjetiboak «ona, ederra, garbia, euskaldun eta kristinau zintzoa».

Ezaugarri fisikoak denboraren igarroteaz aldatuko dira, izakerazkoak, ostera, eleberraren azkeneraino iraungo dabe. Ideia baten inguruan taiutuak dira pertsonaiok.

Portun, bere laguntzaileekin (Lope Nagi, Riktrudisen ahaideak, batez ere euskaldun fedebakoak) antiheroa izango da. Heroe eta heroinaren aurkako ezaugarriak ditu «siniste bagea, arroxko samarra». Ez da fisikoki ere Adabaldo baizen dotorea. Aldaketa ikusiko dauan pertsonai bakarra, baina prozesu bako aldaketa, karakteren sustituzioa baino ez da izango eta.

Talde bi beraz, batean onak, bestean txarrak. Bion artean ez da egongo komunikaziorik, talde itxiak dira. Bikoiztasun sinpleegitxoa eskeintzen jakuna.

Dana dala, eta G. Garategaz batera, pertsonairik ondoen lortuak txarren taldean dagozala esan behar. Portun eta Lope Nagi dira, hain zuzen, errealenak eta biribilduenak.

Toki-denporen tratamentuari dagokionez, errez ikusi daiteke oraindik hasikinetan, heldu barik dagoen idazlearen eskua eta zelanbaiteko gorago aitatutako nobela motaren eragina.

J.I. Ferrerasesk ondorengo hau dino: «como el universo (novelesco) ha de existir, pues sin él no es posible la novela, el autor novelista por entregas suele emplear dos estrategias, bien infantiles por cierto; la primera, y como ya queda señalado, consiste en transformar las descripciones en acotaciones; la segunda, en acotar también el tiempo por medio de una serie de referencias casi telegráficas» — eta jarraitzen dau — «Claro está que, a veces, un buen empleo de las acotaciones temporales puede crear un clima novelesco»¹.

Lan honetan, toki-denporak, batez ere denporea, akotazio modura emonda dagoz. Adibide legez seigarren kapituloaren hasieran agertzen dan bat hartuko dogu, ugariagoak diren arren, hauxe hain zuzen ere: «Ondo da irakurleari esatea, orain artean paperean ipini ditudan gauza danak udabarrian gertaturikoak dirala.»

Beste batzutan urtea huts-hutsean esanaz adieraziko dau.

Tokiei dagokienez, deskribapenen batzuk egiten ditu, sensibilitate handiz egin ere. Batzuk «Kresala» edo «Garoa»n agertzen diranei zorrik

¹ Ferreras, J.I.: aip. 1, 250-251 orr.

ez deusiela, batez ere, izadia danean deskribatuko dauana (Ikusi «Bidez-bide» kapituluan agertzen dana), baina gehienetan, edo askotan behintzat, tokiaren izena hutsean esanda gelditzen da, ezertariko zehaztasunik edo ezaugarririk emon barik.

Bardina esan geinke bizimodu, ohitura edo jazkerari buruz, ez dagoz zehatzegi eginak, aipamen soilak dira. Pertsonaien deskripzioetan zerbait esango deusku jazkerari buruz. Euskal etxeko, Mendiolako ohituraren bat ere adieraziko dau, baina detaile larregi barik. Eszena badago baina eszenarioa ondo apaindu barik.

Hamargarren kapitulutik aurrera askoz ere argiago ikusten da hau. Tokiz aldatu arren ekintza, deskribapenak urriagoak dira, aipamen hutsetan gelditzen dala.

Kontutan izatekoa da gorago aztertu dogun dualismoa deskribapenetan ere nabaritzen dala. Mendiolaren deskribapena eta Ozinbeltz jauregiarena ikustea nahiko da. Mendiola paregabeko tokian eta Ozinbeltz sasi, lar, ota, errolantz eta sastalari artean.

Denpora eta tokia hain zehaztu barik emoteaz nobela giro eskasa lortzera heldu da ondarrutarra, askoz gehiago nobela historikoa dala kontutan hartzen badogu. Dana dala zelanbaitekoa lortu dau, liburuaren lehenengo aldean agertzen diren deskripzioak lagundurik gehien baten.

Didaktikotasuna eta moralitasuna

Ideologia konkretuen bultzagarri izan dala eta dala ere, askotan ikusten da literatura, literaturtasunari berari baino garrantzi gehiago emonaz, ez gitxitan. Beste era batera esanaz, jendea bide zehatz batetik eroateko asmoa helburu dala sortu izan dira literatur lan asko. Agirreren onetan eta besteetan ere, argi ikusten da hau.

Riktrudisen ahotan jartzen dauan lema bera da Ondarrutarrak bere buruari ezarri deutsona «euskalduna nazan aldetik euskaldundu, kristinau nazan aldetik kristinautu» eta ahalegin guztiak egin bere lanen bidez hau lortzeko.

Euskaltzaletasunaren arazoa nonahi agertuko da liburuan zehar. III. kapitulua hartu daiteke eredu gisa. Kristautasunarena, zer esanik ez, lehenengo orrialdeetatik azkenera. Euskaltzaletasuna eta kristautasuna biak abertzaletasunean lotu nahi ditu. Bestela esan, Agirrek «Auiñamendiko Lorea»-ren orrietan kontatzen deuskun historia VII. mendean kokatua izan arren, defenditzen dauan tesia idazlearen garaikoa izango da. Sortu barri edo sortzen egoan nazionalismoak proposatzen ebana: Euskaldun fededunak izan behar dogu benetako abertzaleak izateko. Hauxe da Agi-

rrek bere irakurleei irakatsi nahi deusiela, Riktrudis donearen bizitza kontatuz.

Helburu didaktikoa da nagusi, nobelaren elementurik gehienak honen menpe gelditzen direla. Lehen orrialdeetan esaten dau autore-kontalariak «gauza bene-benetan ikasgarriak» ikasiko direla eta horretara konbidatu. Pertsonaia onak eta txarrak jartzen dira borrokan. Euskaldun abertzale sendo eta kristinau zintzo diranak alde batetik, euskaldun fedebakoak, Euskalerriaren hondatzaileak, bestetik. Kontalari orojakilea onakaz identifikatzen da eta irakurlea identifikatu daiten ere, ahaleginak egin. Bere eritxia emongo dau jokabide baten aurrean eta honetara edo haretara bultzatu irakurlea.

Esan behar, baita, funtzio didaktikoa hain nagusi izateak, ideologia konkretu bat zabaldu beharrak edo nahiak, sermoi kutsuko «parrafada» bat baino gehiago bota eragiten deutzazala kontalariari. Pertsonaiak eurak ere, batez ere onen taldekoak, sermoiginan diharduela emoten dau baten baino gehiagotan, nobleak literaturtasunean galtzen dauala eta moteltasunean irabazi.

Hizkuntzarekiko jarrera

Bere nobelak, gaur egungo irakurleagoarentzat astun samarrak eta atzeratutxoak badira ere, ez da darabilen euskeragaitik. Zuhur jokatu eban Agirrek euskera kontu honetan. Euskera garbiaren izenean inon diren hitz barriak asmatuz, inork ulertu ez eikean hizkuntza sortzen ebilzaren bidea alde batera itxiz, beste batetik abiatu zan, garai haretan euskaltzale guztien gogoan ebilen euskeraren indartze, sendotze, salbatze, lana aurrera eroateko.

Ez zan Agirre barrizalegia izan, areantxo Larramendiren hiztegiara jo ebala ezin ukatua bada ere. «Kresala»-ren hitzaurrean berak argi dinokunez, ez daukagu kanpora jo beharrik hitz barrien bila, ezta barririk sortu beharrik ere, Euskal Herrian sakabanatuta dagozan «sustrai onak eta landara mardulak, gorrinea kendu eta lur batetik bestera aldatu». Hauxe da berak egin ebana eta beste askok berari jarraituz. Hizkuntza mintzatuan oinarrituz bere erara antolatutako «euskera osotua» da dakarskuna.

Gaur oraindino, askotan, gaintu ez dan bizkaiera literarioa sortzera heldu zan ondarrutarra hizkuntzaren konpezio hau dala bide eta prosa nobelistiko modernoaren oinarri sendoak jarri.

Lortu ebala esan behar hainbeste buruauste emon eutsan ulergarritasuna. Bere euskerea, lan honetakoa ere, inona izatekotan ulerterreza da eta, baina noblearen kalterako dan akatsez ordaindu behar sarri, bes-

te askori gertatu izan jakonez, ulergarritasun hau. Esangura bardineko hitzak alkarren atze jartzearen arazoa dogu gogoan. Agirrek, Axularrek eta beste hainbat euskal idazlek bezala «edo» lotura hizkiaren bidez hiru-lau hitz lotzen ditu esangura berekoak («une, aida edo lipar») nobleak moteltasunean irabazten dauala.

Moteltasun bardinera garoez, alkarren atze eta esaldi nagusi bati loturik doazen menpeko esaldi piloak.

Gaia tratatzeko era, eta irakatsi nahia, lehen aitatutako didaktikotak suna, dira «Añamendiko Lorea»ren orrietako euskerea beste lanetakoa baino moteltxoagoa izatera bultzatu dabenak. G. Garatek ondo asmatu dau erretolika klasikoaren eragina dauala esatean eta aztertu ere¹. Molde honen erabilerak derrigortu egiten dau herriarengandik urruntxoago dagoan euskerea erabilerara, errejistro dotoreagoa, jantziagoa erabilerara, pertsonaiak ere askoz irrealago gertatzen dirala, normalean eta egoera arruntetan ez da era horretara barbarik egiten eta.

Dana dala, estilo aldetik huts egin baeban ere, esaldi abstratoz osotutako sermoi kutsuko alkarrizketa luzeegiak ipiniaz pertsonaien ahotan edo kontalariak egindako gogoetetan, ezin esan dogu darabilen euskerea txarra danik. Izan ere, nobela honen baliorik handiena euskerea bera da, ulerterreza, aberatsa, etxe barruko eta kanporagotxoko hitzez, esaldiz eta esakeraz ornitua.

Gure argitalpena

Gaurko irakurlegoaren beharrianetara makurtuz, irakurketa erreztea eta arintzea dala helburu «Sutondoan» saileko gainerakoetan bezelaxe, gure honetan ere, gaurkotu beharra ikusi dogu aldaketatxoren batzuk eginaz. Aldaketok egin orduan gaurko Bizkaiera literarioa hartu da aintzakotzat eta idazlearen idaztanka guztiz errespetatu; ikuturik gehienak ortografia eta fonetika mailan egiten direla, lexikoan edo joskeran ezertan sartu barik. Honen bestez, goazen aldaketon barri zehatz mehatza emotera.

a) Grafemak

Nahiko zehatzak genduzan Agirre eta Agirrerren girokoak ortografia kontu honetan, arauak egozan orduko eta. Beraz ez dogu aurkitu arazo

handiegirik aldaketak egin orduan. Ondoko grafia honeek izan dira aldatu beharrekoak:

1. Hitz hasierako «ia», «ie», «io» gaurko *ja, je, jo*-z. Halan «iat», «ioan», «Jesus»: *jat, joan, Jesus, jarri* ditugu guk.
2. «ll»-ren ordez *ill*: «mallu»: *maillu* edo *l*: «ibillten»: *ibilten*. Azken posizioako «ll» beti *-l*: «ukabill», «zirzill»: *ukabil, zirzil*.
3. «Ñ»-z beste horrenbeste egin dogu, azken posizioan beti *-n*: «oraiñ», «zeiñ»: *orain, zein*; besteetan *iñ*: «oñazpian»: *oiñazpian*.
4. «S» eta «TS» gaurko *X* eta *TXez*: «ause», «etse»: *auxe, etxe*.
5. Gainerako ziztukariekin, Bizkaiko literaturan sarri gertatu ohi denez, ba ditu Agirrek ere nahasketak, «S» beharrean Z jartzen dauala edo alderantziz. TS-ren lekuan ere TZ hainbatetan agertzen da, iruntzitara bardin. Guk guztiak artez jarri ditugu («zakon», «erezi», «asi»: *sakon, eresi, azi* jarriaz. «Atserritar», «zintso», «dantsut», guk *atzerritar, zintzo, dantzut*).

b) Puntuazioa

Arlo honetan ere gaurkoaganik ez bardin jokutzen dau. Hona hemen ez bardiintasunok eta gure aldakuntzak:

1. Guk gaur erabiliko geunkezan aldean ugari darabil Tx. Agirrek puntu biak (:). Guk askotan puntua (.), puntu ta koma (;) edo koma (,) jarri dogu euren lekuan.
2. Marratxoa ere ugari darabil Agirrek (-). Guk askotan kendu egin dogu hitzak bananduz batzutan, lotuz besteetan. Zaindu ere egin dogu, ez egoan tokian ipini ere bai.
 - a) Kendu hitzak bananduz honako kasu honeetan: «itz-zaparradak», «amaitu-ondorean», «euskaldun-arteko», «atari-aldera», «arkaitz-zuloetan», e.a.
 - b) Kendu hitzak lotuz beste honeetan: «Irri-barre», «Jesukristo-gaitik», «ezta-bidak», «erri-zale», «Aitzbarren», e.a.
 - d) Zaindu eta ez egoanetan ipini ondoko honelakoetan: «Barru-barruan», «zabal-zabal», «klon-a», «dogu-ta», e.a.

¹ GARATE, G.: aip. l. 62.or.

3. Admirazio eta galde ikurrak, gaztelerazko moduan, atzetik eta aurretik jarriak dakarz (i...!), (¿...?). Guk, gaur ohi danez, atzekoa baino ez dogu mantendu, aurrekoa kenduz.

d) *Batera-banakoak*

Hainbat hitz, guk gaur ez bezala, batera idatziak dakarskuz. Banandu egin ditugu. Honako honeen modukoak dira: «eideutsa», «esanarren», «baleban» (ba al eban), «eteban», «emoebanian», «iltzanetik», «eztot», «eztabil», e.a.

Lotu ere, gitxiago arren, egin ditugu beste zenbaitzuk. Partizipioak eurok gehienetan («il da», «entzun da»... partizipio adverbialak diranean).

e) *Deklinabidea*

Ez darabil Agirrek arlo honetan fonetismo larregirik, baten batzuk eskapatu deusiela autortu behar ostera. Ondoko honeexek dira:

-EA, inoiz, oso gitxitan bada ere, «-IA» egin dau: «gauzia», «beia», «zeia»... guk, *gauzea*, *beea*, *zeea* jarri ditugu.

-OE: «-OI». Adibide bakarra hauxe: «oia»; guk *oea* jarri dogu. Beste adibide bakar bat IO: «IU» egiten dauana: «Ugaziua», guk *ugazioa*.

Batzutan hitzen osotasuna jagon gurarik agertzen jaku Agirre ahozkatzen gatx samarrak diren kontsonanteak alkarren ondaturik, gehienetan belare gorra eta ozena, guk ozena kentzera jo dogu. Halan «gizonakgana», «eurakgaitik», «gauzakgaitik», «prankotarrakgandik» eta honelakoak, *gizonakana*, *eurakaitik*, *gauzakaitik*, *prankotarrakandik*, idatzi ditugu.

f) *Aditza*

Sail honetan ere aldaketaxoren batzuk egin beharrean ikusi dogu geure burua. Hona ondoko lerroetan aldaketon barri zehatza:

1. «Joan» aditzeko hirugarren pertsona, lehen aldian eta egite eraz, gaur Ondarrun esaten dan bezelaxe idatzi dau «eioan», forma bitxia danez, errespetatu egin dogu, *eioan* idatiz.

2. «Egon» aditzeko zenbait forma «g» barik idatzi ditu, guk «g» hori ezarri egin deutsiegu: «eikon», «euala» e.a., *egokon*, *egoala* e.a.

3. «Eritzi» aditzean ere, antzeko fenomenua gertatzen da, oraingoan «R» bokalartekoa da galtzen dana. Guk «R» ipini egin dogu. Halan «deitzat», «deitzak» guk *deritzat*, *deritzak*.

4. «Eroan» aditzean OA: «JA» egiten dau. Laguntzaileetan askotan, OE: «UE»: «Jakuez», «leiueke». Guk OA batean («eruan»: *eroan* eta OE bestean (*jakoez*, *leioeke*) jarri ditugu.

5. «dotan», «dakitan», «daukatan» e.a.ekoen, NORK-eko lehenengo pertsonaren ezaugarria, «T»: D-z aldatu dogu: *dodan*, *dakidan*, edo *daukadan* jarriaz.

6. ZU eta ZUEK formen arteko nahasketa ikusi daiteke forma batzutan. Fenomenu bitxia dalakotan, ez dogu aldatu, bai ostera, orri oinean seinalatu kasuak.

7. Baldintza batzuk ondorioaren ezaugarria dabela agertzen dira, gaur herrian egiten dan erara. Tradizio literarioari jarraituz ondorio ezaugarria, kendu deutsiegu, orri-oinean oharra jarriaz.

Esan beharra dago baita ere, NOR-eko ondorioko laguntzaile era bitara darabilela: «nintzateke» eta «nintzateke». Guk daretan «nintzateke» jarri dogu.

8. Fenomenorik ugariena BA, AL, ETE, EZ hizkiak aditzari lotzean gertatzen danekoa da. Guk banandu egin ditugu, sortzen diran, fonetismoak maila literarioak izan ezik, kenduz:

BA: «Betorren» «beukan», «bekian». Guk, *baetorren*, *baeukan*, *baekian*.

EZ: «ezkara», «eztogu», «eztakit», «ezpaleu»: *ez gara*, *ez dogu*, *ez dakit*, *ez baleu*
Zaindu ditugunak: Z + Z = TZ; Z + J = TX («etzaitte», «etzan», «etxaku», «etxekiat» e.a.).

ETE: «eteukan», «eteban». Guk *ete eban*, *ete eukan*.

AL: «baleban». Guk bananduta *ba al eban*.

9. Partizipioaren «N» jan eta batera idazten ditu partizipio-laguntzaileak batzutan. Halan: «emoeban», «igoeban», «egongoituk». Guk banandu eta osorik idatzi ditugu: *emon eban*, *igon eban*, *egongo dituk*.

g) Loturak

Esaldi kopulatiboetarako TA, ETA edo DA darabilz Agirrek. TA eta ETA dagozan dagozanean itxi ditugu, ez ostera, aurreko hitza kontsonantez amaitzen danetan ipintzen dauan DA. Batzutan TA-z (gehienetan), beste batzutan ETA-z jarri dogu.

h) Hiztegia

Arlo honetan ez dogu ikutu handirik egin, gorago aitatutako fonetismoak kentzeko ez bada izan. Dana dala, autortu beharrean gagoz hitz bitan, geure zalantzak izan ditugun arren, eskua sartu dogula. «malzur» eta «oiartzun» guk gaurko erara *maltzur* eta *oiartzun* jarri ditugu.

Beste hiz batzuk, idatzi mailan gaur hain erabiliak ez diren arren, errespetatu egin ditugu: «iñok», «iñun», «goruntz», «zeinbat», «zerren» eta antzerakoak.

Fonetismoakaitik aldatu ditugu: «oia»: *oea*, «biatz»: *beatz*, «atsakabe»: *atsekabe*, «lastarren»: *lastarren*.

Hiztegia

Gure argitalpen honetan, hasieran hiztegi berezi bat ipinteko ustea genduan, baina, azkenean hobeto eritxi deusagu autoreak berak darabilen oin-oharren bideari. Tx. Agirrek bere lehen argitalpenaren orri-oinetan jarri ebazan hainbat berbaren esanahiak. Errespetatu egin ditugu guk berak ipiniriko ohar guztiak, bai esanahia adierazteko, bai bestelako azalpenak (historikoak, filologikoak,...) emoteko. Parentesi artean ipini ditugu autorearen oharrak. Idazleak emoniko esanahiazalpenok gaztelera dagoz ia beti. Baina, bereen gainera, guk beste berbaren batzuen esanahiak ere emon ditugu oin-oharren bidez, guztiz arruntak ez zirudien berbenak. Guk gehitu ditugun hitzon esanahiak ahal dala euskeraz emoten ahalegindu gara, eta ezina izan jakunean erderaz.

Bestalde, hitz azalpenon helburua irakurketa erreztea baino ez dan ezkerro, ez ditugu jaso hitzok euki leikiezan adiera guztiak, testoan daukien esangurea baino.

Esan beharra dago baita ere, Tx. Agirrek areanetan Larramendiren hiztegiara jo ebala. Halan ipini deusku berak hitz batzuren ondoan (LAR.), ez ostera, Larramendirengatik jasoak dirala dakigun guztietan. Guk, datu hau interesgarria izan leitekela pentsatuz besteei ere jarri deusiegu, hitzaren ondoan (Lar.) ipiniaz.



BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE Txomin, *Auñemendiko Lorea*, Bilbon, Euskalzalzen moldagintzan, 1898.
- AGIRRE, Txomin, *Ondarrak*. ONAINDIA, Santi: «Sarrera», Bilbao, 1964.
- AMENABAR, J.: *Euskal nobelaren azterketa*. Izarraizpe irakaskuntza Koperatiba, 1982.
- FERRERAS, J. I.: *Los orígenes de la novela decimonónica 1800-1830*. Taurus, 1973.
- FERRERAS, J. I.: *La novela por entregas 1840-1900*. Taurus.
- GARATE, G.: *Euskal eleberraren kondaira II*. Gero, Ed. Mensajero, Bilbao, 1985.
- LHANDE, P.: *Agirre irakurgaikiña*. Itzaldiak 1923.
- LHANDE, P.: *Bulletin de litterature basque Domingo de Aguirre*. RIEV, 1920, XI.
- ONAINDIA, S.: Tx. Agirre-ren *Ondarrak* bildumaren «Sarrera».
- OTEGI, K.: *Pertsonaia euskal nobelagintzan*. Gero. Ed. Mensajero, Bilbao, 1976.
- SANZ VILLANUEVA: «Tendencias de la novela española actual (1950-1970)». Cuadernos para el diálogo. Madrid 1972.
- SOLOZABAL, J. J.: *El primer nacionalismo vasco*. Tucur, 1975.
- VILLASANTE, L.: *Historia de la literatura vasca*. Bilbo 1979.
- ZARATE, M.: *Bizkaiko euskal idazleak*. Derioko seminario ikastetxea, 1970.



ITZAURREA

*De Vasconum stirpe clara
Prodiit ista Deo cara
Factis, fama, moribus.*

BEAUSCHAMPS.

Instaurare omnia in Christo: San Paulo Bialkiñaren itz oek esaten dute guk esan gentzakean guztia baiño asko ta asko geiago. Jaungoikoaren Semea aragiz jantzi zanetik, lurreko jende guztiak berri ziran Kristoren legea dala bide, oiturak gozaten dira, agintariak zuzenagotzen, mendean daudenak obeditzen ikasten dute, gizonak emakumeari bere lagunari bezela, eta ez sal-erosi litekean gauzaren moduan, begiratzen; elkarganako maitetasuna jartzen da lege ta eginkizun denen buru; eta maitetasun orri eskerak, arrotz eta erbestekoa, arrotz eta erbesteko izanagatik, ez da etsai izango Kristau egjazkoarentzat.

Elkarganako dezuten maitetasunean ezagungo zerate nere ikasleak bezela, esan zuen Kristok, eta Kristauak, au da, Kristoren bideari jarraitu nai diotenak, alegin guztiakin saiaturen dira, maitetasunaren iturri bizitik sortzen diran ur garbiakin, lur guzti-guztia estaltzen.

Frantzian gure egunetan izan diran izkiralari aundienetako batek esan du, orain urte asko eztala, Kristoren legeak erakutsi duela nola barkatu, nola umildu, nola beartsu eta ezer eztuenari

begiratu, nola atsekabe bat datorrigunean, biotza atsekabe orren gaiñetik jaso, ez atsekabearen azpian zer egin ezta kigula gelditze-ko. Ori esan duenak bazekien zer esaten zuen, naiz bera ez izan bizi Eleiz-gauzetara emana. Egia, egia da beti, naiz ta edozeiñek esan. Eta badirudi oraindik aundiagoa dala bere indarra, orrelako batek esaten duenean: beintzat, mundukoak obeto aditzen dute.

Jaungoikoaren itz egileak mundua ezer ezetik atera zuen ezkerotzik, lurtean bizi izan diran jendeak eta erriak, kondairetan izendatuak daude, gure aurretikoak nola bizi izan ziran guk ikasi dezagun. Kondairak asko erakusten du, begiak ondo zabaldu beren bazterrak aztertzen ditugunean; eta Kondairak erakusten dituen gauza aundietako bat da, jendeak eta erriak eztrala berdin, Gurutzez aronzkoak eta Gurutzez ononzkoak diradenean, Espaiñian izan diran iztunik ederrenetako batek esan zuen erara.

Gurutzez aronzko erriak, oraindik ez tute Kristoren legearen argitasunik. Onenak ere, zer argitasun dute? Egun-sentia datorrenean lenbiziko azaltzen dan arginai, iluntasunak urratzen oraindik ezta kion arren antzekoa. Baiña Gurutzez ononzko erriak, ainbat eta dira aundiagoak, argiagoak, omentsuagoak, zorionekoagoak, nun ta Kristoren legea beren barren-barreneraiño sartzen duten, eta andik, biotzetik, eginkizun guztien sustraitik, eguzki zoragarri baten eran, bere erraiñu iñoiz itzaliko ez tiranak, zabaltzen dituen.

Ala egin du Euskal erriak? Bai, ta ori da, guretzat, Euskal erriak duen aunditasunik ederrena. Gauza ona da gurasoak gandik ikasitako oitura zarrak kontuz gordetzea; baiña gurasoen oitura zar oiek baiño obeak diran lege berriak agertzen badira, zergatik oiei atek itxi? Eta nor da, euskaldunik euskaldunena izan ta ere, esango duena Kristoren legea ez dala, kaburik gabe, lengo euskaldun zarren oiturak ta izaera baiño obea? Orregatik, Euskal erriak bere kondairan duen gertakizunik aundiena da, Euskal erriaren kristautzea. Biotza poztutzen digun gauza da, Aitor-en semea izaeta, baiña Kristoren semea izatea ezta milla bider aundiagoa?

Aitor-en semeak Kristoren seme biurtu ziranean agertu ziran Euskal erriarentzat egun berri zoragarriak. Ori ikusi nai ez duena, txit itsutua dago. Aundiak bagera euskaldunak geren jatorriz, asko geiago aunditu gera Kristoren fedea biotzean sartu genuen ezkerotzik. Badira esaten dutenak, barkatzeko euskeraz degun itza, la-

tiñez orretarako danetik artua dagoela. Ori ala bada, Kristoren fedea zabaltzera etorri ziranak, ekarriko zuten itz ori. Ongi ekarria dago; bada kristautu baiño lenagoko euskaldunak barkatzen ez bazekiten ere, Kristoren legean bizi geran gizaldi oetako euskaldunak barkatu nai degu, barkatzea dalako, Jaungoikoaren Semeak bizi guztian, eta batez ere eriotza zetorkionean, gurutzean josirik zegoela, zerua bezin itz ederrakin, erakutsi zigun ikasbide maitagarria.

Itzaurre makal onen ondoren datozen orri ederretan ageri dira gauza egoki jarriak, aditzera emanik zer nolakoak ziran Kristoren lege donea biotzez maitatzen zuten euskaldunak: Arnaldo, Ubero, Riktrudis, euskaldun zintzoak, leialak, beren erriari naitasun aundia ziotenak, baiña beren erriari naitasun andia izanagatik, bakoitzari berea ematen zekitenak. Eta oen aurrean, Adalbaldo bat, arrotza izan arren, euskaldunak maite zituena, kristauak ziralako. Eta guztien gaiñetik, Amando apezpikua, Kristoren legea zabaltzea bere egitekotzat zuena, eta orregatik guztientzat ona, zergatik Kristoren irudi ta antzera bizi danak guztientzat ona izan bear du.

Gertaera egokiak aukeratu ditu nere biotzeko adiskide Agirre apaiz Jaunak bere lan politerako; eta gertaera oek, ondo edo gaizki apaindu dituen, laster ikusiko du irakurleak. Obe du, Agirre Jaunaren itz ederki maneatuak irakurri, ez nere argal elkarrengana ondo itsatsi gabeko oek. An ikusiko du, nere jardun gatzik gabean ikusiko ez tuela.

Ez diot nik esango irakurleari Agirre Jaunaren lana, ona dan edo ez dan. Ori esateko, nik dakidan baiño geiago jakin bear da. Nik esan nezakeana eta irakurleari esango diodana da, neri zer iruditu zaidan lan ori, eta nere biotza nola poztu dan lan au irakurtzean. Irakurleak berak, iñork baiño obeto ikusiko du, neri gertatu zaidana gertatzen ote zaión berari.

Ondo egiña iruditu zaidala Agirre Jaunaren lan polita, esan bearrik ez da. Gaizki iritzi banion, ez nuen itzaurre au moldatuko. Nik derizkiotanez, Agirre Jaunak gauza egokiak gogoratzen dizkigu, eta ez bakarrik egokiak, baizik egoki esanak, zer esaten duen eta euskeraz mintzatzea zer dan ederki dakienak bezela. Biotzetik aterea, eta ez otz-otzik asmatua da paperean dagoen guztia. Bio-

tzetik aterea ez balitz, ez luke besteren biotzik, nere biotza berotu duen ainbat berotuko. Ori da egiazko izkiralari izatea, eta biotzetik biotzera dijoan ikusten ez dan ari me zolia eroso mugitzen jakitea. Ba dirudi ari orrek, gaurko egunean argia, itza eta indarra erri batetik bestera eramateko dauden beste ari batzuen erara, daramala biotzetik biotzera, bada besteagandik urruti egonagatik, barrengo sua, maitetasuna, ona izan naia, gauza aundien egarria, Jaungoikoa gauza danen gaiñetik maitatu bearra.

Lendabizitik artu nion Agirre Jaunaren lanbide zuzenari, bu-ruan argi eta biotzean su dan maitetasuna. Agirre Jaunak geiena goratzen dituen euskaldunak, dira, nere irtiziz, euskaldunik one-nak. Zergatik neri galdetzen badidate zein dan onena euskaldun-aren artean, bereala eranzungo det: Kristok erakutsitako bideari ongiena jarraitzen diona. Portunen antzeko euskaldunik ez degu bear, gure erri maitea geroago ta maitagarriago ikusi nai degunak. Zuzentasuna lenbizi: bakoitzari zor zaiona eman; euskaldun izan etxean ta zelaian, Euskalerrian eta erbestean: euskaldun beti, gure egitekoetan gure itzetan baiño geiago, arrokeri gabe; arrokeria, gauza itsusia dalako, besterentzat utzirik: Kondairan gure alde agi-ri diran gauzetatik, egi-egiazkotzat ondo ezagutuak bakarrik artu-rik, oekin ere, aski ta geiegi degulako, gure erria zoragarriro apaintzeko: itz batean, Arnoldoren alaba eder, oon, gozo, jaungoi-kozko, maitagarriak esan zuen eran: *euskalduna nazan aldetik euskaldundu, kristiñaua nazan aldetik kristiñautu.*

ETXEGARAI-KO KARMELOK



I

AMA-ALABAK

Gertaera zarren albistarik euki nai badozu, neure irakurle euskaldun biotzekoa; len-lenagoko emakume gozo maitagarri bat ezagutu nai badozu, zatoz neugaz batera Franziaruntz; *Auñemendi*¹ tantaiaik igaro daiguzan biok, euskal-etxe baten barruan sartu gaitzean (atseden bat egiten bakarrik, zerren gero asko ibilli bear-ko dogun), eta gauza bene-benetan ikasgarriak ikasten saiatu gai-tezan. Baiña nekatuten bazara, ta bide luzeetan ibilteko gogorik ez badaukazu, zagoz geldi-geldirik zeure tokian, zeure gelatik ur-ten бага bear dan guztia ikusiko dozu. Irudimen azkarraren ego zoliak zabaldu ditut, adimenaren argi zerbait erakuslea *isioturik*² daukat, eta emendik prantsez anaien errietaraiño osterea be-realaxe egingo dot, ango barri guztiak zuri ekartearren.

Lenago bere izan naz bertan. Ez dago zein erritan esan be-arririk: naikoa da euskaldunen lurrean dala jakitea, ta liburutxo one-tan esango ditudan gauza guztiak antxiñetan gertaurikoak dirala, orain amabi eunkida ta geiago, 638-garren urtetik aurrerantzean.

Nire adimeneko argitxoa ainbeste urte erreskadaren zear ba-rrura sartuko da, gizaldi luzarokoen laiño baltz astun guztiak dese-gingo ditu, ta gaur barriro ikusi nai nitukean *laurka*³ gogoanga-

¹ (*Auñemendi*: Montes Pirineos).

² *Isiotu*: biztu.

³ (*Laurka*: cuadro).

riak argi ta garbi erakutsiko deustaz. Ames baten gisara sosmau nituan lenengo, gero paper zarretan egiak dirala ikasi izan dot, eta gaur, irakurlea, oraintsu batean neure begiakaz ikusi banitu legez esango deustudaz zuri.

Mendi andi biren erdian ibar eder bat nekusan; or eta emen, ibarraren zabalera guztian, mendi egaletan, mendien gaiñean, ta zugatzen azpian euren burua erdi gorderik, etxe txiki txiro ta garbiak; eta nire aurrez-aurre beste etxe zar-zar zabal andi bat, aberats jauregi antzekoa. Arriz egiña zan, baiña ez nire egunetan ikusi ditudan etxean irudira, pitinga-pitinga, zirika-zirika, astiunearen astiunez leundutako arriakaz jaso. Etxe au egiteko etzan arri errukirik izan; baiña arri leunketan argiñak ez ebela lan andirik euki uste dot, bata besteen gaiñean ipinten bai baiña. Aiñ ziran andi, desbardin, koskor ta koskaz beteak, mailluagaz beste barik landutakoak zirudien. Jaungoikoak badaki jauregi au zer *egikeratakoa*¹ zan.

Goazen barrura atea eregitu dagozan ezker — esan neban —.

Olesik egin baga, zerren adiñak eta irudimenak ez deutsee iñori olesik egiten; iñok ikusi barik, bada arimako almenak iñok ikusten ez ditu, gizategi andi batean sartuten naz, ta billatuten ditut emakume bi eskuetako lanetan zeregindurik dagozala. Emakume bata naikoa zarra, irurogeta amar urte ingurukoa bai, bestea gazte sasoikoa. Emakuma zarrenak idunetik eta beraiñoko soiñeko bategaz gorputz guztia estaldurik eukan, ule zuri ondo orraztuak *burustalki*² zuri garbi baten azpian gordeten zituan, bekoki zabal zimurtsukoa zan, begi andi *leñargizkoak*³ malkoz beteak ikusten jakozan, arpegikera guztian emakume on utsa zirudian: andra Luzia zeritxon. Neskatilla gazteak zeruko aingeruen antzeko arpegi biribil gozo leuna eban; gaztaiña *margoko*⁴ ule ugari eder, kopeta aldean ta belarrondoetan, berez, egokitasun andia-

¹ *Egikera*: (estilo).

² (*Burustalkia*: toca). (*Lar.*)

³ *Leinargi*: aitonen seme, «noble».

⁴ *Margo*: color.

gaz kiskurtua, ta begi baltz batzuk bai! ezitsuagoak ziran Mondarain mendiko lorarik ezitsuenak baiño; ederragoak goizeko izarren argitasun biguna baiño; garbiagoak Lamiñ-errekako ur garbi *leiarrek*¹ baiño, erruezagok umetxo jaio barri batenak baiño. Etzan andia, etzan txikia, etzan zabala, estua etzan: dana zan ondo neurtua emakume onetan, ta bere ibillera ta jira-bira guztiak oso lirain ta egokiak izan bear eben.

Ni sartu nintzan une, aida edo *liparrear*² geldirik egoan tin-ka-tinkaro bere Amari begira, maitasunezko begirada orretan bere gurasoa gorde ta poztu nairik.

— Zergaitik negar, neure Amatxo —, esan eban Riktrudisek? — (Au da neskatilla maitagarriaren izena). — Zergaitik, alabatxoa? — diño andra Luziak. Ik ondo jakin bear don. Iru egun da Arnoldo etxera agertu ez dala, ta bildur naz, guda barriren bat or beeko prankotarren kontra asmauta, eure Aita euskaldun gudarien buru ta zuzentzaille ipiñiko ez ete daben. Ta ez da gaur orain ogetamar urteko gizona. Guda barririk bada, neure senarrak etxetik urtetea ez neuke gura. Bere otsein, morroi ta maizterrak bialdu daizala; ez dau beste batek Arnoldok aiña gizon Euskalerraren alde bialduko; baiña etxeko jauna gelditu dedilla etxean, bada etxeak bere zaintzaillea bear dau. Ganera, Mendiolako etxejaunak euskaldun lurragaitik naikoa egin dau orain artean. Ia bere bizitza guztian euskaldun gizonen nagusi izan da, ta Arnoldok bere zanetako odolagaz ortxe busti dau sarritan gure lurra ta ortxe nunbaiten ikusi ditu jausten bere seme morrosko biak, Joanes ta Iñigo, banan-banango mutillak, eure anaiak, Riktrudis! eure gurasoen poz eta atsegiña ziran ondorengoak. I oraindiño umetxoa intzanan ta...

— Baiña, nondik, Ama, datorkioz, ain bidebagako gogame-nak? Ez da gure Aita etxetik kanpora beste askotan bi ta iru egu-nean egoten? Ez da lagunakaz eizera joana izango?

— Ez, enetxoa. Ez da ire Aita aspaldietan eizera joan. Nire gizona atzo goizeko umea ez da: bere lepo gaiñean larogei urte

¹ (*Leiar*: cristalino).

² *Lipar*: une, (instante).

daroz, asko nekatua dago, ta gordin itxurea badauka bere, ez dago gordiñik biotzean ez bada. Bai iñoiz eizera. Ai orduan! Azkarrak ziran Arnoldoren anakak, argia ta itzala batean bere begia, gogorra bere besoa, beso gogorrik gure mendietan bazan. Zenbat abere ikusi ete dira ire Aitaren aizkorapean! Gure oiñen azpian daukaguzan narruak zerbait esaten deuskune. Artza bazan, otsoa bazan, basauntza bazan, etxe onetara eiza ugari baetorren orduan. Arnoldo, seme biakaz, emen inguruko *larrabere*¹ guztiak amaituteko naikoa zan; baiña lagun asko etorten jakozan etxera, ta or ibilten ziran aldrea andiak, oiuka, deadarka, garrasika, mendirik mendi, ibarrik ibar, basorik baso, euritan ta edurretan, zeru garbian eguzki ederra agertzen zanean legez bardin, eguna baiño lenago jagita gabeko orduetaraiño. Urteak dira orrelango *baralirik*² etxean sosmau ez dodala, urteak abere narrurik Mendiolan sartu ez dala. Dana dago emen zarra, etxea ta etxeoak, eu izan ezik, Riktrudis. Gure semeak il ziran ezkerotik, Aita zarrak zankoa loturik dauka etxean, zu ikustean dauka bere poztasun bakarra, ta ez dau etxetik urtetan zeregin andi ta premiñazkoren batek deitu ezik. Eta orduan bere beti bialtzen dau norbait non ta zetan dabilen esatera. Larunbat goizean, eu elizan intzan bitartean, Ozinbelzko Otxoaren morroi bat etorri jakon eske, ixil-izketan egon ziran biak, eta joan ziran, neuri agur bat egin baga, ta euri bere ez, Riktrudis! Astelen arratsaldean gagoz, ta ez da iñondik agiri, ezeren barririk ez da. Zer deritzan?

— Deritzot, Ama, gudarik dan edo ez dan ziartu ez dakigula, ta balitz bere, ez litzatekela izango Mendiolakoko Arnoldo, larogei urteko gizona, euskaldun gudarien burutzat jarriko leukeena. Euskalerrriak badaukaz gizon *goiendeko*³ zintzoak: ara or Saratzuko Lope, indarra besoan, argitasuna adiñean, sua ta garra *beregandeko*⁴ biotzean daukazana: ara or Ametzuko Gaispar, gizon leiala ta zuzendari burutsua: ara or Etxegoieneko zaldun gazte az-

¹ *Larrabere*: basapizti.

² *Barali*: algara, aztrapala, nahaste.

³ *Goiendeko*: (excelente).

⁴ *Beregandeko*: (sereno, tranquilo). (Lar.)

kar ta izen andikoa; ara or Diego Etxalar da Urdatz-ko Gonzalo napartarren gidari errimeak: ara or...

— Alperrik diardun, Riktrudis. Esan dozan ta esango dozan gizon guztiak baiño izen andiagokoa da ire Aita, ta orregaitik, eta zartasunari emen gordeten jakon begiruneagaitik, berak nai badau, euskaldun gerralarien zuzentzaillea Mendiolakoko Arnoldo izango da. Ta nik neure senarra ondo ezagututen dot.

Guda barri bat ostera, gure artean, guztiz erraz sortuten dan gauzea da. Eun urte oneetan guda bat amaitu orduko beste bat asi oi daroagu, or beeko prankotarrakaz, gu menderatu ta euren legeen azpian ipiñi gura gaituelako. Orain berrogeta amaseiren bat urte, 581-garangoan, jatsi ziran menditik gureak, otso amorratuen antzera, ta eroan zituen arerioak beterritik zear igesik gure lurretatik kanpora, artalde bat euren aurrean otsoak eroan oi daben era berean. Txilperiko II-garrenak bialduta, Bladastes dukearen agindupean etorri ziran barriro: ugari etorri ziran, txiñurriak baiño ugariago, gure mendietatik euren etxadietarako zerbait eroateko asmoetan; baiña txiñurriak baizen erraz euskaldunen oiñazpian zapalduak izan ziran, ta Bladastesek galdu zituan betiko bere agintea ta bere izen andia. Bosteun ta larogeta seigarrenko urtean egin zan beste sarrera on bat; eta bosteun ta larogeta zortzian beste bat, gogorragoa ta obea, bada gureak eldu ziran Adurren ertzeraño: an ikusi eben alkar Teobaldo dukearen jenteak eta eure Aitaren agindupekoak, an ezagutu eben Teobaldorenak zenbateraiñokoa zan menditarren besoa. Baiña ezin eben etsi: bosteun ta larogeta amalauan, Txildeberto Erregearen seme Teodoro ta Teodoriko agertu jakozan ostera bere, iñoiz baizen indar geiagogaz, euskaldunai arpegi emotera: gureak *ustakida*¹ geiegian egozan, ta etziran batu garaian ta bear ziran aiñan, ta prankotarren odolagaz erreka zabal gorriak egin bazituen bere, menderatuak izan ziran. Euskaldun bakotxak eun prankotarren kontra jardun ei eban, ta milla listor bere, artz andi bat itoteko naikoa dira, guztiak bat egin ezkerro. Orduko naibagea gizonen artean zer zan! Orduko negarra emakumeetan zelangoa!

¹ (*Ustakida*: confianza). (Lar.)

Egia esateko, etziran gero prankotarrok euskaldunakaz ain gaizki *akindu*¹: Jenial kondea izan zan emen erbestetarrak ipiñiriko agintaria, ta urte batzuetan beragaz bakean bizi izan giñan. Baina ez luzaroan. Etorri jakun gero beste agintari barri bat, *Aighinam* izenekoa, Sajontarra. Aserratu ziran gureak gizon orregaz, ta asi ziran errierta barriak. Aighinam gizon gogorra zan, ta gogorrean gura eban agindu, baiña euskaldunagaz gauza on gitxi atera leike gogorrean. Aighinam kendu ebenean, bialdu euskuen Amando, gizon zuzena, ona, ta euskaldunakaz gauza askotan bat egiten ekiana. Alan da guztiz bere, beti izaten genduan zerbait: etzan Amando jatorriz euskalduna, ta emen, euskalduna izan ezik, atzerriko agintariakaz, doneak izanda bere, ez da egundo gauza onik izan. Oraingoa bere ez da ain txarra, baiña zerbait badarabilgu beragaz. Gaur goizean Pedro Mari gure otsein zar ta leialari deitu deusat, Arnoldoren barriak jakitearren, ta Pedro Marik esan deust guda zurrumurroa badala, zerren Ozinbelzko jauregian daukeen batzar bat euskaldun agintari askok eta Erebi mendirontz inguratu diran, Otxoak deituta, Urruiña, Ziburu, Donibane, Getari, Bidart eta beste itxasaldeko jente biziak; eta beste aldetik, Ustaritz, Aitzbarren, Kanbo, Ezpeleta, Joldi, Dones-teban, Donibane, Garazi eta beste erri askotako mutil sendoak.

— O! Zer negargarria dan, Ama, gizonak, anaiak izanik, alkarregaz beti gudetan ibiltea.

— Ez dakin ondo, Riktrudis, zenbateraiño dan negargarria; ez dakin zein otza, zein bakarra gelditzen dan etxea, etxeko jauna gudetan dabillen bitartean! Zein luze ta tristeak izaten diran guda eretiko orduak bakartadean dagoanarentzat! Baiña nai ta naizkoa da gu azpiratzera datozenen kontra guda egitea. Zek dakarz gure mendietara jente arrotzak? Zer galdu jake basoan? Zer deusegu zor? Ezer galdu badabe, emongo jake billatzen dogunean: ezere zorrik badaukagu, emongo deusagu arpegia zorrari; baiña gure *ekandu*² zar, oitura on ta txaboletako jenteai itxi daioela bakean: bego geldirik arrano goitarren abia, arpegiko narrua bere erpe go-

¹ *Akindu*: portatu. (Lar.)

² *Ekandu*: ohitura.

gorraren artean itxi gura ez badabe ikutzailleak; itxi geldirik arkaitz zuloetan bizi dan otsoari, bere agin artean zatitua izan gura ez badau prankotarrak. Bizi bitez arrotzak ordu onean euren erri beietan nai daben erara; baiña itxi daiguela guri gure baso errian. Beian betarrak, goitarrak goietan, bakoitza bere tokian.

Emengo emakume bakotxa leoi eme aserratua baiño ase-reago jarten da erbestetar gudariak ikustean. Biotzean naigabea ta begietan malkoa dodazala, neuk, Riktrudis, neuk berotu ditut askotan etxe onetako gizonak erbestetarren kontra joan eitezan; neuk, emakumea, emaztea, gurasoa, Ama izanik! neuk biraldu ditut prankotarren kontra neure senar maitea ta neure seme kutunak.

— Arriturik nauka, Ama, zuk Euskalerruari izan deusazun maitetasunak.

— Baiña gaur, — jarraitu eban andra Luziak, Riktrudisen esanari jaramonik egin baga — negar asko egiña nazalako, edo neure zanetan odolak otzitu jatazalako, edo eu, Riktrudis, lurrean bakarrik gelditu ez adin, edo etxakiñat nik zegaitik; baiña Arnoldo gurea emengo gudarien aurretik joatea ez neuke nai.

— Ez da joango, Ama, ez da joango. Neuk dakit.

— Ez dala joango, Riktrudis? Euk dakiñala?

— Bai Amatxo... Zeure baimenik baga, etxe onen pozerako ta gure arimen bakeagaitik gauza onetan sartu banaz, parkatu bear deustazu. Lau ordu badira Pedro Marik Ozinbeltzerontz neure aginduz urten dabela, Mendiolako jaunari esatera, guda barri-rik bada, ez dedilla guda orretan sartu, bada ez daukala jatorri zuzenik. Zeuk esaten deustazu, Ama, nire Aitak maite nabela, ni ikustean daukala bere poztasun bakarra, neuk bere ba dakit Arnoldo zarraren biotz leiñargiak zenbateraiño nabten maite, bere mingostasunen eztigarrizat naukala, bere aingeru jagole zerutar-kotzat, milla bidar adierazoten emon deustanez. Orregaitik, bada, nire esanak beragan indar pizka bat eukiko dabela uste dot; baiña ez baleuka¹ bere, badaezpadan bere, eroan dau Pedro Marik beste eginkizun bat... Zeuk badakizu — jarraitu eban emen Riktrudi-

¹ Baleuka: Autoreak «ezpaleukake» dakar.

sek, dana *lotsakarturik*¹, arpegiaugarretan eukala — badakizu zelan Ozinbeltzeko seme nagusiak... Iñoiz ez deusat arpegira begiratu, egundo ez dau berba bat nire aotik entzun, kristinauen are-rioa dalako; baiña gaur bera dala guda onetarako zirikaria aitu dot eta... Pedro Marik esango deus, nigaitik ezer egin nai badau Portunek, amatau daijala gudarako sua, edo gitxienez, egin daijala zerbait nire Aita gudara joan ez dedin...

Riktrudisek berbetan ziarduan bitarte guztian, andra Luzia, eskuetakoz zeregiña itxita, bere alabeari artez artez begira egoan, *konkortutako*² emakume baten antzera. Riktrudisek bere jarduna amaitu ebanean, andra Luziak esan eutsan:

— Arriturik naukan, neure alabea, ez aut ezagututen. Noiztik eta ona az eu olangoa, Riktrudis? Noiz emon don oinkada bat bakarra eure Amaren baimen bago? Noiztik az ain *eurezkorra*³?

— Ara, bada, Amatxo; gure etxearen onagaitik, zeu atsegin apur bategaz ikustearren...

— Bai, bai, ori bai; bein bere ez don, Jaunari eskerrak, gurasoen onerako ez dan gauzarik egin: maite dozuz ta maite abee; baiña zelan sartu az gizonen gauzetan, ta neuk ezer jakin barik?...

— Etzaite, Ama, aserratu, egia esango deus, beti legez. Aurrez gogoratu jatan ez jatzula zeuri ondo iritxiko egitera ninoina ta...

— Ainbat gaiztoago. Orrek erakutsi bear euanan etzala ona ik darabilnan asmoa.

— Asmoa, — parkatu eidazu, Amatxo — baiña asmoa ontzat euki dot. Guda bat beti da txarra, ta askozaz txarragoa zuzenbide-*tik ez datorrenean*...

— Ta ik, *beztun*⁴ bagako usakumetxoa, zelan dakin guda bat bide zuzenetik noiz datorren? Ori gizonak erabagi bear daben gauzea da, ta emakumeen iritxia jakin bear balitz, irea baiño lena-

¹ *Lotsakartu*: lotsatu.

² *Konkortu*: zoratu, burua galdu.

³ *Eurezkor*: zeurekor, berekor: gauzak berak beranez egiten dituana. Kasu honetan «heu», 2. pertsona.

⁴ *Beztun*: «bilis».

go da eure Amarena, ta neuk esaten deunat bein bere ez dala bide txarrekoa euskaldunak prankotarren kontra asten daben gudea. Riktrudis, ik gaur egin donan lango gauzarik ez dau beste emakume euskaldun batek bere bizian egin. Esango daroe ez daukanala ik eure zanetan arako gure mendiak, gure izate ta izkuntza zarraren alde il ziran anaia errizaleen odola.

Andre Luziaren itz zaparrada guztia irribarre gozo bategaz entzun eban Mendiolako alaba bakarrak. Baiña bere Amak azkenengo itzak esan zituanean, aingeru zoragarriaren arpegia gorritu zan batbatera, bere begiak malkoz bete ziran, bere biotza mugaldatu zan, ta leiñargitasun benetakoaren esanakaz erantzun eutsan bere Amari:

— Ama, ori esaten badabe, ez dabe ondo esango. Beste edozein emakume bestean euskalduna naz ni: zanetan neure anaia maiteen odola daroat, Mendiolako etxeoandarearen odola: ez neuke bildurrik izango euskaldun guztien aurretik, Aitaren orde edo Aitagaz batean, neure erriko etsaien kontra, aizkora bat eskuan dodala joateko, gure lurra, gure izkuntza edo gure izatea *zematuz*¹ baletoz: etsai ugariak ikusi arren nire aurrean, ez litzateke orduan ikaratuko nire biotza, ez neuke dardararik izango nire besoan jente arrotzaren buruak erdibituteko: nire gorputz edo arimako bizia kentzera baletoz, nik geien maite nai ditudan arimako ondasunak ostuteko gogoak balekarrez, guda zuzenean jokatuko genduke: baiña ez dago gaur, Ama, olango gauzarik: gizon gaizto batzuen bidebagako andinai izateak edo beste batzuen *kurruka*² egarriak, aspaldietako ikusieziñak, edo norbaiten umekeriazko eztabaidak, auts artean ia estaldurik egoan su kaltegarria barriro bitu nai dabe. Ta ori ez da ondo: gudara joan bear da, guda egin bearra nai ta naiezkoa danean, ta ez batek edo bik bere griña zatar guztiai asete bat emon gura deuseelako. Orregaitik, Pedro Mariren bitartez esan deus, Aitari, gure arimen bakeagaitik, anaia prankotarren kontra ez dedilla ezertan asi, oraingoan beintzat.

¹ *Zematu*: amenazua egin.

² (*Kurruka*: venganza).

Bere alaba ederraren begi ederrak malkoz beterik ikusi zituan, andra Luziari biotza samurtu jakon, damutu jakozan esanak guztiak, laztanka asteko gogoia jatorikon, bere zeregiña alde batera itxi eban, ta, arturik bere jarrilekua, narrazka Riktrudisengaino eroan eban.

— Ez adi estutu, kutuntxoa, — zirautsan — ez adi estutu: danok dakie emen zein etxetako alabea azan, ta zein ona, ta zein ederra, ta... Baiña Jesus! Jesus! euk bere andiak esaten ditunan. Ez dedilla gure Aita anaien kontra asi! Gure anaiak noiztik ona dira prankotarrok, maite? Noiztik ona! Gure areriorik okerrenak ez dira beti?

— Ai, Amatxo! Zeu, antxiñetatik biotzaren erdian daukazun naigabeak itsuturik ipinten zaitu. Ondo dakizu, danok Jaungoikoagan anaiak gareala, ta geiago osteria sinismen batekoak bagara. Prankotarrak Jesusen sinismenekoak dira, ta, euren zorigatxez, euskaldun asko ez oraindaiño. Egia da prankotarrak gure areioak izan dirala gizaldietan; ezbearreko gauza dongeak egin deuskuezala egia da; badakit euskaldun askoren odol garbiak busti ta *narotu*¹ dituala gure zugaztiak, prankotarrak dirala ta ez dirala; badakit eurakaitik daukagula euskaldun guztiok biotz gaxoa barru-barruan minberaturik; baiña gizon arrotzak azkenengo gudetan egindako marratik kanpora daukaguzan artean, gure ekandu zar ta izateko ereari geiago ikututeko asmorik bagea banean bizi diran bitartean, gu legez kristinauak dirala gogoratu nai dot; neure lenengo urteetatik biotzaren erdian sosmau neban gorotoarenugarra amatau gura neuke; Kristo Jaunagan neure anaiak legez begiratu gura deutset prankotarrak, iruntsialak iruntsita bere. Kurrukarako gosea Jaungoiko guzurrezkoen erakuste oker bat baiño ez da; parkameneko erakutsia, Kristo Jaunak zeruetatik ekarri euskun egia zuzena.

— Ai, neure alabea, ez aiz i Ama.

— Baiña bai kristinaua, ta zeu, Ama izan arren, kristinau benetakoa zara gaiñera, zeuk uste dozun baiño ohea.

¹ *Narotu*: ongarrizatu, fertilizatu.

— Itxi daiogun gauza oni bakean, ta esan eidan gudarako bide onen jatorria zelan jakin donan.

— Bai pozik, Amatxo. Ara bada: gaur goizean, sarri oi dodan legez, Amando *apezpikoaren*¹ oiñetan *autorre*² on bat egiteko usteagaz, done Pedoren Elizatxora joan naz. Neure eginkizunak amaitu ondorean, Amando Kristoren erakusleak beragana deiturik: — «Aita non dozu, Riktrudis?» — itandu deust. — «Aita — erantzun deutsat — nire Aita, orain iru egun dala etxetik kanpora dabil, non ez dakit, jauna». — «Ozinbeltzeko batzarrean egongo jatzu, beste etxejauntzetako gizon askogaz batean» — esan dau Amandok. — «Beraz — asi naz ni itaunketan — euskaldunak zeregin astunen baten gaiñeko batzarra dauke?» — «Bai, — jarraitu dau Amandok, — bai, ta gauza onerako ez. Lengo baten, prankotar agintari batek eta Ozinbeltzeko Portun seme nagusiak, Aitzbarrengo Eliza aurrean eztabaidaren bat izan dabe. Prankotarra bere bidean elizara eioan, ta Portun orrek, siniste bagea ta arroxko samarra zelan dan, fedearen kontra zerbait esan ta barre ta ziñuren batzuk egin bear izan eutsazan fedezaleari, ta onek Jesukristogaitik arpegia erakutsi ebalako, alde batera ta bestera gizonak jarrita ukabilkadaren batzuk alkarri emonak izan bear dabe. Ordutik ona, or dabil Portun su ta garrak arturik, euskaldun altsu guztiak deiezka, Aitzbarrenen jazo zana berak nai daben eran guzurraz apaintzen, ta alde guztietan deadarka, ez dagola lur onetan gauza onik prankotar guztiak inguruetatik bein betiko kendu bagea. Aitzbarrengo kristinauak Otxoaren mandatariari ez deutse *abegi*³ onik egin, baiña beste euskaldun kristinau askok, ez jakiñean, ontzat emoten dabe guda barri gogor bat prankotarren buruko arrotasunak kentzeko (alan diño), ta ez dakit emen zer gertauko dan, bada guzurzaleak berenagaz urtetearren asmautako guda bat Jaungoiko egiazkoak ezin leike ezertara bedeinkatu. Nabillen toki guztietan bakezko mandataria naz ni, ez prankotarren aldekoa; (badakizu Dagobertok bere lurretatik erbestetua nazala, baiña alan bere ona besterik ez deutsat opa) ez euskaldunen arerioa:

¹ (*Apezpiko*: obispo). (*Lar.*)

² (*Autorre*: confesión).

³ *Abegi*: harrera, txera.

gizon guztiak ditut nik adiskide ta geiago Jesusen adiskideak badira: gizon guztiak gura nituke nik maitetasunezko lokarriakaz alkar-tu, ta orregaitik eta oraingo aizkorak artzea ondo ez dalako, euskaldun ta prankotarrak alkar barrero jo ez daien alegiñak egin bear ditut.

Bart arratsean Ezpeletako Ubero zarragaz egon nintzan, ta gizon arima garbiko aren laguntasuna badaukat, gaur goizean zuen etxera joateko nengoan, ta poztasun andi bat artu dot zu emen ikusi zaitudanean. Mendiolako etxea izen andikoa da Euskalerrian, ta etxe orretakoak nai izan ezker... Arrenez nauka-zu, bear bada, Riktrudis, Jesusen izenean. Zuk neure lanbidean lagunduko deustazu; ez da alan? — Pozarren, jauna, — erantzun deusat. — Niri arrenik egin bearrik ez daukazu: nire arimearen gidari zuzena ia urte bi onetan zu zara, zeure gogo da nirea, zerren zeure aotik entzuten dodan Jaungoiko maitearena. — Bai, zure biotzaren barri banekian nik: zuk lagunduko deustazu, bada; baiña zure Amak?»

— «Nire Ama ona da, Jauna, — esan dot. — Bai, bai, ona da — jarraitu dau — badakit ondo, guztiz ondo dakit; baiña prankotarren aldetik ainbeste min artu dau gaixoak eze... Ara, Riktrudis, Pedro Mari morroi zarra Aitagana bialdu egizu... Amari esan barik. Zure Aitak zure begietatik ikusten dau, ta ona da, ta jakin daie-nean... Amari gero esango jako.»

Onenbestegaz agurtu gara, ta badakizu zeuk gero zer egin dodan. Ondo egin dot, Amatxo? Baietz esan eidazu, eta guztiz atsegindurik ipiñiko nozu.

— Ondo... bai, Amandok esan deunana egia bada... ta egia izango da, apezpiko jaun egizalekoak esan dabenean; baiña ez dakit nik zergaitik naiagoko neukean berak Aitzbarrengo jazoera orren gaiñean esan deustun guztia guzurra balitz. Ain nago prankotarra buruaren erdian beste zartada bat emoteko gogotsua!... Ta zergaitik gura ete eban Amando Jaunak euri emon deunan eginkizun ori ire Amak bereala ez jakitea?

— Ez dozu igarten, Ama? Len bere esan deustut bada. Zeure biotzaren erdian daukazu naibageak pranko ta euskaldun arteko gauzak ondo ikusten isten ez deustuelako.

— Naibageak itsutua ete nauka bada? Jesus milla bidar! Nik

bere, beste gauza guztien gaiñetik kristiñau izatea gura dot ba. Samiñez beterikako Ama Maria, lagun zakidaz!

Zeruetako Jaun Egille ona, parkatu eidazuz neure zorrak, nik neure zordunai parkatuten deustedan era berean. Bai, min andia artuten dot, baiña guztiai parkatuten deustet.



II

BATZARRA

Ama-alabak Mendiolan itxita, euskaldun gerralari zar batzuk ezagututeko aukerea ez galtzeagaitik, Ozinbeltzera joan nintzan ni, mendiz mendi.

Errekondo sakon batean egoan Ozinbeltz ketan ta laiñotan. Keia, etxe inguruan egozan guda gizonak egindako suarena zan; laiñoa erreka ertzetatik igondako lurrun edo ur zeea.

Otxoaren jauregia egoan tokiak egoki ipiñiriko izena eban, Ozinbeltz. Bira guztian aldats andia eukan, Nibe ibai alderuntz izan ezik; ipar edo ego aldetik, ia zutindurik egozan mendietako zugazti aritez ta *artelatzez*¹ ondo beteak; eta sasi, lar, ota, erro-lantz ta beste *sastalari*² mueta askogaz josirikoak, itzaltasuna emoteko aukeran egiñak zirudien. Basurdeentzat etzan lekua makala.

Erreka ariari jarraituta *bide ziortxu*³ bat billatu neban, mendian bera. Jatsi nintzan. Jauregi aurean goitik usten zan baiño toki geiago egoan. Erreka ertzean landa bat dago luze-luze jarrita, zabal-zabal ez baiña; ta landa orretan, or aldra bat eta emen beste lurrean erdi etzinda, mutil morrosko ta gizon garerdiko asko ta galantak nekusazan zotz-burduntzietan erretako basurdearen okela gorria jaten. Ze gizon ederrak ziran geienak! Begi baltz andi

¹ *Artelat*: zuhaitz mota bat: «encina».

² *Sastalari*: bedar txarrak.

³ *Bide zior*: bidexka, «sendero».

bigunak zituen, betazal luze-luzeak, bekoki zabal garbiak, ule bal-tzeran edo gaztaiña margokoa lepotik bera, samatik belauñeta-raiñoako soiñekoak *uel*¹ bategaz gerrian loturik, eta ardi ari edo ule lodiagaz egindako oial zati edo *mantarrak* berna lodi gaiñean. Sendoak zirudien gizonok, baiña bai onak bere; gudetarako egundokoak, baiña etsai menderatuentzat txit onak, onegiak: euren begi gozoak ezin eikien ukatu.

Ikusmiratxoa naz, ta bein banaan gizon aldra guztiak ikusi ta zein aldetakoak ziran jakiteko gogo neukan; baiña geroago ikus-tekoan itxi neutsen: lenengo euskaldunen nagusi ta buruak ezagutu gura nituan. «Egingo neuke —esan neban— Ozinbeltz etxe andiko atarian, zugazti intxaur urtetsu orren azpian dagozanak dirala. Bai, eurak dira, ta onako aitona zaar ule ta bizar zuridunagaz izketan dagoan ori, Pedro Mari Mendiolako otseiña: bere izerdi patsetan ezagun dau ondiño ontxe eldu dana. Ta aitona zarra? Aitona zein izango da? Mendiolako jauna berbera. A ze *bepuruak*² daukazan! A zer sorbaldak! Etzan ori gaztetan bertan bera-koa izango! Baiña urteak urte beti. Azal *arrakalatutako*³ arbola zaren antzera zimurrez beteta dago gizagaixoa, ta esku gaiñetako zan guztiak agirian ikusten jakoz.

Zer ete diñoen alkarren artean? Urreratu nadin eurakana ta laster jakin neike.

* * *

— «¿Bide onetatik ez datorrela?

— Alan esan deust, jauna.

— Ta zelan jakin dau?

— Amándo apezpikoak esan ei deutsa, Aitzbarrengo eliz atarian, Portunek eta prankotar batek eztabaidaren bat izan dabela, Portunek Elizara eioan prankotarrari barre ta ziñuren batzuk egin deutzazalako.

— Prankotarra Elizara eioalako?

¹ (*Uel, uela*: tira de cuero).

² (*Bepuru*: bekain, «ceja»).

³ (*Arrakalatu*: abrirse, rajarse, hender).

- Bai, jauna.
- Elizara eioalako esan dozu?
- Bai, jauna, alan esan ei dau apezpikoak.
- Eta alan izango da. Amando... ondo ezagututen dot neuk Amando, ta badakit gauza bat ondo jakin baga esango ez dabela. Orregaitik Ubero etxe jaun zarrak... Ondo da, Pedro Mari, artuik zer edo zer or nunbaiten, ta joan adi etxera. Ta Riktrudis ta andra Luziari esaiek an nazala biar.
- Neketan dagoz arek zeu agiri etzaralako, jauna.
- Joadi, joadi, an nazala biar gaberako.
- Berealaxe, beste zeregintxu bat egindakoa.»

* * *

Banekian nik zer bait jakingo nebala — niñoa entzunak entzun nituanean. — Baiña onara etorri nazan ezkerro, gauza guztien barriak artu artean ez dot gelditu bear. Pedro Mari Portunen billa joango zan, ta nik, ari jarraitu baiño, aitonen esanak entzutea gurago dot.

Ondo ixillik egozan eurak. Bekoki illun asarrezkoakaz, arpegiz arpegi alkarri begiratu baga, bakotxa gogamen desbardiñagaz egon balitz legez, danak gauza bat bakarra buruan eukenean.

— Zertan gara? — diño onetan Ozinbelzko Otxoak.

— Nik neure eritxia esan dot — erantzuten dau Ubero zarrak: — gizon bik muturketa bat izan dabelako, Euskalerrri guztia ez da barriro odoldu bear, euskaldunen izenari ta lurrari ikutu ez jakonean. Bien artean ondu edo *arautu*¹ daiela euren eztabaidea; baiña nigana baletor erabagi baten billa, egi zuzenaren alde erabagiko neuke, zein euskalduna ta zein prankotarra dan begiratu barrik.

— Bada nik — esaten dau, ukabil biak gora jasota, begietatik txinpartak dariozala, gizon sendokote moldakatx batek — (Diego Etxalar ei da) nik, euskaldun bat eta prankotarra burrukan ikusiko banitu², geiagoko barik jo buruan ta amaituko neuke erbesteko

¹ *Arautu*: (arreglar).

² *Banitu*: Autoreak «banituke» dakar.

gizona. Atzerritar guztiak lurpean sartu artean ez dago emen gauza onik.

— Ondo esana! ondo esana! — diño askok.

— Ubero — esaten dau astiro-astiro Mendiolako jaunak, Diego ta bere lagunuen deadarrak aintzakotzat artu barik — zure zain egon gara emen ia egun bian, Aitzbarrengo alde orretan zer gertau dan zuk ondoen esango eunskuzulakoan, ta euskaldun batzuk gure jenteari ez deusagu deitu nai izan zure eritxia entzun baga. Etorri zara, nekeztxu, ta ez bestetan oi dozun legez guztiz gogotsua: esan deuskuzu, zure ustez, muturketa bategaitik ez dala euskal mendia odoldu bear barriro; ta gaiñera, zugana iñor erabagi baten billa etorriko balitz, egi zuzenaren alde erabagiko zeunkeala. Itz egiguzu emen argi ta garbi; Aitzbarrengo eliz atarian izandako muturketa orretan zein alde erabagiko zenduke?

— Ez daukat neure gogamena zergaitik estaldu — erantzun eban Uberok ausardi andi bategaz — prankotarraren alde!

Uberok itz onek esanaz batera alderdi guztietatik deadarte gogor zarratu bat jagi zan, zutindu zan Otxoa, ta esku bat aizkora kirtenean ebala ta bestea ukabildurik, Uberori, izugarriko amorru batean, ta aotik bitsa dariola, esaten deutsa: prankotarraren alde ta neure semearen kontra Ezpeletako jauna?

— Bai, — jarraitzen dau Ezpeletakoak, bero bero eginda — zure semearen kontra ta egiaren alde. Zure semeak *iraindu*¹ dau neure Jaun Jesukristo, Jaungoiko egiatzko bakarra, ta prankotarrak atara dau Jesukristogaitik arpegia, ta neuk bere bai, emen, edonun, noiznai.

Jente guztia asi zan gora-goraka ta garraxika, mingain danak iñakin ta erasorik oker, gaizto, zorrotz ta mingarrienak esan, ta ez-tarri guztiak oi ta deadarrrik garratzenak bota zituen; etzinda egozan gudari asko euren lekuetatik jagi ta batzarreko nagusien inguruan jarri ziran; ta azkenez, Ozinbelzko txakurrak eurak, zerbaiten peril gaiztoa sosmau balebe legez, asi ziran zaunka-zaunkaka. Zer zan ango *lazka*² ta matasea! Baiña Mendiolako Arnaldo ospatsua

¹ *Iraindu*: mindu, ofendidu.

² *Lazka*: nahaste, saltsa, istilu.

jagiten da bere lekutik, urteten dau lagun guztien erdiraiño, eskuetak makillea jasoten dau, ixiltzen dira jenteak morroi aserratuak nagusiaren aurrean isiltzen diran antzera, ta bere bizar zuri luzeak dardaraka daukazala, esaten dau gogor ta garbiro:

— Euskaldunak, ezagututen nozue ni?

— Bai, jauna, — erantzuten dabe danak batera.

— Euskaldun ontzat naukazue?

— Bai, jauna. Zein obea?

— Ukatu deusat nik iñoiz Euskalerrriari nire beso ta nire odola?

— Ez, jauna, iñoiz bere ez.

— Bada neuk diñotsuet, orain batzuek asmau ta asi nai daben guda onetan, nik eta nireak ez dogula aizkora bat artuko, ez dogula arri bat jaurtiko prankotarren kontra, ta guda onetan asten danari begi txarrakaz begiratuko deusadala. Ondo esan dau Uberok, eta ez daukazue zergaitik aserratu; epaia beti egiaren alde emon bear da, ta Aitzbarrengo gertaldi orretan egia euskaldunaren kontra dago, edo garbiroago esateko, euskaldunarena da errua. Ozinbelzko jauregia ez da Kristoren siñismenekoa, beste euskal etxadi asko ez diran legez, ta jauregi orretako semeak prankotarra kristiñaua dalako iraindu dabenean, ni iraindu nau ta beste kristiñau asko iraindu gaitu, kristiñau bizi ta kristiñau il nai dogulako. Kristiñau gudarariak, egia jakin dogun ezkerro, ez daukagu emen zer egiñik: bakotxa geure etxera goazen ta Jesusen arerioakaitik erregutu daigun.

Ez eban iñok Arnoldoren kontra itz bat atera: makurtu zituen euren buruak, eta gizon guztiak asi ziran sakabanatuten ixil-ixilik, arimak atsekabez beterik eroiezala. Batzuk gudarik izango etzalako, beste batzuk, oraindik euskal mendi ederretan Kristoren etsaiak bizi ziralako.

Baiña jentea zabaldu baiño lenago Otxoak deitu eban: «Arnoldo, etzara nire jauregitik era orretan joango, gaba gaiñean dozula. Sinismenak alde batera bota daiguzan. Danok gara euskaldunak, eta alkarregaz sarri Euskalerrriaren alde jokatu dogunak. Nik eta neureak ikusiko dogu biar zer egin bear dogun; baiña bitartean Ozinbelzko atek zabalik daukazuz, ta sartuko zara bertan apaitara ta lotara. Ta ez bakarrik zu: sartu bitez gaiñera euskaldun

agintari guztiak: danentzat egongo da zer jana ta nun etziña, ta baita morroi gudarientzat bere.»

— «Mendiolako jaun leiñargia — esaten dau onetan Portunek, iñok uste barik gizonen artean sartu ta — ez naz batzar onetan egon azken artean, ta zure itzak baiño besterik ez ditut entzun. Gogortxuak izan dira, baiña alan bere, ez nozu sumindu. Zeuk nai dozula bere ez naz zugaz aserratu, ta gaiñera prankotarragaz eztabaidak arautu ta zuzentzeko neure besoa da naikoa ta geiegi.»

Geiagoko бага, gudarari guztiak zabaldu ziran ona ta orra, batera ta bestera, mar, mar, mar, entzun ta ikusi zituen gauzak bakotxak bere gisara azaldu ta erabagi naian.

Donibanetar gizon biren esana bakarrik entzun neban nik.

— Zergaitik deritzak, Manuel, ain umil ta itz bigunekoa egon dala gaur Portun, berez ain arro putza izanda?

— Ez al dakik? Urteak dira gizon ori Riktrudisen atzean dabilleta-ta...

— A! Ta, ta, ta...



III

IRU ERESI

Askotan esan oi da, ta egia anditzat daukat, lurlean izaten diran gertaera bakotxaren gaiñean bere iritxia ez daukan gizon bat bakarra ez dagola, batzuetan emon, erakutsi edo agertu gura ez badau bere. Baiña ez da izaten bakotxak bere adimeneko argi erraiñoaren indarrez asmau edo billatua. Gizonik geienak beren zentzun guztiak *ugarturik*¹ legez, ta adimendua lotan edo lizuntzen euki oi daroe, bapere lanik eragiten ez deuselako. Orregaitik euren egikizun guztietarako besteen argibidea ta esana bear izaten dabe geienetan edo beti ta iñok zirikatu ezik ez leukee oinkada bat bakarra egingo.

Zeintzuk dira, gaur dan egunean bertan, gure Euskalerrri errukarriaren samiñak gozatuteko lanean diarduen gizon *berezko*² argitsuak? Euskal izkuntza ederraren gaiñean bear dan era ta sakontasunagaz lan egiten daben gizonak zenbat dira? Iru edo lau, edo bost edo sei: edozetara bere gitxi: beste guztiok bataren edo bestearen eritxikoak gara; baiña geure aldetik ondar ale bat ez dogu ipinten...

Ozinbeltzera batu ziranetik geienak onetariko gizonak ziran: biotz andikoak, euskaldun guztien antzera indartsu ta azkarrak, mendian jaio ta azirikoen *taiuan*³.

¹ *Ugartu*: herdoildu, «enroñar».

² *Berezko*: gauzak beranez, inork eskatu barik egiten dituana.

³ (*taiu*: traza).

Iñoiz bere siñistu bagako gauzarik ez eban esango; baiña bai agintarien esana errez siñistu, ume batek gurasoarena legez. Ta bein siñistu ezkerro, olango gizonak siñismenaren alde ipinten dabe laster adimen ugartua, euren biotz andia... ta ukabil gogorra.

Gudari nagusien artean iritxi bi egozan: batzuk guda zorrotz ta ikaragarritzko bat gura eben; beste batzuk, (ez geienak, baiña onenak bai) Arnoldok itz egin eban ezkerotik, barriro gudetan asteko *mugonean*¹ egozala ez eritxoen. Lenengo esan dodan us-tekoak ziran Diego Etxalarrek ekarri zituan morrosko gazteak, eta euren guraria ez eben ukatuten. Su andi baten inguruan egozan aldra batean Etxalarren mutillok, beste erri batzuetakoakaz batera, Otxoaren upalategiko sagardauak edaten, ta olango *abagunee-tan*² oi dan legez, pizka bat birbizturik, batzuk asi ziran *eresietan*³. Orduan, Ustaritsko gizon batek deitu eban: — «non da Peru *padar*⁴ koblakaria? Datorrela ona, ta esan daigula eresi gozo bat:»

— Emen al da Peru padarra? — itandu eben besteak. Peruk, alargundu zan ezkerro, ez dau bere Txoldogaingo txabolatik lagun artera urteten, gertaldi andi batean ez bada.

— Bai, emen da, — erantzun eban Ustarits-koak.

— Datorrela bada, datorrela — deadar egin eben guztiak.

Eta esan ta egin, bere eske joan ziran norbaitzuk, eta ekarri eben laster, beste lagun batzuen artetik, gizon andi, gurgarri, urteakaz makurturiko bat. Txaloka artu eben upalategiko jentekak. — Ea zarra, ziñoen, euskal koblakari maitea, esan eiguzu gauza gozo bat. «Gazte egunetakoa» deadar egiten eban batek. — «Gudarakoa» — beste batek. «Nai dabena, nai dabena» — ziar-duen geienak.

Koblakaririk onenetakoa zan Peru. Baekian biotz samur ta bero bategaz itz egiten, etorkizunaren barriak ezagutuko balitu legez. Igarle baten antzera itz egiten baekian; iñoiz bere aotik urten-dako itz gorituak euskaldun gudarienak berotu oi zituan; baiña

¹ *Mugon*: une edo momentu agokia.

² *Abagune*: une, momentu, aldiune.

³ *Eresietan*: (kantuetan).

⁴ (*Padarra*: el solitario).

egun guztietan ez da gizona *tentun*¹ batean egoten, ta egun atan ez egoan Peru gizonen biotzak ausardituteko *tentun*, gogo edo indarrean.

Koblakaria, inguruko gizonak aora begira jarri jakozala ikusirik, gogamena bere lenagoko egunetara jasoaz, bakartadean itz egingo baleu legez, epel-epel, bigun-bigun, samurtasunik andienagaz, asi zan negarrezko soiñuan eresi au esaten:

«Neure emazte
Manu Mari,
Zeiñek ein nau ni
Koblakari?»

Zugaz bizi nintzanean
Baserri zar *txukunear*²,
Gorputz sendoa neukan, ta
Maitasuna biotzean!

Maite neban emaztea,
Zar zanean naiz gaztea.
Maite neban! Eta nintzan
Era berean maitea.

Gorputzean odolak otz,
Buru zuri ta azur zorrotz,
Gaur... bakarrik bizi naz ni
Neure errian bertan arrotz!

«Neure emazte
Manu Mari,
Zugaitik naz ni
Koblakari.»

Peruk, biotzak bear eban *antsikaitza*³ legez, bere lenengo eresi edo kantua amaitu ebanerako, entzule asko batu jakozan, ta

¹ *Tentun*: egoera.

² *Txukunear*: (garbian).

³ *Antsikaitz*: (desahogo).

norbaitzuk samurturik gelditu ziran. Gizon gazte batek ipiñi eban koblakariaren eskuetan sagardaoz beterikako olezko ontzi bat, Peruri esanaz:

— Jaizu ta edaizu, lagun zaarra, ta zeure naigabeok alde batera itxizuz. Sarrera ona egin dozu, beti legez, baiña bigunegi edo, samurregi edo, ez dakit nik zer esan bere. Ez gaikezuz geiegi oillotu, biar edo etzi iñoiz baiño gogorrangoak izan bearko dogu-ta. Ea, esaiguzu gudarako eresi bat. — Peruk, zurezko ontzia eskuetan ebalá, ezpanetara eroan barik, zeruruntz begira, danon erdian, suaren garrak eta biotzeko mugidaldeak gorri-gorri eukala, asi eban bigarren eresia:

«Neure emazte
Manu Mari,
Zugaitik naz ni
Koblakari.»

Baiña zu baizen obeto
Maite dot neure mendia,
Euskaldunen jaio-leku
Ta aitona zarren obia.

Arrotza emen ikustean
Zaunkaz oi da zakurdia,
Peril ordu estuetan
Erestun koblakaria.

Ta eresiak berotzen dau
Euskal baso gudaria,
Ta zaunkatik ez dago urrin
Zakurraren ainkadia...

Zenbat bidar urratu dot
Oiuka neure eztarria!...
Ozinbeltzek zenbat bidar
Entzun dau nire irrintzia!

Zenbat aldiz berotu dot
Euskal gizonen biotza!

Zenbat bidar ikusi dot
Nire ondoren eriotza!

Zenbat aldiz odoldu dot,
Neure aizkora zorrotza!
Zenbat aldiz amaitu dot
Bizar gorridun arrotza!

Zenbat bidar ikusi dot
Gure mutil menditarra,
Besoetan ipiñiaz
Ekaitz guztien indarra!

Begietan tximistea,
Ta infernuko su ta garra...
Ta aren aurretik igesi
Mendiz beera prankotarra.

Ori, ori, koblakaria — ziñoen Otxoaren mendekoak eta Portunen adiskideak —, ainka ta zaunka, ikaratu ta zatitu ta jan egin bear ditugu prankotarrak osera bere. Aurrera, Peru! Aurrera, zarr!

Gaur naz zarra, ta atzo gazte!
Zein arin doian guztia!
Bitartean *idoro*¹ dot
Urtien erakutsia.

Gaur badakit ez dala ondo
Zentzun baga zaunk eitea
Ta bakean doianari
Ortz-azurrak ezartea.

Geldi orain, menditarrak,
Bakotxa geure lekuan:
Elduko da ereti ona,
Ta aupa mutillak orduan!»

¹ *Idoro*: aurkitu, topau.

«Ori, ori!» «Ederto!» «Txarto!» «Kanpora agurea!» «Aurrera, Peru!» Jangoikoak daki zer zarata ta nasteak atera zituen Peruren jiran, azkenengo eresia amaitu ebanean. Bakotzak bere nagusiak eukan iritxiaren alde egiten eban oi. Milla bat *keiña*¹, *betzigo*² ta irain alkarri esaten nekatu ziranean, oraindik askoren orruak entzuten ziran: «Aurrera, aurrera, Peru!» — Padarrak, oso beregan-durik, eta bapere aserre baga, beti zerura begira, jarraitu eban erestun:

«Neure emazte
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
Koblakari.»

Illargi ta eguzki eder,
Zeru goietako izarrak;
Baso, *txara*³, zugaztiak;
Be-aldeetako ibarrak.

Mendi tantai, errekondo,
Ibai zabal ta itxasoak,
Gizonentzat sortu ditu
Gure Egille Jaungoikoak.

Beragaitik bizi naz ni,
Beragaitik gara euskaldun...
Gauza guztien gaiñetik
Euskaldunok maite daigun.

Maite dot nik sorteria!
Maite neban emaztea!
Baiña bien gain gaiñetik
Maite dot neure Egillea!

¹ *Keiña*: (amenaza).

² *Betzigo*: (injuria) (*Lar.*)

³ *Txara*: zuhaitz mota bat, «jara».

«Neure emazte
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
Koblakari.»

Peruk bere eresiak amaitu zituan, ta eskuetan eukan ontzi sagardaoz betea lurrean itxi ta aldendu zan gizakumen artetik. Etziran gizonak berealakoan sakabanatu. Andik eta ordu betera entzuten ziran ondiño alkarri esaten eutsezan sapokeriak, urriñeko aldetik, bata batera ta bestea bestera eioazala:

— Uutik, sazkel ipurdi arraioori!

— I, badakit nik ze aizan i, ganbelua galanta.

— Baita i astaputz zantarra.

Baiña etzan ukabilkadarik izan, ta esanak aizeak eroan zituan laster, mendi egaletako oiarzunetan atsedean mailla batzuk eginda gero.

Gaberdi alderako dana egoan ixil-ixilik. Goi aldean zeru garbi, urdin, odei bagea, izarrezko begiakaz lurrera begira; ta beean barriz, errekatkoa menditik berako arkaitz artean zolitasun ta zarta andiakaz, ta Ozinbeltz ondoko landa lau luzean geldigeldi, iñor esnatu gura ez baleu legez; ariztiak iguin ta *zabunik*¹ bagea beso orritsuak zerurontz jasoaz; ta erretxiñol bat makal gaiñean ereslari. Gizon guztiak lotan egozan, gau ederraren apainduriak ikusteko adore barik.

¹ (*Iguiña, zabuna*: movimiento, bamboleo).



IV

PORTUN BARRUTIK

Baiña ez egozan danak lotan orraitino. Ozinbeltzko jauregi bazter batean, Otxoaren seme nagusi Portun bere oe zabalean bira-biraka begiak ezin itxirik egoan...

Gauza asko igaro jakozan egun atan. Goizean — ziñoan bere artean — itxaropenez beterik egon naz, neure amorro guztiak aseko nitualakoan, prankotarra, ta batez bere neugaz burrukan egin ebanari, lurra jan eraginda. Lurra jan bakarrik? Ez, gauza utsa da ori. Basea ta zikiña iruntsi eragin, makilka *zuzitu*¹, nire arpegian ipiñi eban eskua aizkorakada baten ebagi, ostikoagaz aoan jo, zapal-zapal egin, esteak atera, birrinduta itxi; obiratu bagea, bere gorputz odolduaren zatiak, *erroi*², *buzuka*³ ta arranoak jan eiezan. Baiña ez, il baiño lenago, azkenengo orduan, begiak malkoz beterik eta erruki eske eukazanean esan bagea: «ez ekian ik, gizagaixorrek, zeindegaz ebillan: jakin eik ontxe, iñoren laguntasun barik il-ten agoala, Portunegaz ezin leikeala euki jolas, *txokorria*⁴ ta arrotasunik, eta bere eskuetatik ez auala aterako eure Jaun Jesu-kristo orrek.» O! Zer poza eukiko eban orduan Otxoaren seme zarenak! Zelango ikara ta bildurragaz begiratuko eutsen, egun ata-

¹ *Zuzitu*: apurtu, hausi birrindu.

² *Erroi*: belea, «cuervo».

³ *Buzoka, buzuka*: sai, putre, «buitre».

⁴ *Txokorria*: «enredo, complicación».

tik aurrera, prankotar guztiak! Baiña arratsaldean bira jakozan bere itxaropenak, eta bere asmo ta atsegin danak iges egin eutsen. Uberok eukazan erruak. Agure petral *malmutza*¹! Etxakon ba buruan sartu euskaldunak guda barrirako mugonean ez egozala? Mugona emongo neuskio nik ari. Guragoko neuke jo bere buru murri soillean, ta amaituko balebe Euskalerriko arerioak. Gaur naiago biar baiño. Ta gero zarra dala ta, argitsua dala ta, euskaldun bikaiña dala ta, danak berari aora begira, zer esango dabena zain; ta Etxalarrek esan dabena, ta nire aitak ziñoana... arraio arraioa! Kristinauak esaten dabe gero, kristinauak. Eurak ei dira onak eta zintzoak eta lagun *geidear*² Jaungoikoaren izenean gura deutsenak. Tximista batek erreko al ditu ba danak! Danak gero, kristinauen asterrenik gure mendietan gelditu ez dedin. Jaungoikoaren izenean guztiai gura deutsela. Gura izatea dok ori. Eurak izan balebe burruka bat nik izan dodan lakoa...

Ta gaur illuntzean Arnoldok esan dabena? Milla *aiñaniñuen*³ agurea! Bere eskuetan egoan ba dana. Berak esan baleu «gudarra!» euskaldun guztiak gudara joango ziran; baiña berak ezetz esan dabelako, ezetz beste guztiak bere. Jakiña da emen. Izen andikoa izan da beti ta... Neurea dala errua berak! Eta zergaitik? Nik prankotarra iraindu nebalako? Ta zer? Zer da emen prankotarra, atzo goizean agerturiko arrotz lapurra baizen besterik? Eta zeñiek ez dauka lapur bat irainduteko eskubidea? Kristoren sinismenekoak ez garala! Sinismen orrek e, ez dakit gaiñezka eragingo ez ete deustan. Orain artean ondo bizi izan gara fede zarreko gizonok beste euskaldunakaz; baiña emendik aurrerantzean...

Emendik aurrerantzean bere bai. Bearko! Riktrudisegaz adiskide izango banaz. Ez daukat beste biderik. Baiña, madari mada-riena! Zelan otu jako gaur ezta baiño gozoago dan neskatilla lirain orri bere morroi bat niri bialtzea? Ezin sinistu bere leiteke. Egiñalak egin ditut bada nik, ezagutu nebanetik orain artean, emakume orren biotza irabazteko; baiña egundo ez nau aintzako-

¹ *Malmutz*: azeri, maltzur.

² (*Geidea*: prójimo).

³ *Aiñaniñu*: deabru, demonino.

tzat artu. Aintzakotzat artu ez! Ez nik eritxi. Al Emakumeak *gain-txuriskak*¹ dituzu, ta askotan, kanpotik ezer erakutsi ez arren, barruan erabilten dabe gogoa ta maitetasuna. Oraingoan beintzat gauzeak berak dauka itxurea. Uste izan dau Riktrudisek gudan asi bear dogula; gogoratu jako bere Aita orretara jarrita badago, iñok ez dabela atzeratuko; ni nabillela guda billa ta neure eskuetan egoala gudarik ez izatea esan deutse, ta zer egingo eban orduan? Egia da, gauzak ondo ikusi ezkerro emen dagoana da, Mendiola-ko alabatxoak bere aitagaitik begiratuten dabela; baiña zeñien bi-dez? nire izena zegaitik gogoratu jako?... Gogoan ete nauka ba beti, edo sarri, edo noizean bein! Zergaitik ez? Emen bakartadean, iñok entzuten ez deustala, esan neike: ni ez naz *zatarra*², ederra nazala bere amaika bidar esan deuste; Riktrudisek ikusi nau (bai, ikusi nau, begiratu ez deust egin baiña), indartsua nazala badaki; etxe-jauntza onean jaiorikoa bere bai... zer gura dau geiago? zergaitik maitetuko ez nau? — Maitetuko ete nau bada! Au, gozotatun guztien iturburu amaibagakoa izango litzateke niretzat. Irudituteagaz bakarrik pozaren-pozez zoratu bear jat.

Riktrudis zelan ezagutu neban gomutau bear dot. Illunabar inguru batean zan, orain urte bi. Egunsentirako lagun batzuk eizera urten genduan, egun guztian ortik eta ona ibilli giñan, ta nekatu ez bada besterik ez genduan egin. Txakurrak billatu ebazan oiñatz, sen edo arrastoak urrintxora eroan genduzan³. Etxeruntz asteko gengozala, asi jakun bat-batera trumoia, euria, txingorra ta arria. Baiña zelangoa? Bazan a egualdia! Ez dot iñoiz alangorik ikusi. Eguna garaia baiño lenago illundu zan; baiña ikaragarritzko tximistak argi egiten euskuen noizean bein, joten zituen zugatzak erdibituaz. Goiak bota zituan bota alak, errekek arrotu ziran; gu, goseak batetik, eta bestetik burutik beatzetara maillatuta gengozan, ta erabagi genduan, tximisteak argi egitean an urretxoan ikusten zan erri batera joatea. — Badakit zein erri dan — lagun batek esan euskun — ortxe bizi da Mendiola-ko Arnoldo, ta bere etxean on-

¹ *Gaintxuriska*: itxurati, «hipócrita».

² *Zatar*: itsusi, motz.

³ Genduzan: «ginduzan» (harek-gu) zentzuaz.

doen artuak izango gara. Esan ta egin, buruko tximetatik bera ura geriagula¹, ta abarka mantarretan ez dakit zenbatbana lokatzegaz, Mendiolako sukalde zabalean sartu giñan. Orduantxe ezagutu neban lenengo Riktrudis. Amesetan iruditu geinkean gauzarik zoragarrienaren antzera agertu zan. Axe da *sarrakioa*² sartu eustana! Bildurtu egin nintzan, beste munduetako gauza bat ikusi baneu legez. Bai, edertasunak badaroa beragaz gizonak konkortuteko indar ezkutukoren bat. Ni beiñik bein Riktrudisen jazkera, esakera, ibillera ta begiradeak konkortuta itxi nituan³. Dana zan ain... ain... ez dakit nik zelan esan bere, barru-barruan gozotasun andi bat emoten ebana. Ez jan, ez edan, ez berotu, ez iñori jaramonik egin; kokolotuta, gatzbagnetuta, izututa, lotsatuta; Riktrudiseri begiratzea baiño besterik ez neban egiten. Gau guztian itz bi era onean ez nituan esan. Zer igaroten jatan danak igarri eusten. Ez gaur beste jakin izan baneu, mila...! Ez dot geiago, orduan baizen ondo, neure aurrean billatu, amaika bidar Mendiolako aldean ibilli naz baiña. Beti Arnoldo, beti andre Luzia, beti arpegi illuna, beti txoria gordeta, ta azkenean atek itxi. Ta ori neuri bakarrik, bada edo noiz dagoz Mendiolako atek zabalik, edozeiñek arkituten dau etxe atan abegi ona: erbestekoak, eta euskaldunak ez diranak bere bai. Kristiñauak dirala ta ez dirala... Badabil or kristiñauon elizetako nagusi bat, Amando edo dana-dalakoa... Uum! Igarten badot nik i... Begi bietaraiño bete-bete eginda nago gero...

Gau atan orratziño asko egin neikean neure alde, neure gain egon banintz. Kristiñauak egiten daben *Aitearen* edo kurutze ori bere ez neban egin maia bedeinkatutean. Ez nekian ta! Orduan igarri eusten ta itandu bere bai zein etxetakoa nintzan. Baiña, zer dauka zer ikusirik siñiste bat edo beste eukiteak gizonak geiago edo gitxiago balio izateko? Gaiñera, ez dot nik sinisten ez dodan gauzarik esan gura, ta ez dot esango bere.

Ta zertarako? Ibilli ta ibilli gauzak eskura badatoz. Zeiñek esango eustan niri atzo goizean, gizonen usteak ezin orapillotuta

¹ Geriagula: «zeriagula» zentzuaz. *Erion* aditza.

² *Sarrakio*: ikara, bildur.

³ Nituan: «ninduan» (harek-ni) zentzuaz.

nenbillenean, Riktrudisen gogoan nengoala, ta berak biralduko eustala morroia, beragaitik zerbait egin nai badot esatera? Zerbait egin! Bai, Riktrudis maitea, Riktrudis gurgaria, bai: nai dozun guztia egingo dot zugaitik: auspeztuko natxatzu, umilduko natxatzu ta... Ez da gero edozelangoa bart arratsean zure Aitak emon eustan zartadea. Ta alan bere ez nintzan aserratu... kanpotik, barruan barrukoak izan arren.

Au bere badok ba ipuiña: neuk gura dot gudea ta neuk ez dot gura. Ta ez da izango gudarik, danentzako beintzat. Ezin bada, Riktrudisek nai izan ezik! Baiña bai batzuentzat. Nigaz aurrez aurre jarri zan gizontxu orrek, ni bizi nazan artean izango dau arerioa ta gudarako bidea. Ikusiko dogu alkar. Bera be, egia esateko, ez da motel itxurakoa; baiña, tximistak ez badituk! ikusiko dogu zeñek lenago lurpera joan bear daben. Goitik eta betik, aurretik eta atzetik, gabaz ta egunaz, nire geziaren bildur izan leitek. Ta biotzera joango da gero, biotzera zuzen-zuzen. Aupa! Zer poza nirea gorputz illak oso-osorik lurra joten dabenean, bere burua arkaizten baten kontra zatituten jakola! Bene-benetan dala bai mendeka osoa Jangoikoen atsegintasuna.

Prankotarrakaz daukadazan eztabaidak erabagiteko neu nazala naikoa esan deusat Arnoldori. Baita izan bere. Baiña lagunik bear baneu, erbestetarren kontra zerbait egin bear dan guztian idoroko dot Diego Etxalar neure alde. Ta lagunak edozetarako bear izaten dira.

Riktrudisen barriak jakiteko ostera, or daukat Lope Nagi. A ze morroitxo Mendiolako Jauregian daukazuen ori! Neu nagusi izaten banaz a...

* * *

Onetan ta orretan eten jakozan Portuni, goizalderuntz, bere gogamen guztiak, gelditu zan bertan bera aoa zabalik, itxi zituan begiak, eta jarri zan zurrungaka, zurrungaka, etxe atan lotan egozan beste batzuei soiñuan laguntzen, baiña irudimen ta adiñak ez euken lotarako gurarik, eta gorputza zabal zabal ezeren ardura barrik egoan bitartean, asi ziran euren aldetik lengo gogamenakaz aria lotu naian. Portun amesetan egoan. Mendiolako nagusi bera

zala irudituten jakon: il zirala, ez ekian noiz ta zelan, andre Luzia ta Arnoldo. Riktrudis etxeko andre on on bat zan. Aitorren egunetako bizitzea egiten eben. Abere asko eukezan: artalde andiak. A, ze artaldeak! Zelaiak bete-betean, ta mendi egaletan gora ta gora, gaillurretaraiño, bata besteari bultzaka ta *bee*-ka danak. *Bee* ta *bee* ta *bee*: geiegia zan. Ta esnea? Zenbat esne! Artzaiñak baekarren esnea, lurrezko ta burdiñazko ontzietan, gaiñezka *zipli-zapla* bidean boteaz. Bera be, Portun, esnez bete eben, bekokiraiño. Bai, bekokia bustita eukan, esnez... Esnez? Odola zan ta! Odola, bai, prankotarrak emondako zartadeak atera eutsana. Prankotarrak! Baiña zeintzuk ziran prankotarrak? Ezin asmau! An; urrun, urrun, zer edo zer... Edozetara bere antxiñako gauzaren bat, egokida gitxikoa... Riktrudis... Aitor... mendia... laiñoa... gizonak burruka... Zer gizon gero? Ardiak ziran ta. Ez euken bear aiña lekuri, asko ziran, guztiz asko: batzuk itota egozan, ta, bera, Portun, daren erdian joteko zorian egoan, ta ito bear eban, ito bear eban!...

Ozinbelzko seme nagusia larri-larri esnatu zan, izerdi patsetan, ta estalkiak idunetik biran estu-estu zituala; egon zan pizka batean ganorabaga, etorri zan bere konortera laster, ta jagi zan be-reala.

Leio zulora gaztaiña andien itxurako begiakaz urten eban, mendirako bide ziorretik gora gizon-soka luze bat ikusi eban. Ozinbeltzetik euren etxeetara eioazan azkenenko gudariak ziran.

— Ez da ardura — esan eban Portunek — ez da ardura; etorriko jat niri ondiño garai obea.



V

GIZON ARROTZA

Esan ditudan gertaerak igaro ziranetik urrengo egunean, Aitz barrengo eliz ondoan Portunegaz aserratu zan gizona, Amando apezpikoagaz izketan egoan, antxiñetako lagun bat legez. Zein zan baiña gizon ori? Adalbaldo dukea, done Jertrudisen loba ona, prankotarren erregetxeko semea, Sijeberto ta Ernulfo kondeen ta Alando Remis-ko *Lenapezpikoaren*¹ anaia². Gizon jakintsua zan Adalbaldo au, guztiz aberatsa, Jesukristoren lege zalea ta *onoida*-de³ andiakaz apaindua.

— Zu ziñan beraz — zirautsan Amandok, irribarre *amutsua*-gaz⁴, euren izkuntzan — zu ziñan Aitzbarrengo burrukalaria. Ez nekian nik, Adalbaldo, ez nekian.

— Burrukalaria *erazkiro*⁵ ez, jauna.

¹ (*Lenapezpikoa*: Arzobispo) (*Laramendi*.)

² (El duque Adalbaldo fue nieto de Santa Gertrudis, por ser su madre hija de dicha insigne abadesa. Pertenecía a la real familia de los Francos y tuvo por hermanos a Sijeberto, conde, marido de Santa Berta; a Erquemaldo, mayordomo de palacio y patricio de Clodoveo, el segundo en la corte después del Rey; a Ernulfo, conde también, y Alando arzobispo de Reims. (*Historia general del Señorío de Bizcaya*) por el presbítero doctor D. Estanislao Jaime de Labayru y Goicoechea. Bilbao 1895. Lenengo liburu ta 173-garrengo orrialdean.)

³ (*Onoidade*: virtud).

⁴ *Amutsu*: «amoltsu» edo «amultsu» esateko: gozo, maitekor, txeratsu.

⁵ *Erazkiro*: hain zuzen, zehazki.

— Ez, badakit, ori olgetako esatea baiño ez da. Jatorri onekoa zara, ta zuk, zeurez, burrukarako biderik ez dozu emongo; baiña iñor aurrean jarten bajatzu ta zeure sinisteari ikututen ba-deutse...

— Bai, jauna, bada; orixe da ni geien geien berotu nituana¹.

— Zelan izan zan ipuin ori?

— Zelan izango zan? Erregek bialdu nau zeregintxo bategaz Euskalerriko marra edo mugetaraiño, ta orain, Jaungoikoari esker-rak, baketan gagozalako, ta bake eretian euskaldunak gizon onak dirala dakidalako, zeuri agur bat egitea otu jatan, emengo Elizatoxoak bide batez ikusiaz. Asmo onetan, baninoian lengo batean Aitzbarrengo Elizara, arrentxo bat egin ondorean zeu nun ete zenbiltzan ango Eliz gizonari itauntzeko usteagaz. Eliza aurreko enparantza edo zelai batean gizon talde andi bat billatu neban indar neurketan burdin luze bat jaurtika, batak orain ta besteak gero, ta danen artetik igaro nintzan egun onak emonez ta guztiak erantzun eusten; baiña norbaitek itandu ebanean: «zein da zaldun ori?», beste batek erantzun eban, neuk garbiro entzuten nebala: «ez dozu ezagututen? prankotar lapur bat.» Ez neban jaramonik egin, zerren bat batera gogoratu jatazan gutarrak euskaldunai egindako lur ostute ta beste dongakeriak, eta alderen batetik egia ziñoala neritxon.

Baiña onetan entzun neban lapurra esan eustanak berak ziarduala esaten: «Eta Elizara doia gero bera, Elizara astegun buru zurian. Esaten dot bada nik guzurtiak dirala prankotarrak eta guzurra euren sinistea.» Orduan biurto nintxakon, ta bapere aserre barik eta euskaldun fede gaiztokoaren biotza Jesusentzat irabazteko gogoagaz, erantzun neutsan: — «Gizona, begiratuizu zer esaten dozun: nire sinistea ta zuen artean askok daukazuena, ez da guzurrezkoa: Jesukristo da Jaungoiko egiazko bakarra...» Ez eustan itxi neure esana amaituten. Esku artean eukan burdin makillea gora jasota, etorri jatan aurreko aldera deadarka: «Zer begiratuizu gero? Zein zara zu emen niri esondeak² emoteko? Zure

¹ Nituana: «ninduana» zentzuaz.

² Esonde: onu, aholku, kontseilu. (Lar.)

siñistea ta zure gisakoena guzurra dala diñotsut, guzurra Jesukristo ta guzurtokiak zuen Elizak.» Asi giñan ez bai, ezbaian, berotu giñan, ta... baiña etzan ezer izan. Eldu euskuen batari ta besteari ta orretan amaitu zan dana.

— Baiña jo egin ei zenduan bada?

— Jo edo, ez dakit bada nik, berotasun atan...

— Ta aztu jatzu? Ez daukazu gorrotorik?

— Aztu diñozu? Berealaxe, jauna, berealaxe. Naibage bat badaukat nik ordutik ona! Bear bada, bigunago itz egin baneutsa nik gizon ari, bere biotza Jaungoikoarentzat irabaziko neban edo ipiñiko neban irabazteko bidean. Ta orain, neure erruz, neure gorrotoan egongo da, ta neure Jaungoikoaren gorrotoan bere bai. Egunero eskatzen deusat Aita zerukoari, orduko nire arrotasuna parkatu daidala ta ikutu daiola Portun orri bere biotzean.

— Ondo da ori, adiskidea, ondo da. Lan andiak daukaguz emen Jesusen ikastegiko semeok, eta Euskalerra guztia Jaunaren siñismenera ekarri artean, lan egin bear dogu gogotik. Orretara etorri naz ni ona, Adalbaldo, ta jakin nai neuke zuk...

Aidean gelditu jakon Amandori miña, esatera eioanari azkenik emon бага. Atari aldean norbait oleska¹ egoan. Jagi zan, «aurrera dana dalakoa», esanaz, ta *tipi-tapa*, *tipi-tapa* igon zituen betik gorako maillak, eta apezpikoa ta bere laguna egozan toki-raiño sartu ziran Arnoldo ta bere alaba Riktrudis.

— Ordu onean etorriak izan zaitzela — esan eutsen Amandok —, ordu onean neure adiskidetxoak.

— Baiña, jauna, — erantzun eban Arnoldok — kanpotarragaz zagoz zeu ta beste ordu baten etorriko gara. *rejelica*

— Ez, ez, Arnoldo — dirautsa apezpikoak — emen dagoan kanpotarra zeuek ezagutu bear dozuena da, ta jarri zaitzeze aulki orretan.

Ezarri ziran, an egoan gizon arrotzari zearka edo albokera begira, begiakaz gero Amandori zein edo nongoa zan itanduten eutsela. Beste onenbeste egin eban Adalaldok. Ez eben itxaron bear andirik izan danak bere.

¹ Oleska: agurka, deiez.

— Au da — asi zan esaten Amando, ezkerreko eskua erbestekoaganontz jasota — Adalbaldo dukea, Aitzbarrenen Portunegaz aserratu zan prankotarra.

— Au? — erantzun eben Arnoldok eta Riktrudisek, biak batera, begiak Adalbaldoganontz botaten ebezala.

— Auxe berau. Aspaldietako neure adiskidea da, kristiñau bene-benetakoa. Neu ikustera etorri da, oindiño ordu bete ez dala, ta oraintxe neiokon¹ esaten Euskalerrian zetan nabillen, ta zelan gura neukean biotz oneko gizon guztien laguntasuna Jesusen artaldera etxadi guztiak ekarteko. — Nai neuke jakin, duke jauna — jarraitu eban Adalbaldori arpegi alaiagaz begira — zuk lagunduko deustazun edo ez.

— Jauna, zer esanik ez dago; nik gauza orretan neure indar guztiakaz lagunduko deustut — esan eban dukeak.

Eta au erantzutean Riktrudiseri begira egoan, eta Riktrudisek erakutsi eutsan begiakaz bere oniritzia. Arnoldo berutz begira egoan, bere gogarteakaz gogaketan.

— Baiña beste ipuin bat dago emen. Orretarako bakea bear dogu, luzarorako bakea.

— Nire aldetik, jauna, betikoa izango da. Ez naz ni gudazalea: — ta au barriro Riktrudiseri begira egoala esaten eban — guda batek bere atzetik dakar, laguntzailletzat legez, nekeak, go-seak, aserreak, gorrotoak, *kurrukak*², negarrak eta odol errekek; eta nik, alkarrenganaiko maitetasuna, zer jana, jakinbidea ta biotz barruko atsegintasuna gura nituke erri guztietan.

Riktrudisek, bere burua pizka bat bi bidar makurtuaz, erakutsi eutsan bere baimena arrotzari. Ta arrotzak, baimen orrek indartu baleu legez, jarraitu eban bereala:

— Nire eskuetan balego, gure artean bakea betikoa izan dedin euskaldunai emongo neuskioez indarrean *malmuzkau*³ ta kendu jakoezan lurrak; itxiko neuskioe buztarri baga, beren legez ta ekanduakaz gura daben eran bizi daitezen, ta euren adiskide

¹ Neiokon: «nengokon» zentzuaz, behar bada.

² *Kurruka*: amorr, gorroto, tirria.

³ *Malmuzkau*: berbea jan, engainatu.

egingo nitzateke, mundu guztiaren adiskide egingo nitzatekean gisara.

Arnoldok jaso eban bere burua, ta erbestekoari begiratu eutsan, esaten ebana *zindoa*¹ ete zan edo ez ezagutu naian. Adalbaldok igarri eutsan euskaldunari zer jakin gura eban, ta agertu zitan geiago ta obeto bere barruko bidadi edo sentierak era onetan:

— Ez dot nik uste errien zoriona andi izatetik datorrenik, eta bai onak izatetik. Egin daiguzan onak, eta zorionekoak izango dira. Sortu daigun biotzetan bata bestean maitetasuna, ta makillak, arriak, aizkorak eta geziak *berekauz*² eskuetatik jausiko jakoez gizon guztiai. Danok dakigu gaiztokeri guztien jatorria non dagon: Jesusen lege bigun gozoagaz aztutean, zeruari gure betiko zoriontasun guztien gordelekutzat ez begiratzean. Gizon danak gura dabe euren biotzak eskatzen deustan gozamina, ta zeruagaz aztuta bizi badira, lurrari euren bizileku bakarra legez begiratuten badeutse, Jaungoikoaren aginduakaz aztuta badagoz, ez dabe beste enparauen ardurarik eukiko; bakotxak bere gozotasunen gose-egarrria bete naiko dau, al daben bidetik, beste anai, lagun ta auzokoai beaztun mingotsak irunsi eragiten deustezan edo ez begiratu barik. «Ibilli nadin neu ondo, — esango dabe euren kolkorako — bete daidala neuk beste guztiak baiño andiago izateko daukadan gogo beroa, ta nire auziko anaiak ondumuz urtu daitezela nire eskubide ta *alizateak*³ ikusirik. Emon daioedan nik neure griña guztiai eurak deadarka eskatzen deusten betekadea, ta ondatu beitez, gura badabe, nire *geide*⁴ edo lagun urkoak.» Orregaitik saiatu bear dogu Jaungoikoaren bildur donea erakusten, zeru goietan itxaroten daukagun ondo izatea gogoratuten, ta norberaganako daukagun maitetasun oker ta geiegizkoa gizonen biotzetatik *tutarrez*⁵ kentzen. Olan izango dira errien agintariak errien guraso; mendekoak, seme on maitaleak; eta kristandade guztia etxadi zabal maitagarri bat.

¹ *Zindo*: zintzo, benetako.

² *Berekauz*: berekabuz, berez berez.

³ *Alizate*: ahal izate, ahalmen.

⁴ (*Geide*: prójimo).

⁵ *Tutarrez*: suztar suztarretik, eperdi eperditik.

Adalbaldok jardunean ziarduan bitartean, Riktrudis miraritu-
ta legez egoan, Amando pozarren, ta Mendiolako jauna zerbait
esan naian egoera on bat billatu eziñik. Prankotarra isildu zanean,
apezpikoak esan eutsan:

—Ederto itz egin dozu, Adalbaldo; neuk bere geiagorik ez
neban esango.

Ta Arnoldok:

— Bai, ederto esana dago; baiña parkatu bear deustazu,
adiskidea, gogoratuten badeutsut zure erritarrak ez dabela olango
erakutsirik burutan artu, nire gomutan beintzat.

— Egia diñozu, euskaldun zarra, ta neuk daukat iñok baiño
naibage andiagoa, prankotarra nazan aldetik, nire erritar agintari
asko andi izan naiak itsutu ditualako. Ez dot gura eurak gaitik ar-
pegirik atera, ta autortu bearrean nago, aspalditxoan eurak izan
dirala bakearen areriorik gogorrenak emen inguruetan. Euskaldu-
nak etziran asiko gure kontra gutarrak bakean itxi baleutse euren
mendietan.

— Ikusten dot, arrotza, bakotxari berea emoten dakizula, ta
mingarria da zure erritar guztiak zure eritxikoak ez izatea. Euskal-
dunari bakean izten bajako bere basetxe ta txabolatxoetan, poz-
pozik bizi da bere lur, soro, baso, bei, ardi, aunts ta beorrai begira.
Ez jako iñoiz bururatuten beste lur bat guraritu bear dabela, edo
beste erri batean obeto biziko litzatekeala, bada beretzat euskal-
dun lurra baiño lur oberik ez dago. Adiskide onak dituzu, ta edo-
zein estutasunetan il arteraiño lagunduko leuskizue euskaldunok.
Ez dira gudazaleak, eta, alan bere, gudetan ikusi zeinkez Anibalta-
rrakaz, aurren aurrenengo beti, edurrez estalduriko mendi *Apeni-
nos* ta *Alpes* deritxenetatik zear, mundu guztiari azurretaraiño
ikarea sartuaz. Ez deutse, eurentzat, arra bat lur ostuko iñori;
baiña Euskalerrriak daukazan mugetatik barrura badator iñor *ze-
matuaz*¹ edo zerbait kentzeko asmoetan, naiz ta izan munduaren
jaubea, *jarkiko*² jakoz aurrez aurre euskaldun guztiak, aitorren
seme, morroi ta nagusi, Ama ta alaba; leoi biurtuko dira danak,

¹ *Zematuaz*: (amenazando).

² *Jarki*: eutsi, aurre emon, aurka egin.

eta euren jaiotetxean arrotz etsaiaren oiña sartu baiño lenago, ba-
nan banan atari ondoan illotzik geldituko dira, arrotzaren kontra
esatera joiazan azkenengo apaldiz edo biraoa ortz estutuen ar-
tean geldituten jakoea. Olangoak dira euskaldunak; esan daidan
obeto, olangoak gara: onean onak, txarrean okerrenak; geure *go-
gakidan*¹, abere batzuen gisara, edo odolean, biotzean edo ari-
man edo nunbaiten *leiñargitasun*² egiazkoa darabilgunak. (Ez dot
esaten panparroikeriz, egia dalako baiño, ta egia bein bere ez dot
arrokerizat artu). Olangoak gara: gizonari laguntasuna emotean
gozamina billatu oi daroagunak, eta bide batez edo era berean,
erbestekoren batzuk gaiztakeriren bat egin edo biotza zelanbait
zauritu badeuskue, atzerritarrentzat Ernioko atxak baiño gogorra-
goko gizonak. Besterik aitatu bearrik ez daukat: emen nago neu,
neure semeen eriotza negargarria igaroko urteetan aztu ezin do-
dana. Jesusen sinismenekoa nazanari eskerrak: sinismen orrek
ipinten dau nire biotzean ezti pizka bat, gero neure semeakaz bat
egingo nazala erakutsirik; sinismen orrek agintzen deust neure
arerioa maitetuteko, ta maitetuten dot, ustez; baiña beti daukat
min neure biotzaren erdi-erdian. Ta nik ondo ikasten ez dodan
gauzea auxe da: ez daukat gorrotorik onentzat edo orrentzat, esa-
teko, ta alan ta guztiz bere prankotarrakaz gudetan ibilteko amo-
rratzen egon izan naz neure bizitza guztian.

Arnoldoren jarduna, lenengo arreta andiagaz aitu eben bera-
gaz egozanak; gerora, errukiz beterik. Amaitu ebanean, dirautsa
dukeak:

— Biotz andikoa zara, euskalduna, ta Euskalerrria erri andi
bat. Bene-benetan da mingarria zuek ondo ezagutuak ez izatea.

Ta Amandok, berak gogamen guztiak eukazan gauzara ber-
baldia eroanaz, itandu eban:

— Baiña ez dozue orain prankotarren kontra gudarik asiko?
Zetan gelditu ziñan Ozinbeltzen?

— Orixe esatera etorri natxatzu, jauna. Neure alabatxu onek
bialdu eustan mandatari bat, zeure izenean, Aitzbarrenen zer jazo

¹ *Gogakida*: «simpatía» (Lar.)

² *Leiñargi*: aitonen seme, «noble».

zan esaten eustala; ta jakin nebaneko ta Uberoren eritxi ona jarraituaz, prankotarra bakean iztea erabagi genduan.

— Jaungoikoak bedeinkatu zaizala, Arnaldo.

— Ta ez bakarrik ori. Norbait, Portunek belarriak berotuta, bide txarretatik aurrera asi ez zeitean, batzarrean batu ziranez esan neutsen, ez nebala nik, oraingoan, prankotarren kontra arri bat jaurtiko, ta gudabarrian asten ziran euskaldunei begi txarrakaz begiratuko neutsela, zerren Portunek, kristinau bizi ta il nai genduan guztiok iraindu genduzan¹ Aitzbarrenen. *nos enjuicio*

— Jaun zerukoak saritu zaizala.

— Arnaldo zaldun leiñargia — esan eutsan Adalbaldok — itxi bear deustazu neure besoetan estutu zaidazan. *gute abraze*

— Prankotarren besoetan ez naz egundo egon, baiña... etzazu zu besteak langoa: zulango gizonakaz adiskide izan nai dot: erdu ona.

Jagi ziran biak besoak zabalik, eta bata bestearen kontra estutu eben alkar, Amando ta Riktrudis pozezko malkoak gordekeri egozan bitartean! *Ze laurka*² ederra! Gizon bizar zuri ainbeste urtekoa, arrazarik zarrenetakoaren *aurkeztaria*³, bere egun luzeak prankotarrakaz gudetan igaro zituana, prankotarrak ildako mutil eder maite biren gurasoa, prankotar gazte baten besoetan, biak siñismen batekoak eta itxaropen batekoak ziralako!

Ta orain gogoratuten jat, esan barik nengoala, Adalbaldo gizon gazte ta guztizko ederra zala. Ogetamarren bat urte inguru eukiko zituan; andia zan, baiña ez lodia; ardatza baiño lerdengoa; ule gorritzka ta begi urdin argi ta bizien jaubea; ta *eute*⁴ bigun ondo egiñakaz jantzia egoan.

— O! — ziñoan Amandok — Jangoikoak ekarri zaitue gaur alkar ikusi ta ezagutu daizuen. Biok izango zare nire laguntzailleak emendik aurrerantzean, gizon guztiak bear daben bata-besteaganako maitetasuna erakusten. Urteetan nabil arimen billa, alderdi guztietan gomutaratuaz Kristoren esana: *hoc est praeceptum*

¹ Genduzan: «ginduzan» (harek-gu) zentzuaz.

² (Laurka: cuadro).

³ Aurkeztari: (representante).

⁴ (Eute: tela).

*meum ut diligatis invicem*¹: au da nire esonde ta agindua, au da beste eginkizun guztien sustraia: maitetu egizue alkar. Maitetasunean ezagutuko gaitue gizonak Jesusen ikasleak garean edo ez². Ta iñor badago erantzuten deustanik maitetuten dituala *aide*³, adiskide ta erritarrak, baiña ez etsaiak, esaten deutset barrero: ez da ori naikoa, ori edozeiñek egiten dakiana da, orretan irabazirik ez dago, arerioak maitetu bear dituzue Jaungoikoaren izenean, Jaungoikoagaitik, *diligite inimicos vestros*⁴; bada ori da, Done Gregoriok dirauskunez⁵, maitetasun egiazkoa. Erakuste sakona da au, ez da danentzat *ekersituten*⁶ erraza, biotzaren erdian, Arnoldorenean legez, zauri zarrak dagozanean; baiña ainbat *onkai*⁷ geiagokoak izango zare. Laguntzat zaukadaz⁸ biok gaurtik aurrera, orain artean baiño bere lagun obetzat, eta bat orrek be aldeko urietan, ta beste orrek baso bazterreko txabola ta mendi gaillurreko etxetxoetan, esan bear dozue zeruko oiarzun gozo batzuen antzera: *i diligite inimicos vestros!*

— Baiña, jauna, Euskalerrriak ostu jakozan lurrak eskatuteko *araudea*⁹ galduten ez dabela.

— Euskalerrriak ezer galtzen ez dabela. Jaungoikoaren legea zuzen-zuzena da, ta bakotxari berea emoteko agintzen dau. Al Maitetasuna sartzen bada biotzetan, bereak eta geiago emongo jakoz auzokoari, gogo guztiagaz.

— Bada orduan, neu izango naz lenengo prankotarrentzat maitetasuna erakusten, arima barruan daukadazan atsekabe guztiak itota. Gaizkiesalaren batek esango dau ez nazala ni euskaldun

¹ Ioan. XV, 12.

² *In hoc cognoscent omnes quia discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem.* (Joan. XIII, 35).

³ Aide: ahaide, senide.

⁴ Math., V, 44.

⁵ Homil. 27 in Evang.

⁶ (Ekersitu: practicar).

⁷ (Onkai: merecimiento).

⁸ Zaukadaz: zentzun pluralaz darabil, «zaukedaz». Beste zenbait forma ere agertuko dira era honetara.

⁹ (Araudea: derecho. (Lar.)

ona, ta au samintasun barri bat izango da niretzat, bene-beneta-koa gero!, besteren batek zoratu egin jatala adierazoten emongo dau; baiña ez da ardura, gure legeak agintzen daben ezkerro. Amando jauna, lagunduko deusut orain artean baiño geiago ta obeto.

— Baita neuk bere, nire *itundari*¹ on ta antxiñakoa — diño Adalbaldok. — Maitetuten ditut gizon guztiak, eta erakutsiko dot neureen artean, zein maitagarriak diran nik ezagutu ditudan euskaldunak.

— Eta Aitzbarrenean iraindu zenduzana bere maitetuko dozu?

— Baita ondo. Zergaitik ez?

— Ta zugaz aztuta gengoan, Riktrudis — jarraitu eban Amandok, beste aldera birata, geroago ta ugariago etorkozan malkoak gorde nairik. — Zer dirauskuzu, alabatxoa?

— Nik, jauna, besteak beste. Aspaldian ezagututen nozu, eta badakizu gizon guztiak alkar maitatuteagaitik, poz-pezik neure odol guztia emongo neukeana.

Adalbaldok, Riktrudisen aotik berba onek entzutean, lenengoan baiño biziago, sakonago ta maitaroago begiratu eutsan neskatillari; ta oni, prankotarraren begiradea ikusi ebanean, larrosa gorrien margo ederrak urten eutsen matrailla gaiñetara.

— Benetan? — esan eutsan bere Aitak.

— Ain benetan eze — erantzun eban alabeak, bera begira ta eskuakaz zer egin ez ekiala — prankotarrak eta gu adiskide izateagaitik ontxe emongo neuke neure bizitzea.

— Eta zeinek emoten deusut gurari sutsu txalogarri ori?

— Zeinek? Jaungoikoak.

— Andiak dira Jaunaren gauzak, — esan eban Amandok, bere malkoak gorde barik.

— Andiak dira euskaldunak — geitu eban Adalbaldok!

Arnoldok ez eban ezer esan geiago. Iñoren malkoak ikusi zituanean, bereak agertuko ete ziran bildurrez, danei erdi agur egin da, abiau zan etxeruntz, bere alabea alboan eroiala.

¹ *Itundari*: (consejero).

Andik laster urten eban Adalbaldok bere Amandoren etxetik, an egon ziran Aita-alabak zeintzuk ziran ondo jakinda gero. Arnoldo zan, apezpikoaren esanez, gizon burutsu, on ta euskaldunen artean eskubide andikoa; Riktrudis euskal mendietako aingerua. Ta aingeru onen irudia bere biotzaren erdian eroian dukeak, barkartadean gurtuteko asmoagaz, ia ia siñisturik aingerua zala ezagutu eban euskaldun emakumea, ta aingeruen artean ederrenetako.

Riktrudisek, bere aldetik, gogoan eroan eban dukea, esanaz bere artean, barru-barruan, ta ixil-ixilik: orixe bai dala gizon bat ona... ta ederra!



VI

BIDEZ BIDE

Ona izango da irakurleari esatea, orain artean paperean ipinten ditudan gauza danak udabarrian gertarikoak dirala.

Seireun ta ogetamazortzigarrengo Maiatzak egun batzuk eukazan ondiño. Zerua garbi ta ederra agiri zan; sasi-masustak loratan egozan, garauren bat gorriekatuten asirikoa erakutsiaz; loratan sagar-zugatzak, bedarrez ondo jantzirik *muno*¹ ta zelaiak; bedar artean zuri, ori, ta gorri, mueta askotako lora txiki ta andiak, eta mailluki bat edo beste; sasitik sagastira ta adarrik adar, egaka, *gasupaka*², txio-txio bigunetan, txori bizkor urduriak: mendi gaillurretan beorrak; egaletan, artaldeak eta bei batzuek, eguzki epela artuaz bedar janean. Baso itzalean mika zarren kurriska garratzak entzuten ziran.

Bajoian, bajoian Adalbaldok, gaur Olabaratzak esaten jakon erritik zear, bide zior batetik bera, Urotz eskumataruntz ta Ustaritako basoak ezkerretarra itxita. Ez eutsan dukeak ezeri jaramonik egiten. Ondoan, nastean, laiñotan legez geldituten jakozan ikusten ziran gauza danak: beste izate bat eukan gogoan, agiri etzan izate bedeinkagarri bat, euskal mendietako aingerua. Osterantzeko gauza guztiak aingeruaren edergarriak, ertzak, barrenak eta egalak ziran. Bajoian, bajoian *tapa-tapa* gure prankotarra, Ames-

¹ *Muno*: muño, mendiska.

² *Gasupaka*: (saltoka). (*Lar.*)

petsutik berutz etorren errekatxo batek bidea ebagita itxi eutsanean. Asi zan alde batera ta bestera begira, errekatxo nondik ondoen igaroko ete eban jakin nairik, eta orduan ikusi eban, ezker aldean, intxaur-zugatz azpian jarrita, narruzko zorro bat aurean, ta *zekaleagaz*¹ egindako ogia ta zezin egosia eskuetan eukazala, gizon motz, narras, traskil, motroillo, ipur-lodi bat.

— Adiskidea — deitu eutsan Adalbaldok — ondo al noa Kanbo aldera?

— Bai, — erantzun eban besteak, *zirkiñik*² egin baga, ta *kopau*³ batean lau ontza ogi baltz aoan sartuaz.

— Ta ez al da emen zubirik erreka onen gaiñean?

— Or goragotxoan billatuko dozu.

Adalbaldok ikusi ebanean gizona ain *zabar*⁴ ta desbegiratu, itandu eutsan, zein zan jakiteko gogoagaz:

— Zetan zagoz zeu emen?

— Beizain.

— Nongoa zara ba?

— Mendiolak morroia.

— Mendiolakoa? Arnoldorena?

— Bai.

— Ta Riktrudisena?

— Baita.

— Etxera zoazenean, bada, emon eikeozuez neure izenean gorantziak, eta Riktrudisi esaiozu ez nazala beragaz aztuko.

Lopek, bada Lope Nagi zan beizaiña, baietz erantzun eutsan buruagaz: aoa bete-bete eukan zeziniñaz ta ogiz.

Joan zan Adalbaldok bere bidean, ta Lope, bere *mandxubea*⁵ amaituta errekan dxangada bat ur edan ebanean, etzin zan *zilbotaz*⁶ gora, zan aiña luze, zorroaren gaiñean burua ipiñita.

¹ (*Zekalea*: centeno).

² *Zirkin*: mogimentu.

³ *Kopau*: ahokada, kopu.

⁴ *Zabar*: nag, alper.

⁵ *Mandxubea*: jatekoa (?).

⁶ (*Zilbot*: txilborra, urdailla, «tripa»).

Baiña ez eban era orretan egon andirik egin. Agertu zan laster, prankotarrak ekarri eban bidetik bertatik, euskaldun gazte azkar bat, sendokotea, begirada gogorrekkoa, agintari itxuraduna. Gezi, aizkora ta eizerako tresna guztiakaz etorren. Gelditu zan pizka baten Loperi begira, ta zein zan ezagutu ebanean.

— Aup! — deitu eutsan.

Jaso eban burua Lopek aupadea entzun ebanean, egon zan pizka baten begira ta ezer ikusi eziñik, argiari begiak ondo ipiñi ezin eutsazalako, ta ezagutu ebanean zein zan deitzaillea,

— Zu bere emetik, Portun? — erantzun eban beizaiñak.

— Bai, ta eu ikustera.

— Ni ikustera bai — esan eban morroiak barre antzean — Mendiolako alaba bakarra banintz, ez dot esaten baiña...

— Ta zergaitik ez eu ikustera? Noizean bein adiskideak ikustea bere otuten jat niri.

Onetan eldu zan Portun Lopeganaiño, ezarri jakon alboan, atera eban *kurkubita*¹ azalagaz egindako ontzi bat, eta emon eutsan Loperi, esanaz:

— Artuik eta edan eik beintzat ardaoa.

— Milla aingeru ederrak! Ez dator oraintxe txarto txarto ardaoa — esanda, oratu eutsan Lopek esku biakaz ontziari, ta dxanga, dxanga, dxanga, sartu eban urdaillera orain pitxerdi esango gendukean aiña bai.

— Baiña, mutil, ez adi ito, zaskel ori.

— Ito, diñozu, ito — ziñoan Lopek, arnasa andi bat artuaz, ezpanetatik kurkubitontzia kendu eutsanean — etxat ez niri ardaotan ito bearrik gertauko.

— A! Sabelontzi astoa! Gizonak, edanzalea izan arren, ito egin bear al jok ba ardaotan?

— Esakera bat da ori, jauna; baiña beste toki baten itoteko-tan, ohea da ardaotan itotea.

— Beti ago i ardao edo sagardao egarrían. Ez al deuek etxean nai aiña emoten?

— Nai aiña! Nai aiña! Ezta urrik emon bere. Ta arritutekoa

¹ Kurkubita: calabaza mota.

ta mingarria da gero au gero. Beste morroi guztiak neuri barik emoten jake edaria Mendiolako jauregian; neuri bakarrik neurtuta. Zer deritxozu?

— Mozkortu egingo az ta...

— Mozkortu! Izten al dabe ba mozkortuten ba? Upalategira sartzen bere ez deuste izten ta. Ta txarren txarrena etxeko andre gaztea da.

— Zein? Riktrudis?

— Riktrudis.

— Txotxo gero, begiraikek gero zer esaten dokan. Beste bein entzuten badeustat Riktrudis txarra dala, sustraietatik aterako uat eure min luzeori.

— Baiña, etzaitte aserratu, jauna. Nik esan nai nebana da jardulea dala gure etxeko andratxoa. «Ardaoa geiegian ez dala ona (bera urzalea da ta), arimearentzat kaltegarria dala, gizontasuna galduten dodala, au dala, ori dala, neure onagaitik esaten deustala», eragin beti.

— Bai ta ondo eragiña. Ilango buru gogorrekoari, eragin ta erabili eginda bere, etxakoe berealangoan sartuten egia. Ik beintzat ez dok ondiño ikasi neurrian edaten, entzunalak entzunda bere.

— Neurria zelangoa dan. Nik neure gogoagaz neurtuten dot eta...

— Ta ire gogo bein bere ez ase. Baiña neuk aseko auat, neuri gauza batzuetan lagunduten badeustak.

— Lagundu, jauna? Bai, bai, bai. Lan andi andia ez bada... Zu niretzat beti izan zara emoillea ta ni emoilleen alde nago beti.

— Lanik baperez, alperra. Mendiolako barriak neuri noizean bein ekarte, ta neureak, bear bada, Riktrudisi eroatea.

— Ori baizen ez bada...

— Orixe bakarrik. Eta gero ardaoa edo sagardaoa edo nai dokana ugari, zerbait egiten deustakan bakotxean.

— Tximista-tximistea! Olangoak dira gizonak, olangoak. Portun, agindu eidazu niri edozer gauza; gorputz ta arima naz zeurea.

— Lenengo egin bear deustakana da, etxera oanean, gorantziak emon Riktrudisi, ta ikusi ondo zelango arpegia ipinten daberen berak.

— Orixe berori esan deust beste batek bere: Arnaldo ta bere alabeari gorantziak emoteko.

— Beste batek? Zeiñek?

— Ez dakit nik bere izenik; prankotar gizon eder bat zan.

— Prankotarra! Non billatu dok?

— Ementxe zear joan da. Baiña zergaitik ipinten dozu ain arpegi aserrea?

— Nora joan da?

— Kanbo aldera ondo ete doan itandu deust.

— Noiz zan ori?

— Ez dakit bada nik. Orain ordu bete inguru edo...

— Arraio, arraio, arraio zikiña!

— Baiña zer jazo jatzu...?

— Nondik etorren?

— Jaungoikoak badaki. Azkaindik edo, Uzelaitik edo, Saratik edo; bide onek toki askotara joten dau ta. Bearbada Mendiola-tik? baiña ez, Mendiolakoentzat eskumunak emon deustazanean, beste tokiren batetik etorriko zan.

— Ederra zala diñok?

— Ederra? Gizon gitxik bardinduko daben gisakoa. Zeu baiño pizkaren bat andiagoa, azal garbi zuriduna, zerua baizen ederrak diran begi ederren jaubea.

— Zelango bizarra eukan?

— Bizarra gorriska samarra, ondo orraztua.

— Tximista gorria! Bera balitz!

— Zein, jauna?

— Lope, eidak ik esandakoa, ta etxak damutuko. Ozinbel-tzen badira gero bildots onak bere.

— Bai, jauna, badakit... eta guztiz zalea naz.

Jagi zan Portun lurretik.

— Non ikusiko gara biar? — itandu eutsan Loperi.

— Biar bere, jauna, emen edo. Ni ez naz soroetan lan egiteko osasun onekoa bere ta, gogotsu gogotsua bere ez ta, mendira bialduten nabe geienetan.

Artu eban Portunek Adalbaldok eroan eban bidea bera, baiña lau oinkada egin baiño lenago biurtu zan Lopeganontz, ta esan eutsan:

— Emon gero Riktrudiseri prankotarraren eskumunak eta entzun ondo zer esaten daben.

— Bai, jauna, bai, ta izango al dogu biar ardaorik?

— Ekarriko deustat kok egin arte edateko aiña.

— A! Ze ona zaran! Emen egongo naz ni egunetik laster.

— Or egongo az i bai, mozkorrondo baldres ori — ziñoan Portunek beretzat, bere bideari itxi baga. Ta beste gogamen bategaz oinkadak zolituta, aopean esan eban: Ai bera balitz, ta *abxitu-ko*¹ baneu!

Lopek ostera, barriro etzin baiño lenago, baziarduan bere artean: — «euretzat jaok, Ozinbeltz, or aurean joan dokana: bizkorra ez bazan bera! Motza ta gauzak esango ditue nigaitik baiña, ezagututen dot nik zein zer dan ta zetan dabillen.»

¹ (*Abxitu*: Coger, alcanzar).



VII EUSKAL ETXEA

Gure egunetako euskaldun *zengle*¹ ta *pinporte*² asko ez litzateke guztiz erara biziko Mendiola zan lango jauregi batean. Arri mailla bi igonda sartzen zan etxez kanpotik ango sukaldera. Andia zan, baiña ke zulo baten azpian egoan dana. Alderdi guztiak keiak ondo balzituta eukazan, diz-diz egiteraiño. Orma alde batean egoan josita, ta bertan tolosturik, jatordurako anka baten gaiñean ipintzen zan *ixilura*³ andi bat, gauza ona, batez bere negurako; ixilur orren ondoan zotzez, ziriz edo taketez beterikako argimutil luze bat; eta or ta emen, burdiñazko topin ta *galdarak*⁴, lurrezko lapiko, pendarra ta *txangillak*⁵; olezko *ganbela*⁶, *txali*⁷ ta kaikuak; eta beste premiñazko tresna batzuk ormetan esegita.

Euskaldunak euren bizitzea *sukaldean*⁸ egin oi eben. Sukaldean izaten ziran jostaldi edo olgeta guztiak, sukaldean esaten ziran ipuiñak eta Aitorren egunetako kondaira egiazkoak, sukaldean jarten ziran, zurezko aulki batzuetan, zar ta gazte, nagusi ta

¹ *Zengle*: simple, single.. Inglesezko «single»tik datorrela dirudi.

² (*Pinporte*: presumido).

³ *Ixilura*: (sukaldeko maia. Ondiño gure baserrietan batzuk badira).

⁴ *Galdara*: (maskelua, pertza, burni pertza).

⁵ *Txanbil*: «cántaro».

⁶ *Ganbela*: aska

⁷ *Txali*: platera.

⁸ *Sukalde*: (eskaratza), suetea.

morroiak batera, anaitasun jaungoikozkoan, danak ontzi batetik jateko asmoetan, zurezko edo ogizko koillara banagaz.

Udako egunetan, lotara baiño lentxuago, atari aldean egoten ziran *kontu kontari*.

Baiña egozan lekuan egozala, ezagun izaten zan Mendiolan nagusi-etxeoandrak zeintzuk ziran. Batez bere Riktrudis. Ta ez bakarrik guztizko begiruneagaz toki egiten eutselako; baita bere, ta geiago, bere *banaitagaitik*¹. Ain zan txukuna, ain zan garbia, ain zan begiratua, ain zan ederra, ain zan ona, ain zan burutsua, ain zan besteak ez langoa jaten, edaten, ibiltzen, itxuran ta izketan. Ez eban iñok esango mendian jαιο ta mendian azia zanik. Egia da eliz gizonak erakutsi eutsezala gauzaren batzuk, baiña berezkoa zan geiena.

Goizean Aitagaz Amandogana izan zan egunean, baegoan Riktrudis atari ondoko jarrilekuan eserita, beste etxeoak *elea*² jaten emoten ta beste arloetan ziarduen bitartean. Amandoren etxera osterea egin eban ezkeretik, egun guztian egon zan ganora bagea; edozer egiteko gurariagaz, baiña zeri *oratu*³ ez ekiala; edozer lan asi ta bat bakarra amaitu barik; gauza guztiai ikutu, ezeri baketan itxi ez, jo ona, jo orra, joan, etorri, ta zeregin bat bakarra bere arian eroan eziñik.

Apal ondoa zan, illunabarra, *damorrietarako*⁴ ordua, ta Mendiolako etxeo andra gaztea damorritz bete gelditu zan, etxe aurreko zelai ta soloai begira. Eguzkia lurretik aldendu zan, eta bere atzetik itxi eban argitasun apurra bajoian bere ondoren, Amaren atzetik umeak joaten diran legez. Soloetan lanean arloturiko jentek eta mendietako artzaiñak etxeratu ziran. *Basarietako*⁵ *ugasioen*⁶ *klin-klon*, *klin-klon*-a baiño beste zaratarik etzan entzuten.

¹ (*Banaita*: distinción) (LAR.)

² (*Elea*: ganado).

³ (*Oratu*: eldu).

⁴ (*Damorria*: melancolía) (Lar.)

⁵ (*Basari*: lodazal).

⁶ *Ugasio*: ugarasio, ugaraiño, igel.

Riktrudisen burua baebillen nonbaiten, Mendiolatik urriñean: bere biotzak samurtasun andi negargarrizkoren batzuk euki bear zituari, bada begi biak malkoz beterik eukazan. Baiña bere burutasun guztiak kendu eutsazan Lopek ekarri eutsan albista batek. Baetorren Lope jauregi ondoko aberetxetik *arrazko*¹ bat besapean ebala, ta etxeko andratxoa bakarrik eta erara billatu ebanean, esan eutsan:

— Zuretzat, Riktrudis, gorantziak emon deustez.

— Gorantziak? Zeiñek?

— Ozinbelzko Portunek.

— Eta nok emon deustu zuri olango gauzak niri esateko eskubidea? — erantzun eban neskatiñak onak, ez gogor ta betosko illunagaz, ezpada Loperi erakuste on bat emoteko asmoan.

— Ara ba, — jarraitu eban morroiak — nik ez neban uste gauza txarra edo atsekabezkoa zanik. Eta ez batek bakarrik gero, bik emon deustez gaur gorantziak zuretzat.

— Bik?

— Bai, andrea. Lenengo prankotar gizon eder batek adierazoten emoteko esan deust zeugaz ez dala aztuko, ta gero Portunek...

— Prankotarra ta Portun nun ikusi dozuz? (Bizi-biziro).

— Neu nengoan tokitik joan dira biak.

— Alkarregaz?

— Ez, andrea: prankotarra lenengo ta gero Portun, atzetik.

— Erbestekoaren billa?

— Aren billa edo...

— Alkarren urrean joan dira?

— Ez andrea. Ordu bete geroago izango zan Portun.

— A!

Ez eben geiagorako astirik izan. Euren eginkizunak amaituta, inguratu ziran atari aldera, banaka-banaka, Arnaldo, andre Luzia, ta Pedro Mari ta beste *ogitukoak*², oeratu baiño lenago aize pixka bat artzeko ustean, ipuin bat edo beste entzunagaz batera. Baiña

¹ *Arrazko*: (narruzko galbai zulo bagea).

² *Ogituko*: morroi, otsein, zerbitzari.

Lopek ez eban geiagoren bearrik. Prankotarra aitatu zaneko, ikusi eban Riktrudisen bizitasuna, ta baita ezagutu eban etxeko andratxoaren poza, Portunek *atxituko*¹ ez ebalako. Naikoa zan, ta ez eban ate ostean itxiko igarritakoa. Ez orixe!

— Ia — agindu eban Arnoldok, guztiak batu ziranean, — ia, Pedro Mari, gaur jardunerako gogo andirik ez daukat eta esan eizuzu zeuk ipuin bat, asko dakizuz-ta.

— Asko ez baiña, jauna, batzuk bai — erantzun eban Pedro Marik. — Txiki-txikitatik olango gauzetarako guztiz gogotsua izan naz. Gure aitonak gabero-gabero ta gure Aitak bere iñoiz bai, esaten euskuezan antxinako euskaldunen gertaldi batzuk, asaba zarretatik aotik aora ikasirikoak. Orain gogoratuten jatana neure Ama zanari entzundakoa da.

— Asi bada, asi — esaten eutsen morroi gazteak zarrenari.

— «Garai bateko egunetan munduan lamiñak ei ziran, — asi zan esaten gure otseiña.

— E? Zer ziran lamiñak? — itandu eutsen.

— Lamiñak ei ziran gorputzaren erdia emakumeana ta beste erdia arraiñarenalango eukeri izate gaizto batzuk.

— Milla aingeruak! Eta non egozan bada? — zirauntsan Ana Mari izeneko neskato zabal ogipeko batek.

— Itxasoan batzuk ontziak ondoratuteko, ibaietan beste asko, igarira joaten ziran gizonak itotearren. Ereslari onak ei ziran, guztizkoak, baiña euren eresia entzuten gelditu ezker, galdua ei zan gizona; pitinga, pitinga, konorta kendu, eurakana eroan ta ito egiten ei eben edozein. *Eraldi*² batean oso ugaritu ei ziran Bizkai-ko Arrati aldean dagon Laminerreka deritxon ibaitxoan. Alango Jaungoikoaren zigorrak ez ei da ikusi. Ez jan, ez edan, ez lo, ezin ei zan ezer egin. Koipatsu bat gertauta jaterako asmoan zengozan, «dsaut» sartzen ei zan etxera leiotik barrura, eta sapo bat botaten ei eutsun koipatsura. Ardao edo ur edo esne pizkat aora eroateko adiunean, «dsaut» lamiña ke-zulotik bera, ta sapo andi zikin bat ardaora, edo urera edo esnetara. Lotara sartzen ziñan

¹ *Abitu*: arrapatu.

² *Eraldi*: aldi, sasoi.

orduan, *daun-daun* atea: — Zein da? ta — lamiñea! — Zer bear dozu? — Eregizu ate ori. — Zetarako? — Eregiten ez badozu, zure errukarria. — Ta eregi egin bear, ta antxe, beragaz, goizeko ordue-taraiño ikaraz egon bear.

— Baiña, ez egoan norbait lamiñok bein onetatik kenduko zituanik? — itandu eutsen ostera bere Pedro Mariri.

— Zein gero? — erantzun eban onek. — Gizonik indartsue-nak adore baga geldituten ei ziran lamiñak ikustean bakarrik, eta ez ei zan iñor azartuten euren kontra il edo bizi jokatutera. Erri askotako jenteak, goseak, egarriak eta bildurrak amaitu bear ei zituan. Bein baten etorri zan Euskalerrira kanpotar on bat, elizgizona edo olangoa, paparretik bera kurutze eder bat ebala; ta kanpotar orrek esan ei eban berak ez eukala lamiñen bildurrik, eta kurutzearen izenean kenduko zituala lamiñok gure lurretatik. Iñok ez ei eutsan siñistu, baiña, alan bere, gizona ikusi ebenean ain ausardi andikoa, danak gura ei eben euren etxera eroan. «Zatoz gurera» batak eta «zatoz gurera» besteak, ten ortik eta ten emetik soiñeko guztia bere zatitu bear ei eutsen. Sartu ei zan bada etxe batean, ta bere atzetik jente andia. Ba ei dagoz, ba ei dagoz, ikaraz guztiak kanpotarriori izan ezik, eta oso gautu zanean danentzat janari apurren bat ipinten egozala, *daun-daun* atea. Emen dira! Galduak gara! asi ei ziran danak. Kurutzedun orrek, ate ondora joan ta, — zein da? itandu ei eban. — Lamiñea! — besteak kanpotik. Eta orduan kurutze donea esku batean artuta atea edegiaz, esan ei eban elizgizonak: «alde onekoa bazara, sartu zaitetz ordu onean; baiña alde txarrekoa bazara, kurutzean ildako Jaungoikoak ondatu zaizala inpernuko leize zuloan.» Ta au esanagaz batera, txilioka ta uluaka iges egin ei eban lamiña orrek eta etxe atan ez ei zan geiago besterik agertu. Jazoera au jakin zanean barriz, beste etxeetako gizonak asi ei ziran kurutzeak egiten, arrizkoak, burdiñazkoak, eta argizarizkoak bere bai. Arrizkoak bide-kurutzetan ipiñi ei zituen, burdiñazkoak mendi gaillurretan ta argizarizkoak ate ta leioetan *enplata*¹. Ordutik aurrera ez ei da ikusi lamiñarik gure lur ta ibaietan.»

¹ (*Enpla*: Neure errian esaten da itz au, gatzelarren *pegar* aiñakoa. Ez dakit beste errietan esaten dan edo ez).

Ipuiña amaitu ebanean, kolkotik olezko kurutzetxu bat atera ta mun egiten eutsan Pedro Marik.

— Guzurra dirudi gero — ziñoan Lopek — olango piztia txar-rak munduan egon bear dabela.

— Ta guzurra izango da, asi zan esaten Riktrudis, lamiñen ori beintzat. *Irudipen*¹ bizidunen batek asmauriko ipuiña izango da ori, baiña bere erakutsia badauka. Orrek esan nai dau kurutze doneak inpernuko gaizkin danen kontrako indarra daukala, bertan, kurutzean, gure Jesus maitea il zalako: esan gura dau gaiñera kurutzean *ustekida*² andi bat euki bear dogula, ta kurutzetarrak, naiz ta euskaldunak izan ez, izan leitekezala maitegarriak, kanpotik on egitera etorri zan elizgizon ori legez.

— Baita beste zerbait bere esan gura deusku: — gaiñeratu eban Arnoldok — ezegaitik bere ez dogula aztu bear aitona zaren ekanduakaz. Jaungoikoak daki noiztik asi ta Berberak daki zergaitik, bada emen ez dakigu, euskaldunak, itxaropenik onena legez, Lauburu edo kurutze bat eroan dabe beti guda guztietara, aidean gizonen buru gaiñetik, danak ikusi eien ondo, ta berari begiratuta indartu eitezen biotzak eta gogortu besoak. Euskaldunena izan da beti kurutzea Lauburu-ren izenagaz, euskaldunakandik, eta gure auzoko kantauritarrakandik artu eben erromatarrek Lauburu. Berak gorde genduzan gatx askotatik geuk ez genkiala³, berak lagunduko deusku aurrerantzean bere, beragan siñisterik badaukagu.

Arrats atako bigira, billera edo batuerea amaitu zan, ta jagi ziran danak oeari epelaldi bat emoteko gogoagaz.

— Gure Riktrudisek asko daki baiña — ziñoan ortz artean len aitaturiko neskatilleak — ez dakit egia ez ete dan lamiñen ipuin ori. Neuk kurutzea badaukat eta...

Beste otsein guztiak bere uste orretan sartu ziran euren oee-tara, iñoiz baiño obeto buruen gaiñean kurutzea egiñaz.

Baiña bazan Mendiolan ain goizetik oeratu etzana norbait. Riktrudis, bere gelatxoan, oitura eban legez barruari aztertu bat

¹ (*Irudipen*: imaginación).

² *Ustekida*: (confianza) (*LAR*.)

³ Genkiala: «genkigula» dakar idazleak.

emoteko gurarian, jarri zan belarriko kurutze andi baten oiñetan, adiuneko nasteak zuzendu ta garbi ipinteko uste on bategaz. Ai! Ezin eban gauza bat baiño besterik gogoratu. Beti bat! Jesus kurtzekoa? —ziñoan —Jesus laztan zauriz betea, ez dedilla galdu nire arima Zuk zerurako sortu zenduana, ez eidazula itxi galdubidean edo *esetsian*¹ jausten, Jauna. Zu gura zaitut gauza guztien gaiñetik maitetu. Etsai gaiztoak ekarriko eban beste gizon ori gaur nire bidera, plageak bialduko eustazan Adalbaldoren gorantziak Loperen bitartez... Jauna — jarraitu eban negarrez aspertu aldi bat egin ostean — gizon ori ez da gaiztoa, Zure lege zalea da, Zure bake gozoa nai dau berak lurrean, Zure maitetasunagaitik urkatuko litzatekeala uste dot. Eta, gaiñera, ondo begiratu ezker, ez dertzot gauza okerra dana eskumunak ezagun bati bialdutea... Baiña, neu naz emen txarra, neu, neu! Egun guztian euki dot neure buruan gizon orren gomutea, ta bere gorantziak emon deustezenean *taupada* andi bat egin deust biotzak, neuk gura neban gisara ulertu dotalako gorantziak bialdutea. Ai, ene! ai, ene! Arren, Jauna, ez naizula itxi Zure eskutik... Ez ete dau bera Portunek atxitu bere bidean. Ez ori, neure Jaungoikoa, ori ez! Bera ona da-ta, berak errurik ez dauka-ta. Ni naz emen erruduna. Beti lengora ta beti lengora joakit² neure burua. Parkatu egidazuz, Jauna, nire argaltasunaren utsegiteak. Damu dot, Jauna, damu dot biotz guztitik... Ai, goizean banengo Amandogaz autorrera on bat egiteko!

¹ *Esetsi*: tentazioa, (pelea, combate)

² Joakit: «doakit» edo «joat» ipini beharrean, nahasteko adizki bat sortu edo ipini dau.



VIII AMESAK ETA EGIAK

Urrengo goizean egun usaiñagaz batera urten eban jauregitik, eta eguzkia bideak galdatuten asi baiño lenago etxeratu zan Riktrudis. Pozez zoratuten egoan, ezagututen dogun leio baten ondoan, altzoan josteko zapi batzuk zituala. Etzan gitxiagotarako bere. Gabeko gogamenakaz ez eban arimako garbitasunik galdu; etziran plagearen gauzak izan. Egundo alangorik! Ez eutsan bada Amandok esan, Adalbaldo ta bera, Riktrudis, alkarrentzako jaiorikoak legez zirala, ta biak alkartutea errientzat guztiz ona izango litzatekeala? Prankotarrak euren nagusi bat euskaldunagaz ez-konduta ikusi ezker — esan eutsan Amandok — euskaldunai obeto begiratuko deutse; ta euskaldunak, Arnoldo izen andikoa-ren alabea ta Adalbaldo bat eginda ikusitakoan, ez dira auzokoen kontra ain amorratuak egongo.

Baiña ori gauza andia zan! Ainbat andia! Gizaldi luzeetan alkar ikusi eziñik egozan arraza biak, batak beste ondatutea baizen beste gauzarik gogoan ez euker erriak, alkartu!

Ta ona zana ezin ukatu zeitekean. Gizon guztiak aita baten semeak baziran, zerurako jaiok, danak anaiak legez bizi izatea bidezko gauzea zan. Batak besteari egitada txarrak parkatuteko agindu baeban Jesusek, alkarri parkatu bearrean egozan euskaldun ta prankotarrak.

Berak, Riktrudisek, parkatuko eutsan edozeini edozer gauza: berez jatorkon¹ mundu guztiaren adiskide izateko gogoia. Baiña, ezkondu! Olango gauzarik etxakon iñoiz bere gogoratu, eskabide andiak izan zituan baiña. Ta ori aitak eta amak eurak, noizean bein ezkontzea aitatu eutsela gero, eurak zarrak egozala-ta. Aita zaindu, amari poz emon, morroiai gauza onak erakutsi, besterik ez eban gura izan. Gizonak ikusteak berak bildurra ta ikarea emoten eutsan, ta Portunek beste guztiak baiño geiago.

Alan da guzti bere, Elizearen onagaitik eta errien bakerako, gurasoen gurariko bategaz alkartu bear izan ezkerro, ezkontzeko *doskaiña*² bear bazan, ezkondu egingo zan.

Baiña Adalbaldogaz ezkontzeko doskaiñi bearrik ete eukan?... Zer ekian berak? Bai edo, ez edo... Olango gauzetan etzan egundo ibilli ta... Adalbaldo gizon ona iruditu jakon, tint ona; argia bere bai, baita; itxurazkoa, guztiz itxura ederrekoa; lerdena ta liraiña ta aukerakoa; besterik etzan lango gizona.

Ta Adalbaldo izan ezik besteren bategaz ezkonduko ete zan? Ez, orixe ez! Ezta, ezta lurreko ondasun guztiak gaitik bere. Ta gurasoak aginduko balebe beste bat senartzat etxera ekarteko? Ai, ene! Jaungoiko maitea! Olango gauzarik ez ete eutsen aginduko. Maite baeben itxi eioela bake-bakean, ezkontzea nai ta nai ezko gauzea etzan-ta.

Gaiñera, Amandok ziñoanez, Adalbaldo Riktrudisentzat ondo etorren gizona zan, Riktrudis Adalbaldozentzat gisako emakumea. Biak ondo alkartuko ziran, biak ondoen lagunduko eutsen apezpikoari eginkizun Jaungoikozkoetan.

Ta baeukan elizgizon nagusiak laguntasunen bearra, bada Auñemendiko euskaldunik geienak fedegabeak egozan oraindiño. Ez alan beste euskaldunak, Jaungoikoari milla esker. Napa-roako erribera aldean, berak, Riktrudisek entzutea ebanez, Jesusen barri onak erakutsi zituan Done Paulo Jenteentzat Bialduak,

¹ Jatorkon: «etorkon» edo «etorkion» izan behar leuke iraganean. Orainaldi-ko formeaz nahasi dau.

² (*Doskaiña*: sacrificio) (*Lar.*)

kristiandadeko lenengo urteetan¹; Done Saturninok Iruñian, iru-garrento eunkidan²; Done Bizentek Dax-en³ eunkida orretan bertan, baiña aretarikorik etzan mendietaraiño eldu, ta zerbaiten susmo ta zurrumurrua baiño asko geiago etzan jakin orduan basoerri bazterretan. Geroago, pixkaka, pixkaka, sartu zan Auñemendin zeruetako argitasuna, ta oraindio ez gara kristiñauok ain asko. Alan bere ez dauka Amandok bear lekua makala. Euskalerriko alde onetara etorri zan ezkerotik, bere gorputzari atsedean bat ez deutsa emon. Jo ona ta jo orra, etxe batetik urten ta bestean sartu, batari on bat egin ta besteari obeak esan, or base-lizatxo bat ipiñi ta emen lanerako lagun barri bat billatu, oni erakutsi ta ari burubide gaiztoak kendu, aserreak baketu, argalak indartu, gaixoari sendagarri onak emon ta biotzetan azi onak bota. Ez eukan edozelango buruaustea!

Ta beti laguntasunen billa, Jaungoikoaren izenean. Zer laguntasun emon eikeon berak, emakume indarbagako zirzil batek, Amando gizon andi doneari? Zer egin daiket nik? — ziñoan — Ez naz izan urria al dodana egiten Jesusen izena ezagutua ta maite-tua izan dedin: orretan igaro ditut orain arteko egunak: neure eza-gun ta adiskideen artean alegiñak egin ditut nik, eta aurrerantzean bere zerbait egiteko gogoia daukat.

Ori bai, ori da neure marrea ta. Baiña, zelan urten neike nik neure marratik kanpora? Erri guztiari *agergarri*⁴ on bat emon bear jakola diño Amandok. Ai, Amando, Amando! Agergarri orrek euskaldun askoren uko ta pukoak ekarri leikez nire gaiñera ta neure etxadi guztira bere bai. Orixe da miñik andiena emongo leuskidana, neure aita ta neure amagaitik zerbait esatea. Esan daiela nigaitik gura dabena, *ezaindu*⁵ daiela nire izena, il naiela ni, gura badabe; baiña itxi daiola bakean nire gurasoen izen onari. Ain dira onak! Ain ditut maite!...

¹ Labayruk, len aitaturiko *Historia de Bizcaya* deritxon liburuan XVI-garrento atal ta 96-garren orrialdean.

² Berberak, esandako liburuaren 96, 97 ta 98 garrento orrialdeetan.

³ Berberak 101 garrento orrialdean.

⁴ (*Agergarri*: ejemplo).

⁵ (*Ezaindu*: manchar).

Banabil ni nunbaiten, Adalbaldogaz alkartutea ondo izango litzatekeala esan deustelako beste barik. Zer dakigu berak gurako leukean edo ez?...

Zeñek ete dakiz ondo biotzaren legeak! Araiñegun esan ba-leuste niri prankotar bategaz ezkondu bearco nebala, *zurturik*¹ geldituko nintzan, ta albiste orrek egun txar bat emongo eustan, ta gaur barriz Adalbaldo nigaz gogoratuko ez balitz, min andi bat artuko neuke biotz barruan. Ai, neure Jaungoiko maitea! Ez da emen gauza guztia zuzen-zuzena, ez da garbi-garbia, ez da dana Jaungoikoaren *naigurea*² egiteagaitik eta neure erriaren onerako; badauka zatiren bat neure gogoak, eta ez txikiena. Ai, ene bada ta! Biar bere joan bearco dot nik Amandogana.

Riktrudis onetan egoala, sartu zan Andre Luzia gizategian, eskuetan kaltzerdi-orratz zotzezko batzuk eta ardi-ari zatar edo ule lodia eroazala, bada orduan euskaldunen soiñeko ta oiñetakoak emakumeak egiten zituen, abarkak izan ezik. Jarri zan bere alabearen ondoan, sartu zituan zotzean jausita eukazan *orratzaldae-ra*³ batzuk, batu eban atzaparretan ule jira-bira, ta atzaparrak erabilliaz Riktrudisi begiraturik, esan eutsan:

—Atorra ori asteko daukanan ondiño, neure alabea? Zeñentzat don berori?

—Ana Marirentzat. Donibanak artean ez dau bear ta...

—Ez dau bearco; baiña bear baleu bere, ez dakit amaituko ete eukean. I azan langillea ta igaroko lau egunetan ez don ezer egin ganoraz. Ez dakit nik zer darabilnan.

Riktrudis begi bietaraiño gorri-gorri jarri zan, bere amak biotzeko gauzak ikusi baleutsaz legez. Etorri jakon gogarte guztiak esateko gogo, baiña bildurtu egin zan. Zeñek esan Andre Luziari bere alabeak begirune gozoagaz begiraturen eutsala prankotar bati?

Amak osteria ez eukan buruan Riktrudisen usteko gauzarik, eta egin zituan itzak zerbait esateagaitik egin zituan.

¹ *Zurtu*: harritu, mira egin.

² *Naigura*: (voluntad).

³ *Orratzaldaera*: (puntos).

—Nik darabildana, Ama, nik darabildana.

—Ez daukan esan bearrik, badakit-eta...

Odol barik gelditu zan Riktrudis au entzunda, Amak jarraitu eban arte.

—Gauza guztiak zuzendu ta ondo ikusi naia. Bakea bear dala ta, alkarrenganako maitetasuna bear dala ta, or abil i beti. Nik neuk olango gauzak gizonentzakoak bakarrik dirala uste dot, baiña ez jonat ezer esango, badakit biotz onagaz egiten daunana ta. Edolanbere ez daukan orain neketan egon bearrik nai euana atera euan ezker. Ozinbeltz ta Erebi aldean ingurauriko gizonak sakabanatu ei ziran, Arnoldoren esanak entzun ta gero, ta ez ei da gudarik izango orain pixka batean.

—Ez da bear bere, amatxo. Guda batek bere atzetik negar asko ekarten ditu.

—Ori ondo dakit neuk, iñok badaki. Baiña urteetan negarez dagonak nai dau zerbait malkoen legorgarriztat.

—Malkoen legorgarririk onena arerioai parkatutea da, amatxo.

—Parkatutea! Neuk bere badakit parkatutea ona dana, baiña bazenki zenbat irunsi bear dan!

—Zerua gauza andia da, ama, ta zeruagaitik ori ta geiago bere egin bear.

—Ta gaiñera parkatutakoan arroago geldituten jatzuz, gaizto, petral, arimabagako batzuk dituzu-ta.

—Zeintzuk?

—Prankotarrok.

—Ez danak, ama. Atzo, aitagaz Amandogana joan nintzean, ezagutu neban nik bat, eta aoa bete-betean esan leike, guztiz zala ona, arima samurrekoa ta kristiñau zintzo-zintzoa. Naiago neban zeuk ikusi bazendu, ta bere izketea entzun gaiñera. Autortu euskun aspaldietako gudak prankotarrakaitik izan zirala ta euskaldunakaitik egundiñoko gauzarik onenak esan zituan. Ia ba, aitak, besoak zabalduta, bere bularraren kontra estutu eban-ta.

—Zein?

—Prankotarra.

—Prankotarra Mendiolako Arnoldok bere bularraren kontran estutu!

— Bai, andrea.

— Edo ez diñozu egia, edo prankotar ori gizon doneren bat da.

— Ez dot nik egundaiño guzurrik esan, dakidala.

— Benetan, benetan, bai, ondo diñon, neure alabea; ez don ik iñoiz guzurrik esan, baiña neuk bere ez dot iñoiz olangorik entzun. Zein zan gizon ori?

— Portunegaz aserratu zana, Amando apezpikoaren adiskide andi bat Adalbaldo dukea, gizon argia, ederra, ona ta donea bere bai *ausaz*¹.

— Ez deust niri ezer esan neure gizonak. Ez dakit nik egun oneetan emen zer dabillen. Euk biurtu ditun etxe onetako gauzak atzekoaz aurrera; euk erakusten eutsanaz² otseñai lanerako gogoia ta *onbidea*³; euk emoten egunoro erakuste barriak eta arren gozoak; eu abil ezagun guztien artean Jesusen legea zabaltzen; eu az, diñoenez, inguruko *landerrak*⁴ dauken ongillerik andiena; ta euk eroango uanan Amandogana nire senarra. Ni baiño obea az, alabatxoa, Jaungoikoak gorde aiala-ta.

— Ez, ama, ez neban nik aita eroan, berak esan eustan niri, lagundu neiola. Ta ez eidazu niri ona nazala esan; neuk dakit nik zelango baltzuneak daukadazan ariman.

— Baltzuneak! Ago ixillik, Riktrudis, ire baltzuneak besteen-tzat argitasun ta edergarri izango litzatekez-ta. Itxi daiogun gauza orri ta esan eidan: zer egin zenduen Amandonean?

— Ezer bere ez nik. Joan giñan ta billatu genduan beragaz Adalbaldo. Amandok esan euskun bere antxinako laguna zala.

Ta izketan ta izketan, apezpikoa, dukea ta gure aita, ezagutu eben alkar barru-barrutik, eta alkarren lagun egin ziran.

— Ta batak bestea bularraren kontran estutu?

— Bai, andrea. Zergaitik ez? Askotan, urriñetik gaiztoa irudituten jakuna, urretik tint ona dala dakusgu; erailletzat euki daroa-

¹ Ausaz: Behar bada, agian.

² Eutsanaz: «deutsazan» (hik euri zertzuk) zentzuz, dirudienez.

³ (Onbide: virtud).

⁴ (Lander: pobre).

gun gizona izaterik maitegarriena dala, iñoiz. Zeure ustetan Aitz-barrengo burrukaria gizon txar, maltzur, dongaren bat izango zan; baiña Amandoren etxean ikusi bazendu, gizonik doneena irudituko jatzun.

Andre Luziak etzituan Riktrudisen azkenengo itzak entzun. Bere senarragana joakon gogoia.

— Ta neuri aitatu ez — esan eban atsedean txiki bat egin ondoan.

— Nik uste neban aitak esango eutsula ta...

— Zuk ez, zuk ez; aitak bada, aitak. Bakar-bakarrik, oerako arrenak egiten gengozala, *Zeruetan zagozan gure Aita* bat esan eragin eustan gure arerio guztiakaitik.

— Eta gogoz erantzungo zeuntsan! Ez da alan amatxo?

— Bai bada, beti legez. Nik beti egiten dot arren neure seme maiteak il zituenakaitik.

— Ara non, ama, agertzen dan zeure biotz ederra.

— Entzuin, Riktrudis, — esan eutsan andre Luziak, bere alabearen *lusintxa*¹ oni jaramonik egin barik — parkatuko deustan lengoan gogortxu egin neualako, ezta? Neuk bere ona izan nai dot, eu legez ta aita legez.

— Parkatu diñozu? Jesus, Maria ta Josepel! Zer gero parkatu? Zeuk uste dozun baiño bere obea zara ta...

— Agur, gero arte.

— Ama, beste gauza bat badaukat ba nik esateko...

— Gero, Riktrudis, gero esango deustan; orain beste zeregin batzuk daukadaz. Ara, aita ez dabil ondo, oean gelditu da gaur, ta zetan dagoan ikustera noa.

— Aita ondo ez dagoala?...

— Ez da ezer, ez da ezer — esanaz, joan zan andre Luzia.

Ta ni bere beste gauza batera noa.

¹ (Lusintxa: lisonja).



IX

ZURRUMURRU GAIZTOAK

Egin, gizon zintzo ta errimeak, egin ondo, al dozuen giñoan zuen Sorterriari; ipiñi bere alde zuen biotza, zuen adimena ta be-soa; igaro zuen bizitza guztia ainbeste maite dozuen Lurra ostendu ta gorde naian; estanda egin ta urkatu, bere izena izenik maitegarriena legez begiratu izan dedin erbestekoen artean; baiña ez erritarren aldetik sari on bat itxaron. Andia bazara, ezingo zaitue ikusi ta jango deutsuez azpiak zuek aiña ez diran gizonak; txikitxo bazara, ezereztat eukiko zaitue ziztrin, doillor, *urruingamri*¹ ta billuts guztiak. Ori izango da ezagututen zaituen danak zuentzat biotzaren erdian gordeko daben saria. Izan leiteke, beta onaldi batzuetan, besterik eziñean ta ondumuz beterik, zuen egitadaren bat txalotua izatea, kanpotik; baiña ez da biotz barruan txalorik izango: an, tolostura artean gorde egongo dira gorrotoak, eta urtengo dabe ondo deritxoen eraldi batean, subeak trumoi egunetan edo saguzarrak ilunabarrean urtetan daben antzera.

Aitzaki txikiak bearco dira orretarako, uskeria bat izango da naikoa.

Olan gertau jakon Mendiolako Arnoldori. Andia zan bere izena Auñemendin, Euskalerriari on ugariak egin eutsazan, irakurleak dakian gisan, adiskide asko zituan, uste zanez. Baiña usteak ustean gelditu oi dira sarri. Asi ziran jenteak ortik eta emetik

bata ba bestea esaten. Batzuk, lotsagaldukoena edo biotzik balztenetakoak, *salkindaria*¹ zala Arnoldo; beste batzuk, alabea ezkontzeagaitik prankotarren adiskide zala; norbaitek, Mendiolako, beti izan zala arro andi bat, eta orain, bera ezertarako gauza etzanean, prankotarrakaz gudarik ez ebala nai, bere izenaren argitasuna iñok illundu ez eian.

Ta zurrumurrua, Baionatik asi ta Aramitz-eraño zabaldu zan bereala, ta estaldu ta aztu eragin ebazan Arnoldoren egitada andi, ospetsu dizdizariak, odei matasa balzak illargi ederraren erraiño gozoak estaltzen dituan gisara.

Mendiolako jaunaren kontrako salgaistak nonnai entzuten ziran: au zana, ori zana, nik banekiana, nik esaten nebana, bere morroiakandik jakinikoa zana: danak euken Arnoldoren izen garbiari loikeri apurren bat bota bearra.

Baiña gauza bi agertu nai ditut emen: bata da siñismen gaiztokoak zirala okerrenak Arnoldoren kontra; bestea, andre Luzia ta Riktrudisegaitik iñok ez ebala ezer esaten: gizona ei zan erruduna: besteak gizonaren *joskaiñeak*².

Non ziran orduan Arnoldogaitik arpegia aterako eben adiskideak? Iñondik etziran agiri. Askok, sinistu eben Mendiolakoagaitik esaten zana, gauza txarrak laster siñistuten dira-ta; beste asko poztu egin ziran, siñistu ez arren, bada gizon baten kalteak askoren poza ei daroa bere atzetik.

Baiña gizon guztiak ez dira txarrak eta siñiskorrak bere ez; ta bat edo beste jarri ziran orraitino euskaldun gidari zarraren alde. Ondo ordu txarrean eurentzat: bada eurakaitik bere esan ziran iñoiz entzun etziran lango gauzak. Ubero *txobxinduta*³ egoala aspaldietan bere; Pedro Mari ogipeko zuri guzurti bat zala, ugazabagaz ondo eukiteagaitik sudurra ebaten itxiko leukeana. Aman-do barriz, jakiña! mundu guztiagaitik ondo esaten ekiana zan, ta ganera zerbait aterako eban Mendiolatik bere elizetarako. Uberori barre egiten eutsen bere erako nagusiak; Pedro Marik ia arpegiko

¹ *Urruingarri*: arbuigarri, gaitzesgarri, nardagarri.

¹ (*Salkindari*: traidor). (*Lar.*)

² *Joskain*: (víctima) (*Lar.*)

³ (*Txobxindu*: volverse chocholo).

narrua galdu eban jai bazkal-aurre baten bere lagun artean: zanzbroz ta atzamarkadaz beteta joan zan egun batean etxera; apezpi-koaren jakituri ta donetasuna etziran naikoa Auñemendiko euskaldunen artean sartu zan itsumena kentzeko.

Gizona *aldakorra*¹ da berez; baiña txarretik onera nekez biur-tuten da, onetik txarrera erreztasun andiagaz. Orregaitik Ozinbelzko batzarrean Arnaldo euskaldunik onenentzat eukeen gudariak eurarik, andik egun gitxira salkindari gaizto bat zala ziñoen.

Nondik baiña urten ete eban Arnoldoren kontrako *salgaista*² oker bidebagakoak? Ez da beti errez izaten, olango ipuin dongeak bere iturburu ta abia nun eukiten daben erantzutea, baiña orain-goan badakit nik. Portun ta Loperengandik etorren dana. Portu-nek jakin ebanean Arnaldo ta Riktrudisek prankotarra Amando-ren etxean ikusi ebela, egon zan barriro Lopegaz lenagoko batean alkarregaz ikusi genduzan tokian bertan, Lopek esan eutsen³ Ozinbelzkoari bere gorantziak zertan artu zituan Riktrudisek eta ze-lan prankotarrarenak; eta ori izan zan naikoa, aora etorri jakozan biraorik ikaragarrienak esan ta gero, Otxoaren semea *kurruka*⁴ bi-lla asteko. Baekian zelan emon zeitekean dxastadarik andiena Ar-noldoren biotzean: euskaldun gaiztoa zala zabaldua, diruak edo andinaiak okertu ebala adierazoten emonda. Orretarako gogora-tu jakon errez ta ugari billatuko zituala laguntzailleak gudarako gogoagaz egozanen artean, Riktrudisen eskua ukatu jakoenen ar-tean, Kristoren legekoak nagusizat ezin ikusi zituenen artean, Ar-noldoren aginpideagaitik ondamuz beterik bizi ziranen artean, ar-gitasun gitxiko jente siñiskorren artean. Ta asi zan jo batera ta jo bestera, ixilik eta *ziñazkida*⁵ baten aria eskuetan baleuka legez, or-koai ta emengoai aditzen emoten euskal lurrean *sorterri*⁶ saltzai-lleak egozala, norbere etxadia ondo euki ezkerro besteen ardurarik

¹ *Aldakor*: (mudable).

² (*Salgaista*: calumnia) (*Lar.*)

³ Eutsen: «eutsan» (harek) zentzuz.

⁴ *Kurruka*: (venganza).

⁵ (*Ziñazkida*: conjuración) (*Lar.*)

⁶ (*Sorterri*: Patria).

ez eukela norbaitzuk, eta beste olango ipuiñak; autortuten ebala azkenerako, belarrondora ta iñori ez esatekotan, erri saltzaillea ta besteen ardurarik ez eukan euskaldun madarikagarria zein zan: Arnaldo. Ta zelan ekien askok prankotar agintari bat Arnaldo ta bere alabeagaz egon zala, ta beste askok Ozinbelzko batzarrean zer gertau zan ikusi eben, guzurak egiaren itxurea eukan, ta egia balitz legez ebillen aotik aora.

Astiune andia bear izan eban alan bere Mendiolako jauregi-raiño elduteko. Morroiak baekien, baiña zelan esan nagusi-etxe-koandreai? Olango albisteagaz beragana joaten ziranak zuzituko zitukean Arnoldok. Guztiz ona zan, guraso bat zan danentzat; baiña bere izen onari geldi-geldi itxi bear jakon.

Baiña olango gauzak ez dira ixilik luzaroan eukiten, nai izan arren. Edo norbaiten *zurreztak*¹ edo lagunen arpegikeriak, edo umeen ezjakiñak, edo ume itxurakoen jardun ta barritsukeriak, usterik gitxien danean kenduten deutse estalkia ta orduan izaten dira ordukoak.

Pedro Mari atzamarkadaz beteta etxeratu zan egunean, er-dizkako itz batzuk kanpoan entzun arren, etzituan Arnoldok ezer-takotzat artu; baiña bere jauregian sartuta, morroirik onenaren ar-pegillun ta urratua ikusi ebanean, itandu eutsan, aita on batek seme maiteari legez:

— Zer dok, Pedro Mari? Zer gertau jak?

Ta morroi zarrari ezer esateko astirik emon бага, Ana Mari motzak ugazabari erantzun eutsan:

— Burrukan egin ei dau, zeugaitik zerbait esan dabela-ta.

— Nigaitik?

— Bai, jauna.

— Ez da, ez da, guzurra da, jauna: — esan eban Pedro Ma-rik, zer ziñoan ez ekiela — jausi egin naz, ara or zereko zerean.

— Pedro Mari — jarraitu eban ugazabak —, esan egidazu niri egi egia. Zer esan dabe nigaitik? Neuk bere zerbait entzun dot, eta ez deusat jaramonik egin; baiña orain emen dakustanak argitu-ten deust adimena.

¹ (*Zurrezta*: imprudencia) (*Lar.*)

Betosko¹ aserrea eukan Arnoldok au esatean. Begiratu eutsan Pedro Marik, eta ikusi ebanean bere nagusiaren *bezintarte*² gogorra, erantzun eutsan:

— Ez diran gauzak, jauna.

— Zertzuk?

Begiratu eutsan otseñak barriro, ta ugazabaren arpegian ezagutu ebanean nai ta naiezkoa zala garbiro erantzutea, esan eban:

— Jauna, ez dau iñok siñistuko, ezin leike siñistu zeu ezagututen zauzanak, zergaitik...

— Eroapenak amaitu jataz, Pedro Mari, ta euk bere amaitu egik bein.

— Erri-saltzaillea zarala zeu ta...

— Ta?

— Riktrudis ezkontuteagaitik prankotarren adiskide zabiltzala.

— Zeiñek esan deusk?

— Askok, eliza-atean egozan danak.

— Eta euk zer erantzun deutsek?

— Nik? Aurrean neukanari ukabilkada bategaz agiñak atera.

Baiña asko ziran ta... Gaur arratsaldean orraitio...

— Ta ire aldekorik etzan?

— Iñor bere ez.

— Beraz Mendiolako jaunak i baiño beste adiskiderik ez eukan?

— Aldra atan ez, jauna.

— Ta aldra andia izango zan?

— Eliza batekoa: toki askotako jentea etorten da mezara ta...

Lotsea, *bekaitza*³ ta arimako samintasun sakon ta neurribagea irakurri ziran Arnoldoren arpegian, berbakaz ezer ez eban agertu baiña. «Otordua da ta jaizue» — esanaz, igo eban *mandio-*

¹ *Bestoko*: betondo, «ceño».

² *Bezintarte*: (entrecejo).

³ *Bekaitz*: (indignación) (*Lar.*)

tara¹ ta an asi zan batera ta bestera bere gogamenakaz guda bizian.

*Mutik*² ez eutsan iñok atera: jauregi dana, illerria legez, ixillilean gelditu zan: ixillilean morroiak ezkaratzeko aulkietan jarriarik, zer esan ez ekiela; ixillilean etxeakoandrak, zokoren baten sartuta. Arnoldoren oinkada desbardiñak eta emakumeen zotin zizpuruen soñua besterik etzan entzuten. Il-barria sartu zan etxe atan: Mendiolako etxe jaun ospatsuaren izen bedeinkagarria Euskalerrian il zala jakin zan.

Nondik etorren eriotzea? Zein zan iltzaillea? — itauntzen eutsan bakotzak bere buruari. — Ta buru argikoenak laster erantzuten eban: eriotzea Ozinbeltz aldetik dator, siñisgaiztokoaren eskuetatik.

Eriotzea al da bada, edo gaixo aldiren bat? — ziñoan bere artean Arnoldok. — Eta berberak erantzuten eban: bai, eriotzea, erriak gisa orretan jarritakoan, ez dira berealakoan beste aldera biurtuten: urteak bear dira orretarako, ta ni ez nago urteetarako ta gitxiago bere. Neure erri maitearen biraopean il bear dot! Baiña nik ez daukat zergaitik lotsatu, ta gaur arratsaldean enparantzaren erdira urtengo dot, gizonik geien dagoan tokira, ta etxerik etxe joango naz gaiñera neure bekoki garbia erakusten, ta ikusi bear dot oraindik nire berbeak surik eta biotzak irabazteko indarririk ete daukan; jakin bear dot nire morroiari esan deutsena neure arpegi-ra esateko ausardirik badauka iñok.

Ugazaba olango burubideakaz ebillen bitartean, Pedro Marik artu eban aizkora bat, eta atariko zorrotzarri latzean asi zan zorrotzetan. Aizkoreak arrian egiten eban otsa aitu ebanean, jagi zan Riktrudis bere lekutik, joan zan Pedro Marigana, ta esan eutsan:

— Zer darabilzu?

— Ikusten dozu.

— Itxizu bere lekuan tresna ori, ta buruan darabilzuzan gurari txarrak bere itxizuz. Zuk ez dozu gaur etxetik urtengo neuk esaten deutsudan agindura baiño bestetara. Zeiñek uste dozu aterako ebal gure aitaren kontrako salgaista ori?

¹ (*Mandiota*: gizategia legez).

² (*Mut, mist* eta *txist* bardiñak dira); hitz, berba.

- Ozinbelzko mozoloren batek.
 — Bada Ozinbelzko mozoloagana joan bear dozu, ta esan nik diñodala berak egin daberen kaltea berberak aguro desegin daiala, nik inoiz arpegira begiratutea gura badau.
 — Baiña areri etxako olango..
 — Ixo, ta ibilli azkar.

* * *

Egun atan iñok ez eban otordurik Mendiolan egin, Lopek ezpada. Jauregiko guztiak negarrez egozan. Lope Nagik aberetxeko ate ostean beregandu zituan jaki guztiak mauka mauka jaten ziaruan. Ugazabaren ardurakaitik goseak ilten itxi bear al eutsan bada bere buruari?



X

ONDORENGOAK

Aurreragotxoan ipiñia daukat, andre Luziari entzunda, Arnoldo osasunean ez ebillela ondo. Gizagaixoa zarra zan, lan asko egiña, neke ta zaparrada asko artua ta bere garaian gizon sendo, zoli, indartsu ta gogorra izan arren, aspaldietan ondo auldua egoan. Urteak ez deutse iñori parkatuten, ta urteen astuntasunak amaituteko zorian eukan euskaldun aitona zindoa. Ta urteak baiño geiago, igaroriko bere egun samiñezkoetan sorbalden gaiñean artu zituan zartada mingarriak. Ia bada, irakurlea, zuk dakizun legez, bere alboan ikusi zituan ilda jausten seme galant bi, bere zartzarako itxaropen on bat emoten eutsenak, bere oiñordekoak, Mendiolako izengoitia guztiz garbi ta diz-diz eragiñaz eroango eben gisakoak; eta iruditu baiño ez daukazu zenbateraiño izango zan orduan Arnoldo gurasoaren biotzeko naigabea, ta jazoera orrek noraiño jango eutsan osasuna. Semeen eriotzea ontzat emon eban berak, Euskalerrriaren alde il ziralako: ez eban kanpotik ezer erakutsi; baiña barru-barruan gelditu jakozan atsekabe ta negarrak biotz guztia *puzoindotuten*¹.

Otxoak deitu eutsanerako, Arnoldo etzan iñoizko Arnoldo. Burutsua ta anima andikoa egoan, gogorik onenetarakoa; baiña belaun ta besoak indargetuak eta gorputza lurrera begira eukazan antxiñatxutik. Makilla lodi baten laguntasuna izan ez baleu, ez

¹ (*Puzoindotu*: envenenar).

eban Ozinbeltzeraiñoako osterea egin al izango. Alan da guzti bere, etxera eldu zanean asko geiagorako etzan.

Ta gero Amandogana joan ta an billatu eban gizonagaz iz egin ezkerroan, *pekuan*¹ gelditu zan, ar andi bat asi jakon barru guztia jaten. Adalbaldo prankotarra zan, gizon donea, besteen argaltasunak ezagutu ta parkatuten ekizana, Arnoldoren eritxiz, bera baiño askozaz obea. Ta alango gizonak, Mendiolakoaren ustez, bat eta bi baiño geiago izango ziran prankotarren artean. An ta emen, ziñoan beretzat, onak eta txarrak dira, beste erri guztietan legez. Ta nik, danak txarrak dirala siñistu izan daroat gaur arte, ta txarrak bakarrik dirala erakutsi izan deutset askotan, prankotarrak il ezkerro neureak ilteari begiratu baga. Beti ibilli ete naz zuzen-zuzen ta neure Lurra *ostenduteagaitik*² bakarrik, ala Euskalherriaren areioai euki deusedan gorrotoak neuritik kanpora erabilli ete nau? Zer esango ete deust Jaungoikoak?

Olango gauzak erabilzan bere buruan Arnoldok Adalbaldo ezagutu eban egunean, gogarte sakonak eukazan eriotzea etorkonerako arimako gauzak zuzen ipiñi nairik, bada baetorren, baetorren, bere ustez, ta arin aringa atan bere.

Gau txarra igaro eban, estu, bero, larri ta *inkesaka*³, ta goizean jagi gura izan ebanean, burua ariña eukan ta *sukar*⁴ pixka bat gaiñera. Alan bere, oe epelean geldi-geldi egon ta ama-alabak emon eutsezan salda on ta *palaguakaz*⁵, pitin bat bere tentunera etorri zan, guztiz sendatu ez arren; ta jai egunean, *ozt-oztean*⁶ bada bere, joan zan elizaraiño.

Baiña elizatik etorreran jakin ebanean garbiro bidean erdi sosmau ebana, ilda gelditu zan Arnoldo gurea. Baeukan arimearen aldetik gogo, kemen ta ausardia naikoa gaiñera jatorkon ekaitz *dongea*⁷ eroateko; baiña gorputzak ez eukan ezertarako in-

¹ (*Peku*: recelo).

² (*Ostendu*: guardar).

³ *Inkesa*: zizpuru, erosta.

⁴ (*Sukarra*: calentura).

⁵ *Palagu*: (mimo).

⁶ *Ozt-oztean*: ibili ezinik.

⁷ *Dongea*: txarra, gaiztoa.

darrik. Ainbeste egunean erdi janean ta gogamenakaz burruka bizian burua ezin jasorik egoan gizon zarra, Pedro Marik emon eutsan albisteak nai ta nai ez amaitu bear eban.

Ai ze atsekabea, ze atsekabea Arnoldorena! Erri zaleegia izan ete zan bildurrez egoan orduan, erri saltzaillea zala ziñoen! Euskalherri saltzaillea. Zein ta bera! Zeiñek asmau eban ain guzur arrigarria? Euskaldunak. Zeiñek siñistu? Euskaldunak. Erantzuera bi oneek Arnoldoren gaiñera, Gorbea, Anboto, Aitzgorri, Aralar ta Auñemendik batera euken baiño astuntasun andiagoaz jausten ziran, ta ezertarako adore baga izten eben lenengo, arnasarik artu ezinda gero, *lerdatu*¹, zeetu ta *birrindurik*² azkenerako. Albiste artu barrian enparantzara urteteko asmoa eukan, baiña laster, oiñen gaiñean ezin egonik, jarri zan aulki zar batean, ipiñi zituan ukalondoak belaunetan ta esku zantsu argalen artean buru zuri gurgaria. Sartu zan orduan Riktrudis gizategira, ta aingeruak ze-ruan euki oi daroen gozatasunagaz esan eutsan aitari:

—Aita, zerbait artu bear dozu: ara emen *erretilluan*³ salda ederra, ta laster ekarriko deusut beste gauza on bat.

Jaso eban Arnoldok bere burua; begiratu eutsan alabeari irribarre negarrezkoagaz, ta erantzun eutsan:

—Éz, enetxoa, kalte egingo leuskit orain. Jolas zelaira joan bear dot, eta andik bekoki garbiagaz natorrenean, artuko dot gura donana.

—Zer diñozu, aitaxo? Bekoki garbia? Zeiñek dauka zuk bai-zen garbia Euskalherri guztian?

—Bai, baiña ori kanpokoak esan bear deuste, ez etxeakoak bakarrik — erantzun ta jagi zan bazter batean eukan makillea artuteko asmoagaz, baiña zorabiau jakon burua, begiak lausotu jakozan, asi zan albo alboka, ta iru edo lau oinkada emon orduko, oso osorik jo eban beea.

Jausi zan gorputzaren *daunbadea* ta Riktrudisen deadarrak entzutean, igon eben bekoak aida batean, jaso eben oera etxe

¹ (*Lerdatu*: aplastar).

² (*Birindu*: desmenuzar).

³ *Erretilu*: plater sakona, handia.

nagusia, ta asi ziran danak gora ta bera, arin-aringa ta *estropozuka*¹, batak saldea, besteak ura, onek gatza ta *ozpiña*² arek *okendua*³ ta zapiak bilatu naian ta ezin ezer eskuraturik, olango jazoretan izan oi dan antzera.

Ebagi andi bat egin jakon buruaren erdian aitonari, ta arpegitik bera odola zerion parra parra. Zauri sakona zan, ta kortako *amaraun*⁴ guztiak odola geldituteko etziran naikoa, ta iñok ez ekian zer asmau. Alan bere, egin bear zan zerbait, eta zelan edo alan lotu eutsen burua.

Arnoldo, bere emazte ta alabeak egiñalak egin arren, ez etorren bere konortera.

— Zeiñek daki emen osagille on baten barri? — itandu eban Riktrudisek estu estu.

— Emen, inguruetan, — erantzun eban morroi batek — ez da izango osagillerik: bakotxak egin daroagu geure osasunerako al doguna, asabetatik ikasiriko *miritzi*⁵ ta bedarrakaz; baiña entzutea badot Ezpeletan badala gizonen bat olango gauzetarako asko ikasia.

— Bada artu bidea *antxitxika*⁶ batean, ta arnaseak deutsun artean ez gelditu. Doiala beste bat Amando jaunagana, esan daio la zer gertau jakun, ta etorri al badedi.

Agindu guztiak Riktrudisek emoten zituan, bere ama etzan ezertarako bere. Malko samiñak ixurtuaz eriazen oe ondoan jarri-rik, ezkerreko eskuagaz senarraren bati gogor oratuta, eskumakoa bigun ta laban arpegitik erabilkola — «Arnoldo, Arnoldo neurea — zirautsan — ez nakusu emen zure ondoan? ez dantzudazu? *Eregi*⁷ egizuz obeto zeure begi ederrok, begiratuidazu. Ara emen Riktrudistxo. Ez dakusu au bere? Etzaitte bada mututurik egon,

¹ *Estropozu* egin: behaztopatu, «tropezar».

² (*Ozpin*: vinagre).

³ *Okendu*: (ungüento).

⁴ *Amaraun*: aramu-sare, geun.

⁵ *Miritzi*: (ungüento).

⁶ (*Antxitxika*: arin-aringa).

⁷ *Eregi*: idegi, zabaldu.

neure senar maitea. Lur onetako ondasun guztiak eta neure bizitza bera baiño zure itz bat gurago dot. Esaidazu zerbait, Arnoldo, esaidazu zerbait.»

Olan egon zan andre Luzia oe ondotik aldetu бага luzaroan; baiña Arnoldok *zirkiñik*¹ ez eban egiten ta barbarik gitxiago. Illuntzean orraitino, etxeko andre biak eta Amando gela barruan egozala, zizpuru luze bat emon ta pitin bat begiak eregi zituan. Urreratu jakozan danak, eta iñok itz bat atera baiño lenago esan eban ozta-oztean:

— Maite!

— Zein maite, aitatxo? — itandu eutsan alabeak.

— Zu... ta ama... ta... euskaldunak.

— Eta Jaungoikoa?

— Jaungoikoa... geiago... ez dirudi baiña.

— Nun dozu min, Arnoldo? — esan eutsan emazteak.

— Buruan ta biotzean... biotzean batez bere... estanda egin ete deustan nago.

— Osatuko zara: osagille on baten billa bialdu dogu Josepe otseña.

— Alperrik! Ez naz osatuko... ta nai bere ez. Badakust erio-
tzea... ta ondo etorria izan dedilla. Zeuek ementxe itxi bearra...

Lertuko ez bazan urten bear izan eban gelatik andre Luziak. Alabeak aitagaz berbetan jarraitu eban:

— Autorrera on bat egingo zenduke, aita? Gauza ona da ta...

— Pozik.

— Noiz gura dozu?

— Zeinbat lenago... obeto.

— Ara emen apezpiko jauna.

Biurtu eban burua gaixoak, esanaz:

— O! Etzaitut lenago ezagutu... Milla esker, Amando jauna: garai onean etorri zara. Ainbeste bidean...

— Arima bati lagunduteagaitik Lurraren azkeneraño joango nintzateke; zuri, neure adiskide ona, zuri lagunduteagaitik onaiño etortea ez da ezer. Geiago egingo neuke ta pozarren...

¹ *Zirkin*: mobimentu.

— Milla esker, jauna, milla esker. Nai dozunean asi geinkez.

Urten eban Riktrudisek gelatik kanpora, ta an gelditu ziran apezpikoa ta Arnoldo bakarrik ordu erdi bat inguruan. Amandok atea eregi ebanean bera ta gaixoa biak egozan negarrez, biak *erakidara*¹ ta Jaungoikoari eskerrak emoten.

Joan zan eliz gizona andik ordubeteko bidean egoan eliza-txora gure Jaunaren billa ta Mendiolakoak gelditu ziran *otsandigoe*² atarako etxea manean nairik. Artu eben naikoa zeregin. Gela barrua zuri-zuri jantzi eben, gizategi edo *mandiota*³ *isats*⁴ ta *izuzkeagaz*⁵ igortzi, goitik eta beraiñoko mailletan olango *ereti*⁶ edo mugaldietarako ondo gorderik egoan *eutaldea*⁷ ipiñi; *zuiñoldeak*⁸ *erratzagaz*⁹ garbitu. Lan guztiak amaitu ta gelatik asita atariraiño-ko argimutilletan kruzailloak iziotu edo biztu orduko, baetorren gure Jauna Mendiolarantz.

O! Zeinbat anditasun, zeinbat *lotoskinde*¹⁰, zeinbat arimako samurtasun egoan Jaunaren etorrera onetan! Ia gaberdia zan; gaua guztiz illuna egoan, truxutsua; euria gogor ta ugari jausten zan, aritz, pago ta gaztaiña zarren orrietan soiñu latz, motel, zarraparradazkoa egiñaz; aizeak, gora ta bera, batera ta bestera erabiltzan zugaztietako adar ta ostroak Egilleari ongietorri on bat emon eragin gura baleutse legez, al eben gisara... ta an eioan gauza guztien Jaubea, ia gizonen *gorte*¹¹ ta laguntasun baga, bide ziorretatik zear, aldatz gora ta aldatz bera; Argitasuna izanik, illunpetan; Izaterik altsuena zala, ezerez dan gauza baten antzera, iñoren eskuan, Berak sorturiko seme argal gaixoaren mingostasunak ezti-

¹ *Erakida*: (conformidad) (*Lar.*)

² *Otsandigoa*: solemnidad) (*Lar.*)

³ *Mandiotia*: areto, gela nagusia (gizategia legez).

⁴ *Isats*: ginarrea, erratza, «escoba».

⁵ *Izuzki*: erratza, ginarrea, «escoba».

⁶ *Ereti*: une, momentu.

⁷ (*Eutaldia*: pieza de lienzo).

⁸ *Zuinolde*: (pieza de escalera abajo).

⁹ *Erratza*: eskoba txikia.

¹⁰ (*Lotoskindea*: poesía) (*Lar.*)

¹¹ (*Gorte*, gordete, euskera da. Emendik dator erdaldunen corte).

tutera. — Amandoren aurretik gizon bat bakarra zan, esku batean argizari amatau edo itzalitako bat eta bestean *zekelezko*¹ lasto moltso biztua zituala. Lasto moltsoa aidean erabilten, gau baltzaren barruan ikaragarrizko *ziamarrak*² egiñaz, ta noizean bein apezpikoaren aurrean ipinten eban, bide zuloetan euriak egin zituan osintxoak ikusirik, alderatu zedin al eban giñoan. *Docebo iniquos vias tuas*, — ziñoan Amandok bere arrenetan jarraiturik, fedebagako euskaldun batzuen etxe aurretik eioala — *et impij ad te convertentur*. Ta etxe atako txakurrak, argia ta oinkadak sosmau zituenean iratzarturik, zaunkaka, zaunkaka erantzuten eutsen Amandoren arrenari, esate donearen kontra *gogarpetu*³ gura balebe legez. *Quoniam si voluisses sacrificium, dedissem utique* — zirautsan aurreratxoago, eskuetan eukan Jaunagan baiño bestetan arretarik ipiñi baga — *holocaustis non delectaberis*. Ta txakurrak, artu eben arloan aspertu eziñik, oso bertan batzuk eta guztiz urriñean beste batzuk zaunkaka zaunkaka ziarduen.

Mendiolara eldu baiño lentxuago Amando ta bere lagunak billatu eben bidean, eurak legez dana bustirik eta basaz bete e toren gizon bat. — Zer da au? Zeiñentzat da? — itandu eban. — Baiña ez eban erantzuarik bear izan, nora joazan ikusi zituanta. Barru guztia irakiten jarri jakon ezagutu ebanean bera Ozinbeltzen zan artean Mendiolako jauregian gertau zana, ta bere aurrean euki baleu orduan Ozinbeltzko mozoloa, eskuetako makkilleagaz ilgo eban.

Pax huic domui, et omnibus habitantibus in ea — esan eban Amandok Arnoldoren gela barrura sartzean. — Gaixoak bere siñismen bizia agertu ta bereala, apezpikoak itandu eutsan:

— Parkatuten deutsezu biotzetik zuri naibagaren bat emon deutsuen guztiai?

— Biotz-biotzetik — erantzun eban oekoak.

— Eta zeuk iñor itzez edo egitez naibagetu badozu, parka eske zaiakoz?

¹ (*Zekela*, *zekalea*, centeno).

² (*Ziamarrak*: dibujos) (*Lar.*)

³ *Gogarpetu*: protestatu (*Lar.*)

— Parka eske naiako. Ta, jauna, neure barruko gogamenak agertuteko itz bi esan gura nituke orain.

— Esaizuz bada.

— Neure bizitza guztian egin ditudan gauza danak onbearrez egin izan ditut, baiña etziran danak onak izango. Entzun daiela orain nire etxeakoak eta nire etxeakoen aotik jakin daiela euskaldunak, orain, eriotzako ate ondoan diñodana: euskaldunak alegiñak egin bear ditue, il arteraiño, euren lurra, euren *ekanduak*¹ eta euren berbete ederra gordeten; arrotza gogorrean badator gogorrean jaurti daiela erritik kanpora; gure arteko gauzetan geuk izan bear dogu nagusi, etxeakoen etxeak izan bear daben senera; lapurrak ostu deuskuena beti da gurea, gizaldiak igarota bere ta geure etxera ekarten saiatu bear dogu; bidezko gauzea da lapurren ondoan bizi dana lapurren bildur ta beti esna bizi izatea; baiña ez da ondo erbestekoari gorrotoa gordetea atzerritarra dala-ko beste baga. Gauza okerra da guri egindako gaiztakeria ez aztutea, naiz eta gaiztakeririk mingarriena izan, niri egin deustena dan legez... Lurbira guztikoai parkatuten deutset, lurbera guztikoai parka eska naiakoe, ta Jaungoikoak parkatu daidala neuri... Ondo esan dot, Amando jauna?

Ain ondo eze zuk emen esan dozuna euskaldun guztiak jakitea ta ikastea gura neuke... Artuizu, neure anai maitea, Jesukristo gure Jaunaren gorputz, odol ta Jaungoikotasun guztia zure sendagarritzat. Berak parkatu daizuzala zure uts egiteak eta eroan zai-zala betiko gozotasunera.

Artu eban Arnoldok gure Jauna, ta gelditu zan ixillik, begiak itxita, eskerrak emoten. Iltzakotzat artu zeitekean, ain egoan zirkiñik bagea, baiña bere biotza iñoiz baiño bizi ta gartsuagoa eukan bere jaunaren aurrean.

Arnoldori bake-bakean itxita, Amando ta lagunak urten eben gelatik kanpora, soiñeko ta oiñetakoak aldatuteko, bearra bere baeuken-ta; ta aldatu ondorean joan ziran sutondora, pizka bat epelduteko usteagaz. An egoan beste gizon bat bere, soiñekoak legortuten. Josepek ekarri eban osagillea zan, ta ziñoanez, Arnol-

dok ez eukan osatuterik. Odolik bere ez eutsan billatu, *tin-tin*¹ edo *bultzadarik*² bere ez, *izaera*³ auldua eukan, ta olango bati Jaungoikoak emon eikeon osasuna, beste lurreko osagarriak ez. Buruko zauria etzan ain andi andia; barruan eukan gatxa, barruan, ta gatx zarra.

— Ta laster amaitu bear dau? — itandu eban Amandok.

— Nire ustez — erantzun eban osagilleak — ez dau ordu beretik iraungo.

— Gora noa ni — esanda — joan zan Amando gaixoaren gelara.

Orduantxe asi zan inkesaka Arnoldo. Arnasarik ezin eban artu, atsedean bat gorputzari ez alde batera ez bestera ezin emon eutsan, burua ezertara⁴ bere ezin eban ondo euki, izerdi larri otza asi jakon.

Amandok azkenengo Orio Donea edo *Sakramentua* emon eutsan:

— Riktrudis — deitu eban gaixoak — ni banoa ta gauzatxo bat esan nai neuskizu zeuri bakarrik. Azkenengoa!

— Esan egidazu, aita, gura dozuna.

— Adalbaldo orrek... iñoiz aitatuko baleutsu ezer... baietz esan eikeozu. Ona da bera ta... norbait bear izan ezker... bera baiño oberik ez dozu billatuko... euskaldunen artean bere. Ori da nire guraria.

— Neurea bere bai, aitatxo.

— Bai? Noiztik?

— Ikusi nebanetik, jauna.

— Pozik ilten naz... Jaungoikoak bedeinkatu zaiezala biok... nik legez... Egizue bakea, ta euskaldunen ona... maite ditut eta!...

Azkenengo berbak izan ziran. Artu eban eskuetan kurutze donea, ozta-ozta ezpanetaraiño eroan eban, ta aoa zabalik, Amandok berba onak esanaz parkamena emoten eutsala, il zan euskaldun bikain *argidotarra*⁵...

¹ (*Tintina*: pulso).

² (*Bultzadea*: pulso).

³ (*Izaera*: naturaleza).

⁴ Ezertara: «Lertara» dakar idazleak.

⁵ *Argidotarra*: adoretua, kementsua.

¹ *Ekandu*: ohitura, usadio.

Urrengo goizean ikusi eben Lope auzokoak, aginduren batzuk egitera eioala, erdi lotan, narras, nagi ta gogo barik eta itandu eutsen:

— Zelan dago, Lope, ugazaba?

— Il da.

— Il? Ain laster? Zer izan dau bada?

— Ptxe... Il bearra. Ego aizeak baiño urte geiago eukan-ta...



XI

OTSOA TA ARTZANORA¹

Ez dot esan ondiño zelango arrerea egin eutsen Pedro Mari zarrari Ozinbeltzera egin eban bigarrenko osterera edo joan-etorrian. Egia da, Riktrudisek bere, ez eutsan otseiñari itaunerarik egin. Zertarako? Gertau ziranak gertau ezkeron on guztiak berandukoak izango ziran. Baiña irakurlea zerbait jakinguratan egon leiteke ta ipiñiko dot emen Portun ta Pedro Marik ze berba egin zituen.

Au Ozinbeltzera eldu zanean atari ondoan jarrita egoan beste, ta asi ziran biak era onetako izketan:

— Zek zakarz onaiño, Pedro Mari?

— Ez neure gogoak beintzat.

— Orduan premiñaren batek.

— Premiña ori zelan dan.

— Gogo barik eta premiña andi baga zatoz beraz? Ta zer dakartzu Mendiolako altzo-txakurra?

— Portun, zein zaran ta zertara etorri nazan badakit. Aizkora barik ez dot etxetik urten, ta ondiño, urteak izan arren, beste baten indarrakaz nire besoa neurtu leiteke. Altzo-txakurrak ezagututen ditut nik, euren bizitza guztian emakumeen eregu² billa dabilzianak, urruingarriak³ dira Portun, ta neure biotz guztiagaz urruindu-

¹ (*Artzanora*: mastín).

² *Eregu*: (mimo).

³ *Urruingarri*: arbuigarri, gaitzesgarri, nardagarri (*Lar.*)

ten ditut. Ni txakurra izan banintz, artzanora izango nintzan, otso guztiai ortzak erakusteagaitik.

— Ogipekoen ondar zikiña, gizon zirzillen billuztasuna, otsein doillorren zantarkeria. Ozinbeltzeko seme bategaz berbetan zagozana etzaitz aztu: esaidazu laster esan bear dozuna, ta kendu zaitz nire aurretik tximistak baiño ariñago, neure txakurren agiñartean amaitu gura ez badozu zeure bizitza txakurra.

— Ozinbeltzeko seme andi, leiñargi ta gozoa, etzaitz ain laster aserratu, ta entzuidazu apur batean: Pedro Mari morroia, gizona dan aldetik, beste edozein aiña bada; euskalduna dan aldetik, edozein euskaldun beste; ta kristiñaua dan aldetik, kristiñau ez diranak baiño geiago. Zuk agindu deutzazun txakurkeria ez leuskeo beste iñok Euskalerrian aginduko, baiña zuk agindu ta egiteko bere gauza tint andia ez da, andiangoak egin oi dituzu... Etzaitz aserratu egiak entzunagaitik, etzaitz jagi Riktrudisek diñotsuna aitu бага. Neuk bere beste gauzetarako baiño, burruka on bat egiteko gogo obea ekarri dot, eta alan bere, ez dot burrukarik nai, neure etxekoandratxoak gura ez dabelako.

Bere eskuetan Pedro Mari itoteko gogo amorratu bat eukan Portunek, eta ezbearren bat egiteko zorian egoan; baiña Riktrudisen izena entzun ebaneko, otsoa okela barrira joaten dan antzera, Mendiolako alabeagana gogoa ta biotza joan jakozan. Bat-batera otu jakon etzala baldin egia zuzena izango Lope astoak esan eutsana, ta ez ebalta ondo egin berak, Portunek, Mendiolako nagusiaren kontra ain azkar ekitea. Alan da guzti bere ez eban barruko artega ta *bakaldarik*¹ erakutsi gura, ta gitxiago bere buru arroa Pedro Mariren aurrean jatsi, ta len baiño biguntxoago itz egiñaz, erantzun eutsan:

— Riktrudis! Riktrudis! Ori da bada kristiñauen artean daukazuen usain gozozko lorea, lora bakarra: beragaitik bizi zara² arrotuta kristiñau danok, batez bere Mendiolakook eta mendeko morroi zakarrok; zuen arrotasunean, euskaldunen nagusiak diru-

¹ *Bakalda*: artega, (inquiétude).

² Bizi zara: «*zari*» zentzun pluralaz darabil «*zara*» pluraleko forma zaharra. Arkaismo hau ez dogu aldatu.

dizue. Eskerrak emon eikeozuz berari, gaur emendik azurrak osorik eroaten badituzu. Zuek ezeze geuk bere Riktrudisgaitik zerbait egingo genduke.

— Ez da ezagun.

— Ez dala ezagun?

— Maite bazendu, bere ona gura bazendu¹, zure egitadeok beste era batekoak izango litzatekez; gaur eragiten deutzazun beste negar ez zeunskio eragingo.

— Zer diñozu ostera ogipeko lapur, ordi, guzurti, lotsagabea?

— Egia nik beti, min emoten badeutsu bere. Zu zara guzurtia.

Zuk zabaldu dituzu emen guzurak Euskalerria guztian, zeuk daki zu zergaitik, eta nik bere bai. Zuk esan dozu, guzurra dala jakinda, Arnaldo nire ugazaba, euskaldunik onena, garbiena, leiñargiena ta zintzoena, Euskal Mendiagaitik geien egin daben gizona, erri-saltzaille bat dala; zuk esan dozu, bere alabea ezkontuteagaitik, prankotarraren alde biurtu dala; zuk eragin deutzazu negar samiña Riktrudisi; zuk egin dozu euskaldunen artean bestek egingo ez leukeana; zuk, *salkinde*², *billau*³, pizti madarikatu orrek.

Pedro Marik, azkenengo berbak, dana suturik esan zituan; buruaren erdira etorzan arrikadak legez artu zituan besteak. Ez eban uste bere egitada gaiztoa ain laster jakingo zanik, eta Pedro Mariren aotik alango *salaketa*⁴ gogorra aitu ebanean, adore бага gelditu zan. Ez eukan Portunek Pedro Mariren ardurarik. Makilka *zuzitu*⁵ edo miña errotik kendu ezkerro, amaiturik eukan arenganako ipuiña; baiña Riktrudisegaz eukazan beste ipuin batzuk. Zer esango eban Riktrudisek, bere aitagaitik alango gauzak asmau zituana Portun zala jakin ebanean? Zelan maitetu eikean orain, lenago, bear bada, maitetuko eban Portun? Ori zan, ori, Ozinbelzkoak adimenean eukan ipuiña. Riktrudisen aurrean zuritu bear eban bere burua Portunek, al eban giñoan. Zeiñen bitartez? Pedro

¹ Bazendu: «bazenduke» dakar.

² *Salkinde*: traidore (*Lar.*)

³ (*Billau*: villano).

⁴ *Salaketa*: (acusación).

⁵ *Zuzitu*: apurtu, hautsi, birrindu.

Mariren bitartez. Ez egoan beste biderik. Baiña olango gogarterik ez balerabil legez, *beregandetasun*¹ andi bategaz, esan eban:

— Oraintxe artean ez deutsut igarri. *Zoratuta*² zagoz, gizagai-xoori. Barre gurea emoten deustazu.

— Benetan daukazu barregurea? Riktrudisen negarrak emongo deustue, nire zorotasunak ez, badakizu zoroa ez nagona-ta.

— Zagoz ixilik, gizontxo; bestela, zeure zorotasun ta guzti, amaituko zaitut. Riktrudis negarrez badago, orretarako *erakaia*³ norbaitek emongo eutsan, nik ez.

— Ba, zeuk, zeuk! Zure miñak alperrik esaten dau ezetz, zeure barruak baietz diardutsunean.

— Nok esan deutsu zuri olango ipuin okerra, otsein lotsaba-gea?

— Okerra da beraz egin dozuna? Ondo da zeuk ezagututea. Garbiro erantzungo deutsut. Lenengo neure biotzak esan deust, gero Riktrudisen aoak, urrengo...

— Ta Riktrudisek bere olango guzurak siñistuten ditu?

— Guzurak ez, egiak bai. Riktrudisek eta bere etxeko danak onezkero.

— Ta nik esango baneuskizu...

— Alper-alperrik guztia. Ez neuskizu siñistuko; ezta, ezta, Jaungoiko egiazkoaren izenean esango bazendu bere, zuk ez dozu esango baiña. Guzur ain ikaragarriak asmau ta esan dituanak, asmau ta esango lituke andiagoak, lengoak estalduteagaitik.

Ateak itxita eukazan Portunek. Pedro Mariren bitartez ezin zeikeon jakin eragin Riktrudisi, etzala bera, Portun, erruduna. Iñok ez eutsan siñistuko. *Apetau*⁴ jakon orduan beste bide batetik astea, bere barruko naigabeak esanaz. Gisa orretan baldin obeto urten eikean. Pedro Marik Riktrudisi zerbait esan ezkerro, erruki apurren bat artuko eutsan onek. Uste au ontzat arturik, asi zan esaten:

¹ (*Beregandetasun*: serenidad, tranquilidad).

² (*Erotuta, zoratuta*).

³ (*Erakai*: motivo) (*Lar.*)

⁴ *Apetau*: «ocurrir»; (ocurriosele)

— Egin daigun, Pedro Mari, nire kontra esan dituzun gauzak egiak dirala...

— Ee?

— Itxidazu pizka baten, entzuidazu, berbetarako gogoa etorri jat eta. Nik ez dot esaten neu nazana. Ori ezin neike esan. Diñodan gauzea da, ni baldin banitz, ez ete neukaken orretarako erakai edo arrazoirik.

— Zer? Nondik? Zelan? Oraintxe bai nagola ni zeu zoratu zara-ta.

— Entzuidazu geiago ta obeto. Zuk ondo dakizun legez, urteetan dot maite, ezin geiagoan, Mendiolako alabea; urteak igaro ditut bere arpegia ezin ikusirik, izten ez eustelako; ez dot iñoiz bere aotik esandako berba bat entzun, ta besteren bitartez bere ez, lenagoko bat artean. Zeu etorri ziñatazan, ta Riktrudisegaitik ezer egin gura baneban amatatu neiala gudarako sua esan zeunstan, ta amatau neban edo ez neutsan geiago surik emon beintzat. Riktrudisegaitik egin neban ori, Pedro Mari, iruntsialak iruntsita! Poztu nintzan orduan, orditu nintzan, pozez zoratu jatan, orduantxe bai zoratu jatala, ta neure zorotasunean bialdu neutsazan... baiña ez, ez dakit zer esaten dodan... Gozotasunez ta itxaropenez beterik nengoala, jakiten dot prankotar bat izan dala or. Arnoldok eta alabeak ikusi dabela, arrera on bat egin deutsela, Riktrudisek begi onak ipiñi deutzazala prankotarrari.

— Guzurra!

— Guzurra da? Izan leiteke. Neuk bere naiago dot guzurra izan dedin. Baiña nik egitzat artu neban orduan, erreten jarri jatan barru guztia ta... Zer egingo zenduke zeuk, Pedro Mari, olango es-tualdi batean?

— Nik eta edonok, buru apur bat daukan gizona bada, jakin lenengo ondo, egiak ete diran esaten dituen albisteak, jakin gero norbere izena Mendiolan ondo entzuna bada edo ez, batez bere bertako alabearen aldetik; eta azkenean, igarri ezkerro iñok ezin dabela ikusi norbera etxe atan, Mendiolako inguruetatik alde egin betiko, iñori buruko miñik emon barik, norbere buruko miñak nonbaiten kentzera. Orixe egingo eban zu izan ezik beste edozeiñek.

— Eta norbere itxaropen gozoari betiko itxi? Lenago il, lena-

go lurbira guztia erre ta kiskaldu. Ez dot nik olango *erakidarik*¹ ikasi.

— Kristinaua etzaralako. Kristinaua baziña, jakingo zenduke eroapena zer dan, kurutzea maitetuko zenduke, ta lurreko zoriontasuna trukauko zenduke zerukoagaitik.

— Bai e? Trukaizu zeuk gura badozu, nik ez daukat truketa-ko asmorik.

— Ainbat gaiztoago zeuretzat. Emen ez dozuz bein bere zeure gurariak beteko, ta betikotasun ona galduko dozu.

— Itxi daiogun gauza orri, ta esaidazu zetara etorri zaran, ta amaitu daigun bein.

— Riktrudisen aldetik etorri naz esatera orain egin dozun dongakeria zuzendu daizula lenbait len, iñoiz berak arpegira begirutea gura badozu.

— Lenago bere olango gauza bat esan zeunstan, ta nik egitekorik asko egin arren, zelan erantzun deust niri Riktrudisek?

— Zer deutsu gero zeuri zor berak? Esaizu zenbat dan alogera, ta emongo jatzu, alogera bear badozu.

— Ez diñot nik ori, gizon zital gorria. Nire alogera bere biotza litzake. Ez dakit nik niretzat izango bada edo ez, baiña, dana dala, Riktrudisi poztasun pizka bat emoteagaitik egiñalak egingo ditut nik.

— Oraintxe bai emoten deustazula niri barregurea zeuk. Otsoa legez asi zatxataz lenengoan, ta orain azeria legez amaituten dozu gure berbetaldia. Bildots otzana gura zenduke zeure atzaparren artean? Ez dozu gitxi uste zeuretzat dagola uste badozu. Agur.

— Oñaztarri batek ilgo al zaitu ba bidean?

— Eskerrik asko. Beste orrenbeste opa deustut, ez da ondo baiña.

Pedro Mari eioala — «galduko neuke nik ori bidean» ziñoan ortz artean Portunek — baiña ez jatorkit ondo, nigaz euki daben izketea Riktrudisi esan bear deusta-ta.

Pedro Marik oster, «zer esan dot nik? — esan eban aopean. — Jesus, Maria ta Josepe. Ori baiño obeak ilten dira baiña, neure esaera dongea Jaungoikoak parkatu daidala.»

¹ *Erakida*: (conformidad) (*Lar.*)



XII

IL GAUA¹

Baetorren gizona ta emakumea ugari Mendiolara, Arnaldo il ta urrengo illuntzean. Aideak, auzoak, gelditu jakozan adiskide apurrak, eta baita arerioetarikoen batzuk bere, sartu ziran jauregi atako atetik barrura, eriotzearen aurrean oi dan ixiltasun ta begiruneagaz. Eriotzea zan etxe atako nagusi, ta bera esnatuteko bil-durrean legez, beatzen gaiñean igoten eben goiko egotokira gizon ta emakume danak, itz bat alkarri esan baga. — Estaldu ziran aulki guztiak, bete zan mandiota. Erdi-erdian, aritz olakaz antxinetan egindako mai andi baten gaiñean ikusten zan Arnoldoren gorpua; Riktrudisek azkenengo josi eban soiñeko barri bategaz jantzirik; bizar ta ule luze zuri ederrak ondo garbitu ta orraztuak agertuten ziran. Bularraren gaiñean tolosturik eukazan eskuak, eta bien tar-tean zurezko kurutzetxo bat, kristiñautasunaren agergarritzat. Lau argi-mutilletan egozan lau argi ta lurrezko ontzitxo batean ur be-deinkatua, eriñotz zati bat barruan ebala.

Il gaua asi zan. Amando, beste elizgizon lagun bi alboetatik zituala, sartu zan gizategian eliz soiñekoakaz jantzirik; eta *Ne recorderis peccata mea, Domine* — asi zan esaten latiñez. *Dum ve-*

¹ (Ataltxo au neure RIKTRUDIS-en ipiñiko dodan edo ez dodan abagune* andian egon naz gogartuten. Villoslada jaunaren *Amaya* izeneko liburu ederra edo Araquistain jaunaren *Tradiciones vasco-cántabras* deritxona, edo biak irakurri dituanari nire *Il gaua* guztizko txiro* ta narrasa irudituko jako; baiña ez neritxan ondo zerbait ez ipinteari, ta emen dago atal au, dana dan langoa.)

* (*Abagune*: tiempo).

* (*Txiro*: pobre).

neris iudicare saeculum per ignem—erantzun eutsen alboeta-koak. Au da, euskeraz: «Lurbirakoai gogortadeko epai bat emotera zatozenez, nire erru, gaiztakeri ta utsegiteakaz etzaite gomutau, Jauna.» «Nire oinkada guztiak zure aurrean erabilli egizuz, Jauna»—jarraitu eban apezpikoak.—«Betiko desneke ta atsedena emon egiozu, Jauna, ta betiko argitasunak argi egin daiola.» «Jauna, guzaz errukitu zaite.» «Jesukristo guzaz errukitu zaite.» «Jauna, guzaz errukitu zaite.» «Jesukristo, guzaz errukitu zaite.» «Jauna, guzaz errukitu zaite.» «*Pater noster*»—esatean—Amandok astindu eban illaren gaiñean ur bedeinkatuko eriñotza ta gizatigiko guztiak, ixil-ixillean, *Zeruetan zagozan gure Aita* arren egiten eben bitartean, eriñotzetik jausiriko ur bedeinkatuaren tanta bat gelditu zan, *altiste*¹ eder baten irudira, Arnoldok eskuetan eukan kurutzearen beso batetik dindilizka, ta jausi ta zabaldu zan gero illaren soiñeko gaiñean, zerutik datozen esker on, apainduri ta aberastasanak gure arima barruetan zabaltzen diran antzera.

Amandok, arrenak esan ta bereala, berbaldi samur bat egin eban gizonaren ezerezaren gaiñean. Erakutsi eban argiro, zein neurtuak egozan gizonaren egunak, eta zenbat doekabetasunez beteak;² zein utsak ziran gure orduak, goizean eze ta eder izanik, eguerdi ostean zimel ta gabeen illik gelditzen diran lorenak legez, edo gure aurrean beti igeska doan keriza baten senean, edo beinbere eraldi ta tentun batean ezin gelditu dan izatearen itxuran.³ Jaso eban goren gorengo mailletaraiño Arnoldoren leiñargitasun ta fede ona; ta amaitu eban esanaz, alangoak nai litzatezkeala⁴ euskaldunak errien osasunerako.

Amandok azkenengo itzak esan zituanean, urten eban danen erdira andre alargunak, joan zan senarraren gorputza egoan

¹ *Altiste*: perla) (*Lar.*)

² *Homo natus de muliere, breui vivens tempore, repletur multis miseriis.* (*Job.*, Lect. V.)

³ *Qui quasi flos egreditur et conteritur, et fugit velut umbra, et numquam in eodem statu permanet.* (*Job.*, Lect. V.)

⁴ *Litzatezkeala*: «litzatekezala» bizkaieraz.

tokiraiño, begiratu eutsan artez-arte arpegira, laztan bat emon eutsan, ta era onetan asi eban bere eresi neurtea, astiro:

«Zu joan zara zorionera,
Zu joan zara, ta ni ez!
Zure illoian laster naukazu
Ilda ni bere, zu legez!

Orma zarrean nengoan untza,
Jausi naz orma zarragaz:
Bere azpian eguzki barik
Ni azkar igartuko naz.

Bere barruko dolamen, errenkura edo inkesa bat legez, guttiz erraz ta berezkoa zan alargunaren asierea; baiña gogoratu jakon, ekanduak aginduten ebanez, aztertu bear zala zelan izan zan Arnoldoren eriotzea, ta argitaratu bear zituala ekizan albisteak, eta al ebanik gitxien esateko ustean jarraitu eban:

Zeinek jan deutzaz, orma zarrari,
Zeiñek jan deutzaz azpiak?
Ez prankotarren *balenka*¹ motzak
Ezpada euskaldun piztiak.

Auñemendi! Esna egon zaite!
Piztiak dabilz auzoan,
Ta kanpokoak gitxi dirala
Piztiak zeure kolkoan!

Auñemendi! Pizti dongea
Biotza jaten neuk daukot...
Eta alan bere, senarra legez,
Nik parkatuaz il nai dot.

Jan zuk, piztia, jan zuk biotza,
Ta ni lenbaitlen amaitu:
Nire biotzak, len ezpaziñan,
Euskaldun egingo zaitu.

¹ *Balenka*: (palanca).

Euskalduna ta leiñargitsua,
Piztikerien etsaia,
Neure Jesusen legezalea
Gizon guztien anaia.»

Mugidalde andi bat sortu eben andre Luziaren berbak *bilki-dako*¹ gizon ta emakumeen artean. Danak ekien zergaitik zan piztien ipuiña, ta guztiak ikusi eben alargunaren parkaeran biotz andi ta bene-benetako euskaldun kristiñauarena. Asi ziran murmur bata besteari zerbait esaten, baiña danak ixildu zituan Riktrudisen jagiereak. Ederra ederren artean, beste bat ez legezkoa zintzotasunean, biotzik samurrenaren jaubea, barbarik gozonen esanlea, argia ta ona, gizategiko guztiakandik izan zan ondo ta errukiz begiratua Riktrudis umezurtza. Joan zan gorputz illa egoan tokiraiño ta asi zan esaten².

«Aita bat neukan nik lurrean.

»Maite ninduan, egunak eguzkia maitetuten daben gisara, gauak zeruko izarrak maite dituan antzera.

»Nire aita il da? Ez, nire aita ez da il. Ara emen bere gorputza arimea Jaungoikoagan dago, bata besteagandik urte batzuetarako aldendu dira.

»Lurreko gizon gaiztoak il gura izan badabe, ez dira gomutau, gizagaixoak, arimea ezilkorra dala.

»Umezurtz errukari bat egiñik gelditu ete naz? Ez, zeruetan daukadaz Aita Arnoldo ta Aita Jaungoikoa.

»Ez deuste bada, gizon dongeak bapere kalterik ekarri. Negargarrizko leku onetan malko batzuk ixuriko ditut; baiña zerutik legortuko deustez malkoak aita biak.

»Ez daukat bada zer iñori parkatu; baiña baldin baneuka, poz-pozik eta arima guztiagaz parkatuko neuskio edozeiñi.

»Neure Aitak eta neure Amak alan erakutsi deuste: alan agintzen deust neure Jaungoikoak.»

¹ *Bilkida*: Batzar, bilera (*Lar.*)

² (Berkak zelan neurtu zituan ez neutsan gogoan artu. Orregaitik ipinten ditut emen neurtu baga).

Riktrudisek amaitu ebanean, bere eresi ederto esanaren soiñua aidean gelditu zan, zidarrezko eskilla baten durundia legez, belarrietan *gili gili* gozo bat egiten ebala.

— Ze bigun ta ezitsu agertzen dituan aingerutxu orrek Jesusen legekoko erakutsiak eta bere biotzeko gurari doneak! — zirautsan atsotxu batek alboko lagun bati. — Naiago neban bere jardunak geiago iraun baleu, arimarako argi barri bat emoten deust eta.

Zein zan *Il gauan* urrengo berba egin bear ebana? Aideak, Mendiolan sartu ziranean, gorrotorako egozan, ta zer esan ez ekien jauregikoen parkameneko eresiak entzun zituen ezkeroko, etsai apurrak lotsaturik gelditu ziran, iñok ez eukan geiago itz egiteko usterik. «Toki!» — esaten dau onetan, esku-makilleagaz beea jota, zutiñik egozan gizonen artetik erdira sartu nai eban gizon zar batek. — «Toki! neu naz orain, senitartekorik lenago ez badago.» Peru padarra zan. Joan zan gorputz illaren ondora, esku biak ipiñi zituan makillan, begiak jaso zituan goruntz, ta asi eban itz neurtuetan bere eresia.

Nik ez dakit ze neurritan erestu eban, baiña esan zituan gauzen mamiña au da:

«Ai, Arnoldo, Arnoldo! Nok esango eban zure illoi aurrean etxeko emakumeak bakarrik izango zenduzala ereslari?»

»Gizonik gizonena, gudalaririk argi ta sutsuena zu izan zara Euskalerrian.

»Lekobide Bizkaiko gizonen Jaun andiak ez eban bere bu-ruan zuk beste argitasun ta besoetan zuk beste indar.

»Aitor il zanetik ona, ez deutsa iñok nire Sorterriari zuk beste ondo egiterik emon.

»Ta ez dakust emen euskaldun agintari bat bakarra, lurperatu zaiezan baiño lenago zuri esker on bat emoteko.

»Kristiñau bizi ta kristiñau il zara; ondo datoz bada zure ondoan kristiñauen parkameneko eresiak.

»Baiña baita bere bizi izan zara euskaldun, ta euskaldun il, ta ez dira txarto etorriko Sorterriaren eresi eskertsuak.

»Neuk esango deutsudaz, antxiñetako lagun zar maitegarria. Neure txabolatik onaraiño ez naz bestetara etorri...»

Atsedentxu bat egin eban emen, amasea artu eta begietatik

bera etorkozan malko ariak legortuteko, ta gero, gaztetako egunetaraño igonaz, jarraitu eban:

»Mendian jaiο ziñan ta mendian bizi mendizale, menditarrak ondamuz *aspertu*¹ zaituen artean.

»Zu ta ni mutikotxoak giñanean, alkarregaz ibili oi giñan basoan, arrotzak orporik ipiñi ez daben toki itzaletan.

»Odei aldean erroiak *kras-kras*, zugaztietako adarrik goren-goetan miruak dantzari, arkaitz zuloetako sasi baltz tartean otso-ren bat marruaz. Ez genduan orduan beste gauzarik ikusi ta entzuten.

»Gizondu ziñan gero, ta zure aurrean otsoak bildurrez igesi joaten ziran; ta erroi, *buzoka*² ta miruak sarri ikusten genduzan goietatik jasten zuk ildako euskal etsaien aragi gordiña jatera.

»Euskalerriaren kontra etozan bakotxean, zenbat prankotar amaitu zenduzan! Zenbati, aizkorakada baten, kendu zeuntsen arnasea!

»Esan daiela Egurraldeko baso zabalak.

»An ikusi ziran aurrez-aurre, alde batetik ule gorridun gizon andiak, Ausarditsua³ burutzat ebela, bestetik Lauburutarrak. Arnoldo menditarra agintarizat arturik.

»A, zer ekiña! Gogorrek dira Rin ibai ondotik datoza guda-riak, gogorrek euskal mendietako gizon abarkadunak. Zein geldituko da garailari?

»Batzuk gure lurra irabazi ta azpiratuteko gogoak dakarz; besteak, euren erri maitea osorik eta lokarri baga gordeteko gura-riak darabilz.

»A, zer ekiña! A, zer aizkora-otsa! A, zer oiua! A, zer irrin-tziak! «Aurrera» — deadar egiten dabe gureak — «aurrera muti-llak.»

¹ *Aspertu*: (vengar).

² *Buzoka, buzuka*: (buitre).

³ Grimm-en *Deutsche Gramatik** deritxon liburuak ei diñoanez Teobaldoren izenak *errikoen artean ausarditsua* esan gura ei dau. (Cantu, *Historia Universal*, III, 90.)

* Gottinga. 1822.

»Eta aurrera doaz, aurrera gizon illen gaiñetik. Eurena da garaipena. Zeiñek gelditu leike oñastarri bat bere bidean?...

»Bizirik gelditu diran prankotarrak Adurren ertzeraño joan dira igesi. An dagoz euren *deseigoa*¹ sinistu eziñik.

»Euskaldunak olango garaipenik ez dabe ikusi egundaiño, agintariari eskerrak.

»Berak bota ditu azpira prankotarrak sendoenak, berak sartu deutse biotzetaraiño ikarea, bere deadarrak zolitu dauz euskaldunen besoak.

»Aidean dakarre agintaria menditarrak beren besoetan, baiña zizpuruz ta negarrez dator, bere bizian lenengoz. Seme galant bi galdu jakoz Egurraldeko basoan...

»Ai, Arnoldo, Arnoldo! Agintaria zu ziñan. ¿Nok esango eban orduan zure illoiaren aurrean etxeko emakumeak bakarrik izango zenduzala ereslari?

»Bazaut eta ezin sinistu neike. Non dira euskaldun gizon andiak? Semeak il jatzuzan, lagunak ixillik dagoz, arerioak pozarren. Zeure mendiak etzazauz, Arnoldo.

»Baiña bai Zeruak. Euskaldun ona ta kristiñau benetakoa izan zara. Euskaldunak esker gaiztoagaz erantzun deusue, zeruak betiko zorionean ipiñiko zaitu.

»Euskaldun ona baiño kristiñau benetakoa izatea askozaz obea da.»

Padarrak bere eresiari azkena emon ta bereala, Pedro Marik esan eban beste bat, guztizko samurra, Arnoldoren seme biak Egurraldetik berak ekarri ta kurutze baten azpian ipiñi zituala gomutaratuaz.

Ilgaua amaitu zan, Arnoldoren arimeagaitik egin ziran beste arren batzuk, eta bata batera ta bestea bestera alde egin eben Mendiolako gizon ta emakumeak, banaka biñaka, naibagez, lotsaz ta errukiz beterik.

Goizalderako etxeoak bakarrik gelditu ziran ia: morroiak lotan, aideak noizean bein zizpuruka, ta andre Luzia ta alabea negar barrietan, euren bakartadea geroago ta obeto ezagututen ebelako.

¹ *Deseigoa*: (derrota) (Lar.)

igar - ihar - seco



XIII

BAKARTADEAN

Igaro zan udea. Udazkena etorri zan bere aize otz, euri zaparrada ta egun laburrakaz. Zugaztietako orriak, beren ezadea edo ezetasuna galdurik, oritu ziran lenengo, erdi zuritu gero; ta azkenarako jausi ziran, batzuk berekauz¹, euren burua igarra ikusita lotsatu balira legez; ta beste batzuk, oraindiño adarren gainean bizi gura ebenak, kendu zituan nai ta nai ez beren tokietatik aizearen indarrak, eroan ebazan bide luzean gora-goraka bildurgarizko jira-bira neketsuetan, ta bota zituan gero bazterren baten, an, ezkutan amaitu eien euren bizitza ziztrin² mengela³.

Ta bazter sokoetan egozan alkarturik orri mueta asko, muna azpietan, ate osteetan, erreka ondoetan; pagodikoak, gaztaiñerikoak, intxaurdikoak; zumardi, lizardi ta ariztietan jaiok, sasi larretan bizi izandakoakaz batera. Danak batu zituan arerio batek: aizeak; danak ziran aizearen bildur. Soiñu pizka bat entzun orduko ikaraz egozan: guda batetik azpiratuta gero iges egindakoak zirudien.

Basoetako zugazti danak, andi ta txiki, — piño, arte, eriñotz, kaudan, gorozti ta giñarren batzuk izan ezik — soil-soil ta azur utsetan gelditu ziran; eguzkiari indarra gitxitu jakon; gabak luzatu zituan bere orduak, errekek ugaritu zituen euren urak; eta laiñoak

¹ Berekauz: berez.

² Ziztrin: txatxar, labur.

³ Mengel: gauza iragankorra, galkorra.

goialdeak artuta gero, mendi egaletatik bera bialtzen zituan zati batzuk, baratz-baratz... → *lentamente*

Zein damorrigarria egoan Sortitza!¹ Zein illuna Mendiolako jauregia! Etzan jarten iñor Arnaldo zarra ugazabarentzat gordeta euki oi zan sukaldeko aulki zabalean, andre Luziaren irudi agurgarria etzan iñondik agiri, biak il ziran.

Biak? Andre Luzia bere bai? Noiz ta zelan? Goiz batean, bere gelatik urten ta, Riktrudis Amarengana egun onak eta laztan bat emoteko usteagaz sartu zanean, ilda billatu eban, arpegi gozotsuagaz, Arnoldok eriotzako orduan euki eban kurutzetxo bere ezpanen gainean eukala. Ama Mariaren Jaiotzako eguna zan,² Iraillaren zortzigarrengo; aurreragoko egunean egin eben Amalabak autorketa on bat Amandogaz, ta goiz atan Gure Jauna artzeko ustean ziran; baiña Jaungoikoak gura izan eban, askoren ustez, andre Luzia zeruetara eroan, arpegiz arpegi Egillea, ta zeruko Erregiñaren omenean³ egiten ziran jaialdi ederrak Arnaldo ta semeen ondoan jarririk ikusi eizan. *que orera*

Untza ezin bada bizi, orma zarra jausi zan ezkerro, arri azpian, ausita, zapalduta, eguzki barik, gorutz burua jasoteko zeri eldurik ez eukala! An egoan orma barria, Riktrudis, laguntasuna emoteko gogoagaz; baiña landara zar apurtuak erro⁴ barririk botateko indarrik ez eukan, ta il bear! Zugatzen orriak igartzen asi ordurako andre Luzia igartu zan.

¹ Sortitz: (naturaleza) (Lar.)

² (Kristoren Elizeak Maria Donearen Jaiotzako egun andia ordurako ospatuten* ebala uste dot. Ospatuten dabe orain dala amabi eunkida ta geiago Erromaren agindupetik aldendu ziran Greziatar ta beste Sortaldeko kristiñauak, eta alden du ziran ezkerro ez dabe gure Elizearen beste jairik artu. Gaiñera, Sergio Aita Donearen (Santuaren) ta beste batzuen liburuetatik atera leike, zein zarra dan Mariaren jaioteguna ospatutea).

* (Ospatu: celebrar).

³ (Omen: gloria).

⁴ Erro: (raiz).

Ta bera lurretik Zerura joan zanean,¹ gelditu zan Mendiolan Riktrudis, ainbeste ondasunen jaube, ainbeste morroiren etxeko-andre; baiña bakarrik! Erregiña bat legez zan, baiña erregin ume-zurtza! Baeukan laguntasun on bat Pedro Marigaz, *esondari*² jakintsu bat Amandogaz, baiña gurasorik ez! Auzokoak eta erritar-
rrak erruki eben, bere gurasoen aideak maite; baiña erritarren errukiak negargurea emoten eutsan, ta aideen maitetasunak gurasoenak lango eztitasunik ez eukan. Ai! «Aita» etxea bete-beteko izena da, ta «Ama» esatean barriz ao guztia ta anima dana gozozorik geldituten dira. Ta Riktrudisek, aita il jakon ezkerro, etxea utsik billatuten eban; ama il zanetik aurrera, otza, legorra ta beaz-tunez bete gelditu jakon arimea.

An billatuten zituan, jauregiko bazterretan, Aitaren ta Amaren gomutagarriak: aizkorak, geziak, *dardarak*³, makillak; soiñekoak, oiñetakoak, oeak; goruak, ontziak eta tresnak, baiña gurasoen dei bat egundo aitu ezin, euren jarrilekuak beti utsik. Baeban *erakida*⁴ ona, baeukan beste gauza guztien gaiñetiko Jaunaren maitetasuna, Bere gurari donea bete gura eban; baiña, beste jaiogan guztiok legez, biotzaren erdian atsakabe andiak eukazan.

Aitarik ez, amarik ez, ta ames bigun bat bere ez! Nora botako zituan bere begiak? Izan zan une bat ames gozoetan orduak joan jakozana. Ezagutu eban bere biotz guztia beteko eutsan gizon bat, ona, arteza, zintzoa iritxiz. Gizon orrek etzala beragaz, Riktrudise-gaz, aztuko esan ei eban; baiña joan zan erdal errira, erdal erikoa zan ta, ta geiago aren barririk euskaldunen artean etzan jakin. Ikaratu egin ete zan Auñemendira geiago etorten, Fortunegaz bere burua topoz topo egin ez eian? Ai! Ez, Adalbaldo etzan ikarakorra. Aztu egin ete zan? «Bai, aztu» — ziñoan beretzat Riktrudisek, etxe-

tik urreko zelai batean, gogamen illunakaz, batera ta bestera ebil-lela. — «Zelan ez ba? Ain gaztea, ain ederra, ain aberatsa, kondeen ta lenapezpikoen anaia, erregeen laguna, jauregirik apainduenetan bizi dan gizona, zelan gomutau leiteke luzaroon mendiko alaba *zirzil*¹ bategaz? Ta ni ez naz aztu, ni ezin aztu neiteke, egun baten bakarrik ikusi neban baiña! A, ze ameslaria izan nazan! Zenbat bidar egin dot ames Adalbaldogaz ondo izango nintzala; etxadi on bat sortuko genduala bioen artean; gauza on ugariak egingo genduzala biok gure mendian ta prankotarraren errietan; Jesusi zor deusagun maitetasuna erakusten biziko giñala beti. Amesak ziran danak! Astiune luze batek erakutsi deust, amesak eta neure arrokeriaren alaba *dongek* zirala. — Ta alpe-
rrrik gura dot neure burua zuritu, norbaitek amesetan lagundu deustala gogoratuaz. Egia da Amandok esan eustala Adalbaldo guztiz zala egokia niretzat. Egia da neure Aitak bere, eriotzako orduan bertan, Adalbaldo izentau eustala niretzako gisakoa legez; baiña zergaitik? Neure zaletasuna ezagutu ebelako, neuri eusten maitetasunak itsutu zitualako. Neuk neukan nik neure barruan Adalbaldoganako maitetasunaren iturburua, ainbeste illabetean egin ditudan amesen jatorri txarra. Ondo egiten dau Adalbaldok nigaz aztutea, ondo egiten dau. Ni baiño ohea bear dau beretzat, ni baiño obeak edonun ta errez billatuko ditu; baiña nik baiño geiago gurako leuskionik... ez dakit. Neure bizitza guztian maitetuko dot, Jaunaren iraintasun baga, garbi ta zuzen; beti erregutuko deusat Aita Zerukoari dukearen onagaitik, eta iñoiz jakiten badot ondo bizi dala, arba bat bere anaiaren onagaz poztuten dan antzera poztuko naz.»

«Mendian biziko da mendiko alabea, mendirako jaioga izango da-ta, menditik bedeinkatuko dau bere Egille Altsua, menditik emongo deusaz eskerrak, eta baita kurutzeagaitik bere, zerren kurutzeak eurak arimarako ondasunak diran. Zeruagaz ames egingo dot gaurtik aurrerantzean: an daukat aita, an daukat ama; neure anaiak an egongo al dira, an daukat betiko zoriona nire

¹ (Liburutxo an ez da Jainkoiakindeko (*teologiako*) liburua, ta erriak berba egiten daben gisara berba egiten dot nik bertan. Ez neuke gura neure Eliza Ama Done Maite Bedeinkagarriari ondo ez derizkion gauzarik txikiena erakutsi: lenago il).

² *Esonde*: aholku, kontseilu, onu. (*Lar.*)

³ *Dardarak*: (dardos).

⁴ *Erakida*: (conformidad). (*Lar.*)

¹ *Zirzil*: itsusi, motz.

zain. Arutz joan bear dot ausardi andi bategaz, arantza artetik zear, neure bidean al ditudan ondo egite guztiak egiñaz. Nire atarira eskale beartsurik badator, billatuko dau Mendiolan biotz onagaz emongo jakon janaria, edaria, jantzia ta *itunde*¹ ona; aurkituten badot ezjakiñean ta griña tartean bizi danik iñor, dakidan egi apurra ta Jaunaren agindu donea erakutsiko deusadaz, ta neure eskuakaz ekarriko dot bide artezetara, al badot beintzat. Billatzen badot norbait negarrez ta neketan ezbearren bat egiteko zorian dabillega, neuk esango deusatz zer dan *eroapena*² ta erakida onean bizi izatea. Ta siñistuko deuste neure kondaira esan daioedanean, ta ekarriko ditut kurutze azpira, ta astuntasunik andienak gogoz eroango ditue zeruko zorientasunaren *penzudan*³ ta gauza guztien gaiñetik maitetuko dabe Jaungoikoa.»

«Ta maite ete dot gero neuk, gauza guztien gaiñetik? O! Ziurziur nago onetan gaur, iñoiz bildur izan nintzan baiña. Egia da Adalbaldo maite dodana, *lagun urkoa*⁴ maite izan bear dan irudira, lagun urkorik onena legez... ta geiago bere bai; egia da zoro-zoro ta bide baga beragaz alkartuteko asmoak euki ditudala; baiña len, orain, gero ta beti, Jaungoikoa lenengo, Jauna Lurbirako ondo izate ta maitetasun guztien aurretik, eta Jaungoikoari zor deusadan maitetasuna galerazoteko balira lurbirakoak, egundaiño ez agertuteko eran ito ta ondatuko nituke, aterako neuke erraietatik kanpora neure biotza, ta zapalduko neuke neure oiñazpian Jauna baiño geiagoan gizonik maitatu baiño lenago. Al Goietan dagon Jaun betikoa Maitetasun utsa da, Edertasuna berbera, zorientasun guztien Iturria, ontasun danen sustrai ederra, *alizate*⁵ neurribagakoaren Jaube bakarra;... ta gizonak barriz, lurtarrak izanik lurtean dabilz arrastaka, ta maitaleenak asperkorak dira, ederrenak itsusi, zorientasunenak negarti, onenak oker, ta andienak txiki, urri, ezerez batzuk, Egillearen ondoan ipinten badira.

¹ *Itunde*: (consejo).

² *Eroapen*: (paciencia).

³ (*Penzuda*: esperanza).

⁴ *Lagun-urko*: (prójimo).

⁵ *Alizate*: ahalmen, botere.

Gauza bat da norberak gurari batzuk eukitea, erbeste onetan aldatz goretarako lagun on bat nai izatea, batari edo besteari lagun egokiena legez begiratutea, edo norbait etxadikoak legez edo geiago baldin maitetutea; ta beste gauza bat, erbestetik Betiko Errira biotza jasorik, maitatutea gure Aitarik onena, gurtuaz, bedeinkatuaz; Izaterik Done, Artez, Gozo, Bigun ta maitegarriena legez *begirunetuaz*¹.

»Nire asmoak aurrera eroateko indar gitxi daukadaz, neurez; baiña Jesusek bear ditudan guztiak emongo al deustaz. Eurakaz neure gogoak beteko ditudala uste dot, eta geroko saria irabazteko ondasunak *jaditsiko*² ditudala.»

»Beste orrenbeste egiten badau Adalbaldok, zeruetan billatuko dogu alkar.»

»Ta egingo dau; sinistuten dot eta itxaron neike, ta ikusiko dogu bata bestea.»

»Bealdeetan, uri andien erdian bera, nire uste barik, eta ni mendian, Adalbaldo beti gogoan dodala, biok izan geintekiz Jaunaren seme-alaba onak, eta biok irabazi geinke betiko desneka.»

Riktrudis olango *gogarteakaz*³ ebillela, inguruko zugazti bate-tik *zelataka*⁴ ta begira egokon⁵ gizon bat. Portun zan. «A ze zurbil ta galdua dagon! — ziñoan — zenbat argaldu dan, zein illuna (*triste*) deritzodan! Baiña zein maitegarria beti! Baleki ni emen begira nagokona⁶, laster iges egingo leuke onetatik, *oriñak*⁷ eiztaria ikusten dabenean legez. Ta neure eskututik urteteko gogo bat badaukat! Berba batzuk esateko gurari bat bai! Ez ete leuskit arpegirik emongo bada? Onaxe begira dakust oraintxe. Ikusten ete nau? Ez, ondo estaldurik nago ni. Ganera, nora begira dagon bere ez daki orrek. Negarrez dago. Ze gogamen ete darabil buruan...? Iño-

¹ (*Begirunetu*: reverenciar) (*Lar.*)

² *Jaditsi*: lortu, iritxi.

³ *Gogarte*: gogoeta, pentsamentu.

⁴ *Zelata egin*: kuku egin, begira egon.

⁵ Egokon: «eiokon» dakar idazleak.

⁶ Nagokona: «naiokona» dakar.

⁷ (*Orina*: ciervo).

ren bitartez ibillita ez dot egundo ezer atera, ta neuk egin bear deusatz gaur berba, arpegiz arpegi.

Esan ta egin, bere zulotik urten ta sartu zan Portun zelaira lenengoan uste baiño ausardi gitxiagogaz. Gizon baten aurrean *jarki*¹ ta ukabilkada bat edo aizkorakada bat emotea, ta maite dan emakume baten ondoan itz bigun ekarkorrak esatea, ez dira bardiñak; baterako indar ta *gaikera*² andiak eukazan Portunek, bes-terako etzan gauza. Gaiñera, zenbat eta sakonagoak diran biotza-
ren gurariak, ainbat eta estuago izaten oi da bat gura dan gisara eurak agertuteko. Ez da jakiten nundik asi ta zelan amaitu. Ori gertau jakon Portuni bere.

Riktrudisek barriz, bere aldetik ez eban bapere mugidalerik erakutsi. Ozinbeltzkoak egoan zulotik urtetea atara eban abarro-
tsa ta ostikopean zapalduten zituan orri igarren *kirri-karrea* belarrietara eldu jakozanean, begirada batean ikusi eban Portun; baiña biotzak ez eutsan taupada bat emon Riktrudisi.

— Egun on — esan eban gizonak, dana kokoloturik.

— Egun on — erantzun eban emakumeak. — Zer darabilzu emetik?

— Zeu ikusteko gogoak bakarrik ekarri nau.

— Ikusi nozu, bada, ta amaitu dozu zeure arloa.

— Baiña zer edo zer berba egiteko gogoa bere badaukat.

— Ori bere egin dozu, ta zeure zeregiñak amaitu dozuz emen. Agur.

— Orixe da jarduna ebateko artaziak daukazuzana. Ez egizu ain laster igesik egin. Gelditu zaite pizka baten. Eratzun egidazu. Aserre zara, Riktrudis?

— Iñogaz bere ez naz ni aserre — erantzun eban, etxeruntz artu eban bideari itxi barik.

Portun zelaiaren erdian gelditu zan, ez atzera ta ez aurrera, igesik joianari begira...

Errukarria ni, ta errukarria ori bere — zirautsan bere buruari Riktrudisek, ia etxera sartu zanean.

¹ *Jarki*: eutsi, aurre emon, aurka egin.

² (*Gaikera*: habilidad) (*Lar.*)



XIV

POST NUBILA

*Ordekatik*¹ etxera joan ta ordu bete inguru geroago, leio baten ukalondoak ipiñita, kanpora, *marboi*² alderantz begira egoa-
la, Riktrudisek Mendiolarako bidetik zear etorrela eliz gizon bat ikusi eban. — «Ai, ene! Amando da» — esanaz — jatsi zan aida ba-
tean atarira, apezpiko jaunari arrera on bat egiteko ustean.

— Zer dakarzu, jauna, — itandu eutsan — alde onetara?

— Barri onak zuretzat — erantzun eban Amandok.

— Niretzat barri onak, jauna? Nongoak gero?

— Or, bealdetik, bart arratsean agertu jatan prankotar gizon bat, albiste batzuk ekarriaz ta beste batzuen eske.

Riktrudis dardaraka asi zan, ta sukalde bazterretara begira iñor inguruan ete egoan ikusi nairik.

— Sartu zaite, jauna, barrura — agertu eutsan — ta jarri zaite aulki batean, nekatua egongo zara-ta.

— Ez nago nekatua. Orrez gaiñera, zukanakoa egin ondo-
rean, emen urreko etxadi batera joan bear dot, beste arazo batzuk badaukadaz ta. Baiña etzaitte ikaratu, emakumea. Ez deusut bada esan albiste onak dirala?

— Zertzuk edo zeñenak, jauna?

— Ez diñotsu ezer zeure biotzak?

¹ (*Ordeka*: zelaia).

² (*Marboil*: horizonte).

— Nire biotza illunpetan ta gaixorik euki dot aspaldian, ta gaixo erre zitelen antzera, doillorkeriak esan izan deustaz luzarotan. Mututurik egon izan balitz obeto neukean. Gaur, atan bere, sartu jat bere gelaraiño argi erraiñu bigun bat, ikusi eragin deustadaz biotzari gauzak direan legez, eta asi jat zerbait esaten bear dan eran.

— Osatuko jatzu beraz?

— Osatuteko bidean jarri dot beiñik bein.

— Ta argi erraiñu osagarri ori nondik etorri jatzu?

— Argi guztien jatorritik, jauna: Zerutik etorriko jatan.

— Zelan baiña?

— Ni zein nazan ta... *besteren bat* zein dan adierazoten emonaz, biotzaren asete ta betekada osoa non dagoan erakutsiaz, Jaungoikoaren gurari donea ondo egiteko arimea indartuaz, maite ditudan guztiak zeruan aurkituko ditudala gomutaraziaz.

— Erakidara zagoz, ikusten danez. Lurrean ez dozu geiago ezer opa? *conformidad*

— Bai, jauna, erakidara nago, lau edo bost eguneko orduak edozetara igaro leitekez, ta ondo igaro, geroko itxaropena badankagu. Ta alan bere, egia esan bear badeustat, beti oi dodan legez, Zeruak neure guraria bete nai baleuskit, Jaunaren aserrerako ta nire arimearen kalterako ez bada, gauza bat opa dot... *deseo*

— Ez esan geiago, badakit zer dan eta. Jaungoikoak zeure naigurea bete gura deustu, Riktrudis. Zeruak zure doskañia ikusi dau, ta Abraanena lenagoetan saritu eban legez, erbeste onetan bertan saritu gura deustu. Adalbaldoren albisteakaz naiatorzu. Gogoan zaukaz, ta maite zaitu.

— O Jauna, Jaun zerukoa! Zein ona ta errukiorra zaran! Ta nik, bear bada, ez dot Zugan naikoa *ustakida*¹ izan, ta Adalbaldogaz bere ez. Zer diño berak, jauna?

— Nire etxean izan eta laster bere erregegana joan bear izan ebala diño, ta an egon dala bere aginduak egiten ta zugaz egundo aztu barik. Zure gurasoak il zirala badaki; zu zetan zagozan jakin nai leuke.

¹ (*Ustekida*: confianza) (*Lar.*)

— Zeiñek esan deutsa nire gurasoak il zirala?

— Neuk. Bein baiño geiagotan emengo albisteak bialdu deustadaz.

— Bada orduan ni zetan nagoan bere esango zeuntsan.

— Baita, baiña gaur ori ez da naikoa: zeuk esan bear deustazu garbiro Adalbaldogaz izateko *oartasun*¹, *zedal*² edo naiezik ete daukazun edo ez.

Riktrudis nora begiratu ez ekiala egoan, ikaraz, oso *artega*³, urduritua, nabarmena, lotatik datorrenean eguzkiak gorritzen dituan odeiak baiño gorriago. Eguzkiaren argi ta berotasun guztia etorkon bere arimara.

— Niri, jauna, ez deust *berak* egundo olango gauzarik eban — erantzun eban, dana moteldurik —.

— Neuk diñotsut oraintxe bere izenean.

— *Berak* itauntzen dau ori?

— *Berak*. Zer erantzungo deustat?

— Jesus Maria! Auxe da! Zeuk ez dakizu bada?

— Bai, baiña zeure aotik nai neuke entzun gaur, billosnarru mee baten ipiñi daidan zer erantzun deustazun.

— Ara bada, nik ez daukat nai ezik baiña...

— Zer? Baiñakaz zatoz orain?

— Itxi eidazu, bada, amaitu artean, jauna. Nik ez daukat nai ezik, baiña berak...

— Berak bere ez, itxureak diñonez beintzat.

— Eta damututen bajako gero?

— Ta zeuri damututen bajatzu?

— Niri ez jauna, orixe ez!

— Berari bere ez!

— Zeiñek daki?

— Neuk dakit.

— Bein baizen ez nau ikusi ta.

— Zeuk zenbat aldiz ikusi dozu bera?...

¹ (*Oartasuna*: reparo).

² (*Zedal*: repugnancia) (*Lar.*)

³ *Artega*: (inquieta, desasosegada).

— Bada orduan, zeuri ondo baderitzazu... esan zeinkio...

— Zer?

— Nik ez daukadala ezetzik.

Arpegi gozotsuagaz esan zituan ona arteko berbak Amando jaunak, baiña Riktrudisek azkenengoak amaitu ebazanean, kendu eban apezpiko doneak bere ezpanetako barrea, jatsi ta batu zituan bepuruak, illundu eban pizka bat bekokia, ta guraso batek bere alaba on bati legez, asi jakon esaten Riktrudisi:

— Ez dogu amaitu ondiño, enetxoa. Gauza bat egin baizen lenago *zerzelidade*¹ guztiai ondo begiratu bear jakoe, ta baietza emon ordurako, berak dakarzan astuntasun ta ibilbide guztiak ikusi eikezuz, begitanduera edo irudipenen atzetik itsu itsuan jarraitu barik. Adalbaldo ezingo da bizi Euskalerrian, noizean bein ta ereti batzuetan ez bada, zerren Dagobertoren mendekoa dan, ta bere aginduak bete bearko dituan prankotarren artean. Zu barriz, mendian jaiorikoa zara ta mendian daukazuz zeure sustraiak, asaba ta gurasoen etxea, zeure ondasunak eta zeure biotza. Izango dozu naikoa gogo ta indar zeure senarragaz Euskalerritik kanpoan bizi izateko il osoetan, urte luzeetan, beti bear bada? Gogamendu egizu gauza ori ondo, baietza emon baiño lenagotik.

— Gogamendurik daukat, jauna. Maite dot neure mendia; tokirik ederrena deritxot, eta beragaitik, beste Lurbira guztikoak salduko nituke. Emengo arri bat beste errietako jauregi bat aiña badala uste dot, bertan daukadaz neure gomutak, bertan neure guraso ta anaien azurrak. Ez dot nik Euskalerria alde batera itxiko egundaiño. Narioian tokira narioiala *patuak*² edo Jaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz toki guztietan. Neugaz joango dira erririk erri Euskalerria, bere izkerea ta bere ekanduak; euskerea erakutsiko dot nonnai, neure erritarren lege zarra adierazoko dot, al dodan giñoan. Nire gomutea, nire adimena, nire biotza, nire izakerea, euskaldunarenak izango dira beti; ta edozein lekutik, nire begiradarik gozoena neure mendientzat izango da, ta nire arrenik bero, sutsu ta onena euskaldunentzat

¹ (*Zerzelidade*: circunstancia).

² (*Patu*: fortuna).

eta euskeraz egiña. Euskaldun izakerearen zabaltzaillea izan gura neuke nabillen tokian nabillela. — Zergaitik, ain onak bagara, zergaitik zabaldu ez geure ontasuna? Ez diñogu, ta egiaz, erbestekoak euren ekandu txarrak gugana dakarrezala? Zergaitik, bada, guk, areen ekanduentzat muga gogor bat ipinteari emen jarraituaz, ez doguz gureak erbestean zabalduko, ereti ona dogu-nean? Norabaitera joan bear dabenean, zergaitik euskalduna ez da izango euskaldun Lurraren alderdi guztietan, kristiñauak kristiñau izan bear dabenean? Zergaitik gure arraza¹ menditarra besteak baiño geiagokoa ta ohea dala ulertarazo ez? Euskalerrirako txarra al da, gure euskalduntasuna galdu barik, gure ekanduak erbestekoen aurrean erakustea? Kristiñau batek besteak kristiñaututea ez al da ondo? Noiztik onara da gauza on guztiak gordeta eukitea egitekorik onena? — «Euskalduna nazan aldetik euskaldundu, kristiñaua nazan aldetik kristiñautu»: ori da nire oinkada ta ibillera guztietarako daukadan *azalka*² ta gogo errimea. Arima barruan gorderik gurari andi bi ditut: Mendiolara natorrenetan, euskaldunakaitik egingo ditudan lan guztien sarigarritzat, menditarren aldetik arrera on bat aurkitutea. Jaun zerukoak Beregana deituten deustanean, fede ta lagun urkoaren alde Lurrean erabilli ditudan arazo ta lanbide guztiakaitik, zeru ederretan abegi on bat izatea.

— Ondo diñozu, Riktrudis, — dirautsa apezpikuak — ondo diñozu ta zu ondo zoaz. A! Euskaldun guztiak bide orretatik jarraituko balebe! Zure erriari zor deutzazun maitetasuna lagun urkoari zor deutzazunagaz alkartu nai dozu, ta guztiz ondo gura dozu.

— Bakotxak bere erriari izan bear deutzan maitetasuna era bitakoa dala deritxot nik. Norbere buruarentzat daukagun maitetasun itsu, arro ta okerretik dator bata, gure biotzean berez, txiki txikitatik, zelan ez dakigula sortu oi da; asten da geugaz batera, guztiz neurri barik, eta ez dau gure biotzetan beste maitetasunentzat tokirik izten. Dana bear dau beretzat, bereari bakarrik deritzo andia, ona, zindoa, zuzena, ederra ta egiazkoa. Besteen gauza guztiak,

¹ (Itz au euskerazkoa dala diño A. Larramendik).

² *Azalka*: (lema) (*Lar.*)

erkin, makal, zirzil, motel, txiro, doillor ta guzurrezkoak iruditen jakoz; ta zenbat eta norberagandik urriñagokoak, ainbat eta erkin, makal, zirzil, motel, txiro, doillor ta guzurrezkoagoak. Norberarena izan ezik, etxekoen gauzea izango da zelanbaitekoa, edo norbere erritarrena geienez; baiña erritik kanpora urruingarria ez dan gauzarik ez dago. Ta ortik etorri oi dira ikusieziñak, gorrotoak, itsumenak, Jaunaren legea austeak, lagun urkoen kalteak eta arima askoren ondamendiak. — Bigarren erako erri maitetasuna ez da olangoa, zerren daukan Jaunaren anaitasunezko lege biguna bere zuzentzaille ta artizartzat. Norbere gauzeari obeto gura izan arren, urrena dalako, obeto ezagututen dogulako, edo biotzak alan aginduten deuskulako, geiegikeriak kenduten deutzaz biotzari ta adimenari itsutasunak, besteen egokitasun ta *doaiñak*¹ ezagutu ta autortzen ditu, ez dau iñor urruinduten, ta Jaungoikoaren ize-nean edozein maitetuten dau.

Zuk olan gura deutzazu Euskalerruari; erri guztien gaiñetik dozu maite, zeurea dalako ta erririk onenentzat daukazulako. Maite eikezu aurrerantzean bere, maitegarria da-ta; baiña emoizu edonun bakotxari berea... Ta ez diñotsut geiago. Agur. Jakingo dau Adalbaldok zuk esan deustazuna..

— Agur, Amando jauna. Jaungoikoak lagun daizula, ta esker milla.

— Jaungoikoari.

¹ *Doaiñak*: (Prendas).



XV

BARREAK ETA NEGARRAK

Auñemendi guztia sutan dago, gorrotozko sutan. Erri guztiak *bekaizturik*¹ aurkituten dira. Kurrukarako deadarrrik galgarrienak urteten dabe euskaldun askoren bularretatik. Egiteko entzungarri bat egin bear zan.

Zer gertaten da? Egundaiño entzun ez dan gisako jazoorea. Euskaldun agintari baten alabea, alaba bakarra, aberatsa, argia ta ederra, bere aide ta ogipeko batzukaz, prankotar bategaz ezkontuteko asmoan erbestera joan da.

Aide gitxi eroan ditu Mendiolako alabeak, zerren senitartekorik geienai txarto iruditu jakoen Riktrudisen labankeria.

Gora-goraka dabilz Auñemendin gizon ta emakumeak, zar ta gazte, andi ta txiki, aberats ta lander, kristiñau ta fedebagakoak. Riktrudisegaitik eta bere laguntzaille guztiakaitik, arao, birao ta zarkarkeririk zatarrenak esaten ditue. Etxakoen itxi bear geiago Euskalerrian sartzen. Bizi eitezala Erdalerrian beti, euren gogoz erdaldunakaz bat egitera joan ziran ezkerro. Euskaldun agintari guztiak uste onetan egozan. Ubero zarrak berak, lagun batzuk iritzi eske oe aurrera joan jakozenean (bada aspaldietan oean bizi zan) ez eritzola ondo Riktrudisen egitadeari agertu eutsen, Euskalerrian mutil onak bat eta bi baiño geiago bazirala-ta.

¹ *Bekaizturik*: (indignado).

Ozinbelzkoak erririk erri ebiltzan danak, menditar guztiak asko ta geiago berotu nairik. Prankotar *biurri*¹ *maltzurak*² ekiñaldi gogor bat egin bear zan, erakuste barri barri bat emon bear jakoen. Ez eiela uste izan onean onean ibillita, euskaldunai egiñiko *destaiña*³ ta bidebagakeriak aztuta geldituko ziranik. Aztu? Lenago urtuko ziran atx ta lur guztiak menditarrai egindako *iraiñak*⁴ aztu baiño. Batez bere Portunek Aitzbarrenen arturikoa. Ta emen egoan *eskergaari*⁵ arrigarriena, Ozinbelzkoen ustez. Portunegaz burruka ibilli zan gizonagaz beragaz ezkonduen zan Riktrudis! O! Dxiartadarik andiena Otxoatarrai arpegi arpegian emotea zan ori. Orrek ezin eikean parkamenik euki, ta ez eban eukiko. Lurbira guztian jakin eragin bear zan, Otxoatarrak... euskaldunak nortzuk ziran. Prankotarren kontra guda gogorra, eten bagea, be-tikoa, asteko ordu ta garaia etorri zan.

«Nik esan nituan gauzak urten dabe argitara, — zirautsan Portunek etxerik etxe. — Arnoldo salduta egoan ta bere Sorterria saltzeko prest, eriotzea etorri jakonean. Bakotxari berea emon bear jako, ta nik ezagututen dot gaztetan Errizalea izan zala; baiña zartzara, bere alabeagaz txotxinduta, Riktrudis andi ikusteagaitik, errege usaiñekoakaz ibilteagaitik, eta elizgizon arrotzaren esandeak entzunda, edozetara jarri zan. Ta Aita ta Ama il arren, Riktrudis petralak ez dau gero aztu gurasoen erakutsia, ta ekarri deuta orain Euskalerrari izugarrizko lotsaria ta kaltea. Mendiola ta bere lurrak prankotarrenak izango dira gaurtik aurrera, gure etxean geuri agintzera sartuko jakuz arrotzak, ekarriko deuskuez euren oitura gaiztoak, eta agur gu ta gure gauzak, al dogunak al doguna egiten ez badogu. Aitorren seme altza bear gara danok, agiñak erakutsi bear deusaguz arrotzari, ez dau emen erbestekok oiñik ipiñi bear.»

Egia ziñoan Portunek, Auñemenditarren iritxiz. Mendiola-koak ondamendira eroien Euskalerra. Arnoldo salduta egongo

¹ (*Biurri*: perverso).

² *Malzur*: maltzur, (zorro, interesado).

³ *Destaiña*: erdeinu, «desdén».

⁴ *Irain*: (injuria).

⁵ *Eskergaari*: (enormidad).

zan, ta orregaitik prankotarrakaz gudarik ez eban gura izan. Riktrudisek barriz lotsagarriko gauzea egin eban eta etxakon geiago Euskalerrian sartzen itxi bear. Ta Amandori? Amando bere, gizon ona zan baiña, erbestekoa zan eta... Amandoren kontra etziran ainbeste azartuten euskaldun kristiñauak, fede gaiztokoak bai; baiña Riktrudisen kontra danak ao batetik itz egiten eben.

«Egundo olangorik! — entzuten zan edonun — Riktrudis orrek esne epela zirudian baiña, berotu zan esnea, ta irakin ta gaiñez egin bere bai Erriaganako maitetasunaren sugarra amatau arteraiño. Ainbat gaiztoago beretzat. Bere izena lurrun artean ostendu da, ta erre ta ondaturiko gauza bat dirudi.»

Mendiolakoagaitik nok aterako eban arpegia? Ez egoan Auñemendin orretarako ausardirik eukan gizonik. Bat bakarria izan zan, Padar Koblakaria. Eliza aurreko enparantzan, gizon aserre askoren erdian, asi zan Peru, Arnoldoren egitada andiak esaten, ta bere alaba kutunaren ontasun barru barrukoak erakutsi nairik; baiña koblakari zarrak bere gaiñean izan zituan egurrak. Batak jo, besteak bultza, orkoak lurrera bota ta angoak zapaldu ta makillatu, il eben Peru gizagaixoa, salkindarien lagun oker ozkil bat zala-ta. Gizon zarra ilteko asmoagaz ez ei jakozan lenengoan asi; baiña Ozinbelzko morroi baten makillkadeak ilda itxi eban beintzat, eta *zamalldako*¹ gizon guztien artean ez eutsan iñok iltzailleari oratu. Kontrara: Koblakaria ilda egoala ikusi ebenean, «ondo egin jako, — ziñoen danak — berea da errua, barritsu zitala ez izatea baiño ez eukan.»

Etzan, bada, Auñemendin Mendiolakoaren aldeko gizonik geratu; etzan bat, ango euskaldun guztien artean, gauzak zelan ziran ikusi ta aztertuteko beregandedunik; erruki pixka bat gelditu jakonik ez egoan iñor; dana zan aserrea, gorrotoa, kurruka ta zitalkeria.

Irakurlea: jatsi gaitez an Auñemenditik bera, itxi daiguzan emengo negargarrikeriak, eta Ostrabento alderaiño goazen gu. An daukez Adalbaldoren etxadikoak aberastasun ugariak; bere aide batzuk eta ogipeko geienakaz Riktrudis ara joan da, an

¹ (*Zamalda*: aldra), pilo.

Amando apezpikuak prankotar dukea ta Mendiolako alabea be-
deinkatu ditu gogoz ta poz-pozik, beti alkarrenak izan daitezzen.

Nok esan ondo gazte bien biotzeko atsegintasuna? Bata bes-
teaganako jaiorikoak izanda, uste-uste barik billatu eben bata
bestea; ezagutu ordurako maitetu ziran biak; ainbeste illebeteko
bitartean ez eben ikusi alkar; ikaraz egon ziran biak geiago lur-
rean ikusiko ete ziran bildurrez; negar andiak egin zituan euskaldunak
bere jauregiko bakartadean prankotar ederra iñoiz ostera aurkitu-
ko ez ebalakoan; prankotarrak bere aldetik ikara gogorrek igaro
zituan Euskalerriko aingerua beste norbaitek eroango eutsala-
koan... ta orain, eragozketa guztiak kendurik, bata bestearen be-
soetara etorri ziran, alkarganatu ziran biak beti-betiko.

Ezteguetarako batu ziranak bere aukeraz ta pozarren egozan.
Ostrabentokoak tint ondo eritxoen euskaldunari, bada Riktrudi-
sek, bere *bakunde*¹ ta tolesgabetasunagaz prankotarren biotzak
irabazi zituan, ta bere edertasun, egokiera ta emaguri zintzoagaz
guztien erregiña on bat zirudian. Euskaldunak barriz, ikusi ebe-
nean Adalbaldo ta bere aideen Jaungoikotasun benetakoa, Rik-
trudis esku onetan jausten zala ziñoen, ta etzala izango errez
Euskal errian bertan, beste alango gizon bat billatutea. «Balekie
gure aldean — zirautsen — Adalbaldoren etxadia zelangoa dan,
ez leuke gorrotauko iñok gaur legez; zerren gu, Auñemendikook,
buru gogorrekoak izan geinkez, baiña biotz gogorrekoak ez gara.»

Ostrabenton egozanak Auñemendin zer igaroten zan ez
ekien asko. Eurak etxetik urten ebenerako *sosmau*² eben zerbait
maitasunezkoa etzana, trumoi egunetan marboillean ikusten dan
odei matasa baten antzera; baiña trumoi laster igaroko zala uste
izan eben. Euskalerrira biurtuta lenengo egunetan, bada Euskale-
rrira joateko ustetan egozan, betozko illunen batzuk, erremuska-
daren batzuk, ezin ikusiren batzuk izango ziran; baiña Adalbaldo-
ren zuzentasuna ezagutu eienean euskaldunak, prankotar gizon
andia menditarren aldekoa ta euren lege ta ekanduzalea zala
ulertu eienean, Mendiolako atea menditarrentzat len legez zaba-

¹ *Bakunde*: (sencillez) (Lar.)

² *Sosmau*: susmau, barruntau.

lik egozala ikusitakoan, pixkaka-pixkaka etorriko ziran Mendiolara
jenteak, eta euren adiskide on ta laguntzaille gogorrenetakoa le-
gez begiratu izango da erbesteko dukea. Ikusi daiela gureak
Adalbaldo eurakaz batera, zein ta zelangoa dan jakin daiela ondo,
ezagutu daiela bere biotz artez ta samurra, ta euskaldun guztiak
adiskidetzat euki izango daroe, Amando adiskidetzat dauken se-
nean. Urriñetik txartzat euki izan dana, gure ondoan ikusita gero,
askotan maitatu izan oi dogu.

Onetan egozan Ostrabentora baturiko euskaldun eztegula-
riak, ia etxerako bideak artzeko asmoetan, eurak egozan mandio-
taraiño eldu zanean, atz ta putz ta bero ta lurruntsua, gorputz guz-
titik izerdia eriola, bero andirik ez egoan baiña, menditar gizakote
narraz baldan bat.

— Jesus! *Aitearen, Semearen*... — esan eban Riktrudisek.
— Zer dakark, Lope, euk onaiño?

— Zer ekarriko dot, andrea...

— Ezteguko ondokiñak jatera dator ori — ziñoan Pedro Ma-
rik gizategiko atetik, barrez ta algaraz.

Emon eutsen barreari etxeko guztiak, bada gure Lope bene-
benetan egoan barregarria. Alango gizon trauskillik! Abarka urra-
tuetatik beatz lodi biak agirian ekarzan, *txaberrama*¹ andi biren bu-
ruak legez, bernetako soka ta oialak be-bera jausita, berna sorki
batzuen itxureagaz; ia gerriraiño basaz beterikako soiñeko dindi-
miduna; lepotik bera lenago ikusi geuntsan narruzko zorroa; esku
batean makilla bat eta bestean edan-ontzi ez txikia; ta arpegi zabal
biribilla sagarrrik gorriena baiño gorriagoa.

— Barre egiten dabe baiña ez dakart nik barre eragiteko al-
bisterik — esan eban.

— Zer dakark bada?

— Gauza onik ez.

— Esaik bada zer dan.

— Zer izango da, nire etxeoandreak ez daukala gaur Men-
diolan ez etxerik, ez abererik, ez solorik eta ez basorik.

— Zer diñozu, gizona?

¹ *Txaberrama*: (tortuga) (Lar.)

—Mendiolako morroiak etxetik kanpora atara gaituela diñot, an ez dabela Riktrudisek aginduten eta.

—Zeiñek aginduko dau bada?

—Zeiñek ez dakit ondo: Auñemendik, Erriak, euskaldunak edo ez dakit nik zeñek.

—Edanda zagoz zu.

—Ez dot ondiño nai beste ta gitxiago be edan, gura baizen lenago amaitu jatan edaria-ta.

Barre guztiak iges egin eben gizategitik. Egia zan; barre egiteko albistarik ez ekarren Lopek.

—Zeiñek atera zaitue etxetik? — itandu eutsen danak.

—Ozinbelzko Portunek.

—Portunek? Zegaitik baiña? Zer dala-ta?

—Gure etxeko andrea erbestekoagaz ezkondu dalako. Euskalerriko lurrak eta ondasunak prankotarrenak ezin izan leikezala-ta.

—Ta gu errira goazenean, non sartutea gura dau bada?

—Errira joan? Ez eizue errira joaterik gogamendu, ez deusue itxiko-ta.

—Itxi ez ostera? Zein da gero Portun gure errian ta etxean sartzen galerazoteko?

—Euskaldunen nagusi edo andienetakoa beintzat ei da.

—Ez dago esku txarretan Erria! Baiña ez da bera bakarrik agintari, Euskal mendian badira beste batzuk Portun baiño andia-goak, eta ikusiko dogu...

—Portunen esanera jarri ei dira beste agintari guztiak bere.

—Ta egiaren alde deadar egingo dabenik ez dago iñor? Gu-gaitik ez dau batek bere arpegirik aterako?

—Zeiñek gero? Bat asi ei zan zeuen onagaitik zer edo zer esaten, baiña emon ei eutsen berea.

—Zein zan bera?

—Padarra.

—Zer egin deutse?

—Ii.

—Ii?...

—Bai. Lurpean sartu eben beintzat eta...

Danak gelditu ziran batak besteari begira zer esan ez ekiela.

—Uste genduan baiño astunago dator ekaitza — esan eban azkenean Riktrudisek. — Etzan egun bi edo iruko trumioia guk erritik urteeran ikusi genduana, negu baltz luzearen asierea zan, bada negua bere gogortada guztiakaz jausi da Mendiola ta Euskal-erri guztiaren gaiñean. Ta bear bada neure erruz, neure...

—Zagoz ixilik, Riktrudis — esan eutsan Amandok —, Portunek daukan aserrearen zarraparrada bat da guztia, ta ezin leiteke izan iraunkorra.

—Zarraparrada ori izango da naikoa, Amando jauna, euskal lurrean ainbeste bidar ereinda dagon gorrotoaren asia ermeteko.

—Baiña neuk, Jaungoikoaren laguntasunagaz, erne ala aterako dot. Aruntz noa gaur bertatik, billatuko ditut biotz oneko gizon guztiak, danai berba egingo deutset, eta gauzak zerbait ondu-tea itxaron neike, Fedegaiztoko gizon kurrukari baten iritzi ta gogoari ezin leioeke¹ jarraitu euskaldun kristiñauak, eta ez deutse jarraituko.

—Bildur izatekoa da gero, jauna, orain Auñamendira joa-tea; ez dakizula gertau Padar gizagaisoarena.

—Ainbat obeto niretzat, olan balitz.

—Neuk lagunduko neuskizu pozik, Adalbaldok gura izan ez-kero — diño andre gazteak.

—Ez, zuk ez, ta beste iñok bere ez. Neu bakarrik joan bear dot lenengo, bideak egindakoan besteok. Ez deritxozu, Adalbaldo?

—Bai, jauna. Bideak egitera neu joango nitzateke; baiña in-darrean, gogorrean, guda soiñuan joan bearko neuke, ta ori ez dot nai. Ez dot gura geiago gorrotorako *apukorik*² ipiñi. Bakeza-lea naz, badakizu zeuk, eta bakean nai neuke joan Euskalerrira, anaien artean legez, ezpanetan iribarrea ta biotzean poztasun andi bat ditudala. Orretarako eguna ainbat lasterren etorriko al da. Zu ta ni, Riktrudis, — jarraitu eban andreari begira — ementxe biziko gara bitartean, ekarri dituzun aide ta etxadikoakaz batera, Jaunaren legea gordeaz ta gorde eragiñaz, arrenetan beti Aman-dok, itxaroten daben legez, arimen irabazia izan daien. Zu ondo

¹ Leioeke: «leikioe» formarik aruntena bikaieraz.

² (Apuko: pretexto).

izango zarala uste dot; euskaldunak ementxe daukazuz, zeure le-nagoko morroiak bere bai, ondasunak ugari ditugu, maite gara. Zer geiago guraritu geinke lurrean? Beste zerbait opa badozu, esaidazu, Riktrudis, ta laster beteko jatzu zeure gogoa.

— Eskerrik asko, Adalbaldo. Geiegizkoa zara niretzat, eta zu-gaz ondo ez izateko bildurrik ez daukat; baiña neuretarrak zeuri ez ondo begiratuteak min emoten deust.

— Eta zer egingo deutzazu? Gurea al da errua? Errua gurea balitz, orduan izango litzateke gauza mingarria, baiña ez dan ezke-ro, arima garbia daukagun ezkerro, ez daukagu zergaitik miñik artu. Guk egin daigun alegiña euren gogamen okerra kentzeko... Ta oraintxe bat-batera otuten jat gauza bat, zuri txarto ez baderi-txazu, egin geinkeana.

— Zer da bera?

— Zure Auñemendiko ondasun guztiak Euskalerriko lande-rentzat iztea, neureakaz naikoa ta geiegi daukagu-ta.

Orretara ikusiko dabe zure erritarrak zure ondasunen billa ez nazala ibilli, orretara ezagutuko dabe Euskalerriko agintaritzearen zale ez nazala. Zer diñostazu, Riktrudis? Zer diñozu, Amando jau-na?

— Gogamen ori ederrenetakoa dala, ta asko ta asko lagun-duko deustala euskaldunen biotzak zuen maitetasunera ekar-ten— erantzun eban apezpikoak.

— Beste ondasun guztiak emoteagaz — esan eban Riktrudi-sek— ez dot bapere nekerik artzen, baiña neure gurasoen jaure-gia, neure jaiotexea... Nun sartuko gara geu euskal mendira goa-zenean?

— Edonun, Amando bizi dan etxean bertan, edozein euskal-dunek emongo leuskigun ostatuan; baiña ez baderitxazu, itxi; zeu-re guraria egitea baiño besterik ez dot nai.

— Ez neban uste neure gauzakana ain lotua nengoanik. Asko deritzot, Adalbaldo, guztiz asko; baiña zeure gogamena izan dalako ta Amandori ondo deritxon ezkerro, neure etxea bere bai, dana landerrentzat izan dedilla. Ez dau Jaungoikoak aztuko nik orain egiten dodan doskain andia.



XVI

AMANDOREN LANA

Esan ta egin, Amandok artu eban bereala Euskalerrirako bi-dea, ta Jaungoikoaganako zelan arimak irabaziko zituan *gogarte-tuaz*¹ ta len fede bagatasunaren illunpetik Ebanjelioko argira ate-rariko euskaldunak zelan indartuko zituan gogoratuaz, Ama Mariari, Done Pedro ta Paulo, ta beste Jesusen lege zabaltzailleai arrenetan eta arrenetan, eldu zan Auñemendiraiño.

Bidean etorrela, aserre ta zer esan andiak idoro zituan pran-kotarren artean euskaldunen kontra. Au ta ori egin ebela, bata jo ta bestea zuzitu, orkoa *zematu*² ta angoa il, bataren gauzak erre ta bestearrenak ausi ta birrindu. Neurriak artu beariko zirala basotar lotsabageen kontra, gogorrean asteko ordua zala, agintariak men-diak kiskaltzen asteko erregek zer esango eban zain egozala, nor-baitzuk zerbait izan ebela euskaldun gudalariren batzukaz. Olango gauzak entzun zituan; baiña nun, nok eta zelan gauza garbirik ez.

Lenengo euskaldunak prankotarren lurreko mugetan billatu zituan, *azkon*³ ta *beskonakaz*⁴, Auñemendiko jagole edo zaintzai-lle legez. Ez eutsen abegi onik egin, baiña txarrik bere ez. Arpegirik ez emotea zan guztia, apezpikua alde batetik ikusi ebenean, beste aldetik iges egitea, agurrik egin barik.

¹ *Gogarte*: gogoeta, pentsamendu.

² *Zematu*: (amenazar).

³ *Azkon*: «dardo».

⁴ *Beskon*: aintzinako arma mota.

«Ba! Ori baño geiago ez bada — ziñoan bere artean Amandok — toki egingo dot nik Euskalerrian. Arpegia emongo deusten lekuetan sartuko naz, joango naz adiskideen etxeetara, ta ez ete al nabe danetatik kanpora aterako. Lenengo beintzat Uberogana joan bear dot, eta an jakingo ditut barri guztiak garbiro.» Ta uste onegaz, Larrasorotik, Iñalatzatik, Basaburutik, Burruntsaliniatik zear Ezpeletara sartu zan.

Uberoren etxeko ate ondoan oles eginda laster, mutil gazte eder batek *maillatsu*¹ gaiñera urten eutsan. Uberoren semea zan.

— Egun on, Gaixpar — esan eban Amandok.

— Egun on — erantzun eban bestea.

— Zelan gara?

— Ba gabilz.

— Ta aita?

— Aita emen daukagu.

Geiagoko barik barrura eioazan artean, «Um! — gogamendu eban Amandok — legorra ta illuntxo dago Gaixpar, bestetan lan-go arrera onik emen bere ez daukat. Ekaitzaren ondorenak izan-go dira; ikusiko dogu zarrak zer diñoan.»

Uberoren aurrera eldu zanean, Amando, jarri baiño lenago, betiko arpegikera gozotxuagaz asi jakon izketan:

— Zelan zagoz, adiskidea?

— Alan alan. Txarrerakorik ez daukagu-ta.

— Jagita zagoz beintzat, eta ni azkenengo emen izan nintza-netik ona, zer edo zer irabazi egingo zenduan.

— Jagita nabil baiña belaunetan indarririk ezin egin jat eta be-soetan bere ez. Ozt-oztean joan nintzan igandean elizaraiño.

— Elizaraiño bai? Asko egin zara orduan.

— Asko bai obe. Zerbait, jauna, zerbait bakarrik. Asko eginda egon banintz, ez ninduan etxean billatuko.

Gazteak onetan, albo batean jarrita egoan tokitik, zelatazko begiakaz begiratu eutsan apezpikuari.

— Zegaitik ez ba? — itandu eban onek.

¹ Maillatsu: (escalera).

— Zerren euskaldunak etxean egoteko garaian ez gagozan. Ez al dozu zeuk ezer entzun?

— Gauza asko ez nik.

— Etzenduan entzungo. Oraintxe gogoratuten naz. Zu gure Erritik kanpoetan ibilli zara zeregintxu batzukaz, ta bidezkoa izan-go zara gaur emen.

— Bidezkoa naz. Ez dakit ezer garbiro ta jakiteko ustean na-tor zugana. Zer darabilzue?

— Zer erabiliko dogu? Gudarako asmoa ta gogo.

— Gudarako asmoa ta gogo? Zergaitik baiña?

— Zergaitik, zergaitik. Euskalerriko Lorea eroan deuskuela-ko.

— Ta zuk badakizu eroan deutsuen edo bere gurariz joan dan?

— Dana dala. Beti da txarto Sorterritik kanpora arerioakana joatea.

— Zertara joaten dan. Sorterriarentzat lagunak egitera joa-ten bada ez beintzat.

— Ezin geinke guk prankotarren artean lagunak euki.

— Orretan zagoz zu bere? Benetan diñostazu?

— Orretan nago, ta bene-benetan esaten dot.

— Bada nik lagunak kristiñau guztien artean euki bear ditu-gula diñotsut, eta zenbat geiago ta zenbat lagunago obeto dala. Neu joan naz Euskalerriko Loreagaz Ostrabentora, neuk bedeinkatu dot bere ta Adalbaldoren alkartuerea, ta ondo egin dodala-ta nago.

— Ez egizu ori esan, jauna, edozein euskaldunen aurrean, danak dakie baiña.

— Edozeiñen aurrean esan neikeala uste dot, eta edonori ondo irudituko jakolakoan, gizon zuzena bada. Entzuidazu esan bear deutsudana lenengo, ta zeure biotzak emongo deustan epaiaren zain geldituko natxatzu. Riktrudis ta Adalbaldo uste-uste barik neure etxean ezagutu ziran, bereala alkar maitetu eben, ta arrezkero euren biotzak alkarren billa ebiltzan. Onak ziran biak, bata bestearentzat gisakoak, eta biak euken gurasoen baimena. Zer egingo zenduke zeuk olango gazte on bigaz, edo lagundu ainbat lasterren euren guraria bete eien; edo itxi, biak illuntasu-

nean bizi eitezen; edo Jaungoikoak erakutsi eutsen bidetik atera, ondamediko zorian gelditu eitezen arima eder biak? Ez deustazu erantzuten; baiña olango gazteai zer egingo zeunskioen badakit: lagundu al dozun indar guztiakaz, ta neuk orixe egin dot, lagundu al izan dodan giñoan.

— Baiña euren guraso ta erriak arerioetakoak diranean...

— Orduan obeto, Ubero adiskidea, orduan obeto. Ez da gauza on bat Erri bi baketutea? Bada arerioetako etxadi andi bi alkaturik, prankotarrak eta euskaldunak baketu al bageinkez, gauza on bat egiten dogu. Orregaitik, pozarren jakin neban Riktrudis ta Adalbaldo maite zirala, orregaitik lagundu deutset, euren ondo-izateak Errien osasuna ekarri daian. Euskalerriko Lorea erbestekoak ezagutu daienean — uste izan dot nik — ain bizitza on ta usain gozozkoa erabilliko dau eze, maitetuko dabe prankotarrak eta obeto begiratuko deutse Lore orren mendiari. Adalbaldo zaldun zuzen ta garbia Mendiolako alabeagaz bat egiñik ikusitakoan, prankotar gaztearen leialtasun egiazkoa ezagutu ondorean, urreratuko jakoz euskaldunak eta maitetuko dabe, ta ez deutse prankotar guztiak begi gaiztoakaz begiratuko. Ta era orretan — uste neban nik — ainbeste gizaldian gorrotoz bizi izan diran *Dierr*¹ biak adiskidetu leitekez...

— Nire usteak, Ubero — jarraitu eban apezpikuak — nire usteak prankotarren aldetik beteten asi dira. Ikusi dabe zuen Lorea, Riktrudis, ta ezagutu dabenerako an dauke, gauza on eder maitegarria legez, baratza aberats baten erdian jarriarik. Zeuek zara² Adalbaldo ezagutu ez dozuenak. Ez dozue ezertarako astirik artu. Ozinbelzko gizon gorrototsuaren deadar ta *izutaldiak*³ entzunda gora goraka jagi zara; gizon on batek, Padarrak esaten eutsuen egia ez dozue aitu gura izan; *oben*⁴ ikaragarria egin dozue beragaz, bapere ikaratu bari; itsutuak zagoz⁵ danok, eta Jaungoikoak bakarrik daki zuen gaiñera zenbat kaltek etorri bear dabena.»

¹ *Dierr*: (nación) (*Lar.*)

² *Zara*: zentzun pluralaz darabil.

³ *Izutaldi*: (aspaviento).

⁴ *Oben*: (crimen).

⁵ *Zagoz*: zentzun pluralaz darabil.

Ixil-ixilik egozan aita-semeak Amandoren jarduna entzuten, ta ez eben txitik atera; baiña ezagutu jakoen euren biotzetan mugidaldaren bat dabilena.

— Zuek¹ ez dozue jakingo — itandu eban Amandok berak — Adalbaldo zein dan?

— Izen ori oraintxe artean entzun bere ez dot nik egin. Dukea edo olango andikiren bat dala esan deuste — erantzun eban zarrak.

— Etzara gogoratuten zelan bein Aitzbarrengo eliz atarian orain urte bete inguru, Portunek prankotar bategaz auska edo burruka egin eban?

— Bai, jauna. Orduan Portunena zan errua. Prankotarra berriz guztiz Jaungoikozko gizona ei zan.

— Axe da ba Adalbaldo.

— A dala?

— Axe bera.

— Ara nondik len bere alde izan ta, gaur u...

— Gaur bere bai. Zuk ezin zeinke bein bere gauza zuzen baten kontra jokatu.

— Baiña Euskalerraren kontra bere ez. Ta, zuk, bear bada, ikusi ez dozun ate batetik, Riktrudis ta Adalbaldoen ezkontzea Euskalerraren kalterako dator. Or dago *lakioa*².

— Zeure gogamen ori agertuizu obeto, Ubero.

— Agertuko dot. Maite diran gazte bi alkarregaz ezkontuteari, euren ta Errien onerako bada, ez deritzot txarto, zuri entzun ta gero; baiña euskaldun baten aberastasun, etxe ta lurra prankotarren eskuetan gelditzea, beti da euskaldunentzat gauza kaltegarria. Biar edo etzi...

— Ixildu zaitte, Ubero; ez eidazu geiago jardun alperrik, bada- kit nora zoazan ta. Zuk *eregita*³ ikusten dozun ate orrentzat badaukat nik kisketa edo maratilla.

¹ Zuek: «Zuk» dakar idazleak.

² *Lakio*: (lazo).

³ *Eregi*: idegi.

— Ia ba.

— Riktrudisek Auñemendin daukazan ondasun guztiak euskaldun beartsu edo txiroentzat geldituko dira.

— Milla aingeruak! Ori beste gauza bat da... Baiña egia da ori gero? Riktrudisek naiko dau? Itxiko deutsa prankotarrak emote ori egiten?

— Egia da, neuk diñotsut. Riktrudisek nai dau. Adalbaldok berak agindu deutsa emon daiala dana, esan-mesan gaiztoen *apukoa*¹ kentzeko.

— Milla aingeruak! Ori alan bada, ta izango da zuk diñozunean, ez daukagu gudetan zergaitik asi. Geienez bere, Auñemendik emakume on bat galduko dau; baiña ez lurrik eta...

— Ezta emakumerik bere. Euskalerriko alabea, euskera zalea ta euskera zabaltzaillea izango da edonun. Ara, ezkontzarako berbea emon ebanean, zer esan eustan: «narioian lekura narioiala patuak edo Jaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz beti toki guztietan. Neugaz joango dira erririk erri, «euskal mendia, bere izkerea ta bere ekanduak.» Euskerea erakutsiko dot nunnai, nire erritarren lege zarra adierazoko dot, al dodan giñoan. Nire gomutea, nire adimena, nire biotza, nire izakerea, euskaldunarenak izango dira beti; ta edozein tokitik, nire begiradarik gozoena neure mendientzat izango da, ta nire arrenik bero, sutsu ta onena euskaldunentzat eta euskeraz egiña.»

— Ez da txarto esana. Erdia egiten badau bere ez dau gitxi egingo. Nik ez nekian bada olango gauzarik eta...

— Orain badakizu edozeiñi esateko bere.

— Zeiñi gero nik, jauna, zeñi?

— Etxera etorriko jatzuz zure iritxi eske.

— Gaixpar — deitu eban Uberok biurrera txiki bat albokera eginda — entzun dozak ik ondo apezpiku jaunak esan dituan gauzak?

— Bai, jauna — erantzun eban ordurarte ixilik egon zan semeak.

— Eta?

¹ *Apuko*: (pretexto).

— Ta emen entzun doguzanak entzun ezkeru, ezingo garala gudetara joan.

— Amandok begirada gozo bategaz saritu eban Gaixparren erantzuera.

— Zuzen esan dok, mutil, zuzena az ta — esan eutsan aitak. — Baiña ez dok ori naikoa. Gazte asko gudarako amorratzen egongo dituk, eu orain ordubete aizkora zorrozketan engoan¹ legez, ta guztiai gauzak zelan diran esan bear jakoe. Ia gaur lagunkana joaten azan ta...

— Ez deuste ezer aituko. Portunek esaten dabenera jarrita dagoz danak. Baiña alegiñik egin barik ez dogu itxi bear.

— Neu joango naz agintariak dagozan tokietara — agertu eban Amandok — eta neuk egingo deutset berba.

— Alperrik. Ez deutsue iñok bere jaramonik egingo. Zu erbestekoa zarala-ta, prankotarren alde zabiltzala-ta diño. Portunek gura dabena egingo da, ta Portun zure antxiñetako arerio okerra da barriz.

— Baiña lotsagarria ez da Portun fedegaiztokoaren azpian euskaldun kristiñau guztiak egotea? Ez dago emen beste gizonik? Ametsuko Peru ta Etxegoieneko zalduna il al dira? Araneder, Askonbegi, Arbide, Sasiondo, Aritzmeni, Ibaiñeta, Aialde, Otegain ta beste euskaldun ospetsuak zer egin dabe? Zure aita onezkero zarra dago baiña, etzara, Gaixpar, zu bere Portun aiñako gizona?

— Portunen izenak beste Euskalerriko guztiak illunpetan daukaz, jauna. Ez da bera motel ta argibakoa, azkarra da, sendoa, *zala*², okerra, ausarditsua, esku biak nun daukazan dakiana; atan bere, agintaririk egokiena legez ez deutsagu iñok begiratu emen, ainbeste gizon azkar, argi ta sendo dagozan lekuan; baiña egun batzuetatik onara Portun ta Portun baizen besterik ez da entzuten; berak igarri dabela, berak dakiala, berak egingo dabela, berak au, berak ori ta dana berak. Diego Etxalar, tragonarrua baizen ao andiagaz aurretik dala danoen artean geuk jaso dogu Portun goren-gorengo mailletariño, ta Portun da gaur emengo gizon bakarra.

¹ Engoan: «euan» dakar idazleak.

² *Zal*: «hombre de fibra, correoso, tieso» (Azk.)

—Bada gizon orrek ez dau Euskalerrria bide zuzenetatik eroango.

—Alan uste dot neuk bere orain.

—Milla aingeruak! Milla aingeruak! — ziñoan zarrak — orain dakigun guztia lenago ez jakin bear!

—Orain dakizuen ezkerro, bada, egin alegiñak egiaren alde.

—Baiña berandukoak izango dira, Amando jauna, berandukoak.

—Al danean al dana egin ezkerro, Jaungoikoak ez deusku geiago eskatuko.



XVII

«ERBESTE»-KO BIZIA

Riktrudis Adalbaldoren etxadian prankotar emakumei *onekandu*¹ guztiak erakusten bizi zan.

Euskaldunak bere kontra artu zituen neurriak, eta Auñemendiko aideak esaten zituen gauza okerrak min andia emoten eutsen biotzaren erdian.

Etzan gitxiagotarako bere. Maite eban euskal mendia. Ai, zenbateraino eban maite! Bertatik urrinean bizi zanean ezagutu eban obeto Mendiolarentzat eukan maitetasuna zein andia zan. Ango intxaurdiak! Ango arizti luzeak! Ango pagodi zabalak! Ango soloak! Ango zelaiak! Ango artaldeak! Ango errekak! Ango etxetxoak! Ango bide ziorrak! Ango arriak eurak! Ango eresi gozo-gozoak! Irudimenean eukazan beti, ta ezin zituan burutik iñundik iñora kendu. Bere egotordu guztietan euskal mendirantz begira geldituten zan, mendietatik pozgarrizko oiarzun ta albisteak itxarongo balitu legez... ta mendietatik noizean bein etorkozan oiarzun ta albisteak, negarrezko deadar ta garrasiak izaten ziran. Riktrudisek bialtzen zituan Euskalerrria bere begiradarik bigun, gozo ta ezitsuenak... eta Euskalerritik biurtuten jakozan Riktrudisi arao ta birao donga ta ikaragarritzkoak. Riktrudisen biotzak: «maitea! neure maitea!» esaten eutsan Auñemendiri... ta Auñemendiko basoetatik erantzuten jakon: «madarikatua zu, ta madarikatuak zu-reak!»

¹ *Onekandu*: (buenas costumbres).

Alan gurako eban Jaungoikoak. Eta Jaungoikoak gura ebanean, arimarako ona izango zan, mingarria izan arren. Zein gurasok ez dau nai bere seme-alaben ona? Ta ez da Jaungoikoa asko dakian ta asko daikean Gurasoa? Zeiñek bada gugaitik Berak baiño obeto begiratuko dau? Bagenki ziartu adiskide batek guztiz gaituala maite, ziartu jakingo genduke berak lagunduko leuskigula, ta bere eskuetan gure zoriona ipiñi ezker, zorionduko gendukezala. Bada guztiok daukagu gure zoriona egin leikean adiskide bat, adiskiderik onena, jakintsuena, beste iñok baiño askoz geiago maite gaituan adiskidea. Berak darabilz zeruak eta lurra; Bere mendean daukaz aingeruak, gizonak eta inpernutar guztiak, Bere agindupean bizi dira aizea ta trumoia, ekaitz, euri, txingor ta edurtza zuri-zuria; Berak esaten deutsa eguzkiari argi egin daigula, ta eguzkiak argi egiten deusku; Bere esku altsuetan daukaz zoriontasun guztietarako giltzak: dana daki, guztia al daike, maite gaitu; zeren bildur izan bear gara?

Olango gogarteakaz bereganduten zan Riktrudis, ta ume batek aitagan legez, Jaungoikoagan itxaropen guztiak ipiñirik, erakidara bizi zan inguruan eukazan euskaldun guztiak erakidara bizi eragiñaz. «Datorrena datorrela — ziñoan sarri — Jaunaren eskue-tatik dator, ta ezin leike gure arimarako kalterik ekarri. Egin bedi beti Bere naigura donea, gure onerako da-ta.»

Riktrudisek, bere atsekabeak errezago eroateagaitik, eta biotzak alan eskatuten eutsalako, Euskalerra txiki bat egin eban Ostrabenton. «Erbeste» ipiñi eutsan etxeari izena, zerren, lurra gizonentzat erbeste dan legez, erbeste zan Riktrudisenzat prankotarren erra. Baiña guztiz ondo ta Euskaldun bizi zan. Euskeraz itz egiten zan beti Erbesten, euskeraz arren, euskeraz *erestu*¹, Euskalerriko ipuiñak esan, euskaldunen ekanduakaz bizi, euskaldunen gisara jantzi... Arkaitz ta mendiak etziran agiri eze, beste gauza guztiak euskaldunak ziran Erbesten.

Gizon bat baeukan barriz Auñemendiko Loreak, gizona baiño geiago aingerua zirudiana. Ume-umetan bere Amama done Jertrudisegandik ikasi ebazan ontasan ta zuzen ibiltea bein bere

etzituan aztu. Lenagotik dakigun legez, jakituna zan, etxadirik andianean jaiorikoa, fedetsua, gauza artezen zalea, egiaren eskudataria, lureko gauza guztiakaitik okertuko etzana; ta orregaitik erregeren jauregiko gizon gaistoak bere bildur izaten ziran, ta zuzenbidetik ebiltzazan danak, guztiz eben adiskide ta lagun. Ebillen tokian ebillela bere biritza on ta garbia erakusgarri andikoa izaten zan, baiña batez bere etxadi barruan. An erakusten eban zan aiña andi bere biotz leiñargi ta ederra, an agertuten zituan bere gurari zindo ta jaungoikozkoak. Senar maitalea, Lurreko senarren artean maitalerik bazan, bere emazteari poz bat emoteagaitik zer egin ez ekian, ta ez eban iñoiz etxetik urtengo bere erregearen deiak nai baiño sarrituago atera izan ez baleu. Etxeko guztiak, morroietatik asi ta gorengoraiño, gauza on ta osasungarriak erakusten jardun oi eban askotan. «Ondu daiguzan bakotxak geure etxadiak, ekian esaten, ta Lurbira guztia ona izango da.»

Bere gauzarik ez eukan: beartsu guztientzat zabal-zabalik eukazan beti jauregiko atea, eta zenbat eta beartsuago izan etorrena, ainbat eta biguntasun geiagogaz artu oi eroan. Asko emoten eban, baiña emon gura ebana geiago izaten zan oraindiño. Ez eban begiratuten zein zan zerbaiten eske etorkona: naikoa zan lagun urkoa ta Jesusen odolagaz irabazia izatea. Zenbat erbestek bete oi eban sabela Erbesten, zenbat arrotzek billatu oi eban itunde ona, oe biguna ta guraso baten laztan gozoa!

Senar-emazteak guztiz ondo etozen alkarregaz, biak ziran bardin bardiñak. Euskalerriko guda ta kurruketatik igeska baetoren iñoiz menditarren bat, an egongo zan Adalbaldo ate ondoan, besoak zabalik, Lege zarreko Israelarren Guraso andiak egongo ziran eran, etxean sartu eragin, ta poz-pozik eukan guztiagaz laguntzeko, prankotar gizagaixoren bat ikusten bazan, gudetan zauritu ta alperrik galdua, urtengo eutsan bidera Riktrudisek, ekarriko eben jauregira, garbitu ta sendatuko eutsazan zauriak, eta emon-go eutsazan erruki ta maitetasunaren agergaririk egiazkoenak.

Egun batean, Riktrudisek, gudetan zaurituriko prankotar bati sendagari batzuk gozoro ta egokitasun andiagaz ipinten ziar-duan, ta bien inguruan etxekorik geienak prankotarrak esaten zituan gudako gertaerak entzuten egozan. «Gogorrek dira menditar-rak — ziñoan zaurituak — euren mendietako arkaitzak baiño

¹ *Erestu*: kantatu.

gogorrakoak; mendi egaletik gora ta bera ibilteko basauntzak bai-zen ariñak; eta edozein *jasarrirako*¹ gu baizen ausardi ta indar andikoak. Oraingo onetan Auñemendiko euskaldun guztiak ez ei dabilz alkartuta, baiña, alan bere, guk, askozaz gizon geiago izan arren, ezin dogu mendi egaletik gora igon.»

—Zelan ez ba?— itandu eutsen, barri geiago jakiteagaitik —.

—Zelan? Izten ez deuskuelako. Utsune bat billatuteko asmoan edonundik asten bagara, gaiñean ditugu beti menditarrak, leoi amorratu baten antzean, ta erdiak eta geiago bidean gelditu baga aurrera joaterik ez dago. Orain egun asko ez dala nintzan ni ango *esetsi*² batean. Gaztelu baten lo apur bat eginda gero, urten genduan gaberditik laster Berriotzeko basoan goizalderako egon bear genduala-ta. Alde atatik iñor ez egoala esan jakun, baiña edozein tokitan arerioak billatzen oituta gengozalako, ixilik joatea ohea izango zala esondetu euskuen. Bagoaz, bagoaz, erre-karte batetik gora, ixillik ba, ixillik bear bazan. Arnasa estuaren soiñua besterik entzuten etzan, edo txiristada edo larrapastada baten zaratea. Arako baten entzun genduan irrintzi bat, garbia, indartsua, luze-luzea, ta ezertarako astirik emon baga euskaldunak gure artean sartu jakuzan, otso goseztuak artaldean sartzan diran gisara. Ango oiua! Ango deadarrak! Ango garraxiak! Ango abarrotsa! Ango burdin soiñua! Ango arrien sunburrunea! Ango gizonen bilinbolakea zer zan! Nik ez dakit ondo zer gertau jakun bere. Arrikada batek konorta kendu eustan, ta urrengo goizean erre-kondoko sasi tartean billatu neban neure buru adore bagea. Buru azurra ausirik neukan, orain dakutsuen legez, ta konort baga egon nintzan bitartean odol asko galdu jatan.»

—«Gizagaixoa! — esan eben entzule guztiak.

—Eta pozik garunak barruan neukazanean.»

—Ta zelan urten zenduan andik? — itandu eutsan.

—Jagi nintzan zelanbait, oial zati bategaz lotu neban burua, al neban eran, ta pixkaka-pixkaka asi nintzan errekan bera. Gutar

gizon bizirik etzan agiri iñon, illak bai, or ta emen, ur ertzean, sasi tartean ankaraz gora, ta zugatzen ondoan zearretara; zeintzuk ziran begiratuteko kemen ta gogorik ez neukan, ariman illuntasun andia emoten eusten-eta. Banetorren erdi narrazka euskaldunik billatuko ete neban bildurrez, ta «dsaust» urten eustan euskaldun batek aurreko aldera. «Galdua naz ba» otu jatan; baiña etzan alan igaro. —«Etzaitte ikaratu, adiskidea, — esan eustan, nire gogame-na ezaguturik — euskaldunak gizon aulduakaz ez dogu ezer gura, arerioak izan arren. Zeureakana joan gurako dozu?» — Bai, al baneu ta nun diran baneki — erantzun neban. —«Neuk lagunduko deutsut, eta zure lagunak nun dagozan erakutsi bere bai» — esanda — oratu eustan eskumako besapetik, eta ekarri nituan¹ gureen *etzauntzetatik*² urre-urrerañño. Ta an, ardao ontzitxu bat eskuan ipiñita «edan orain indarra artzeko dxangadatxu bat — esan eustan — ta agur.»

—Ori da, ori, gizon izatea! — zinoen zaurituaren entzuleak.

Onetan, batzuk gizon gizagaixoa palaguz beteten egozala, ta beste batzuk euskaldunen leiñargitasuna gora jasoten ziarduela, agertu zan ate-arian Amandoren aginduakaz etorren menditar bat. Itxi eutsen guztiak prankotarrari, inguratu eben euskalduna, ta abegirik pozgarriena egin ondorean, Euskalerriko albisteak itanduten asi jakozan.

Ta zein utsa, errukarria ta doekabea dan gizona! Prankotarrak aztu zituan bereala euskaldun bati zor eutsazan eskerrak, gogoratu jakon bere buruko zauria, Adalbaldoren etxean *eregu*³ guztietarako eskubidea berak bakarrik eukala otu jakon; ta, barru txarrik ez eukan baiña, ikusi ebanean len beretzako ziran arreta, kezka ta begiruneak menditarrarentzat zirala orain, auzokoai egiten jakozan *menekioak*⁴ ezin eroanik egoten diran umeak legez, esan eban:

¹ Nituan: «ninduan» (harek-ni) da adizki honen zentzua.

² *Etzauntza*: campamento).

³ *Eregu*: mimo.

⁴ *Menekio*: (obsequio) (*Lar.*)

¹ (*Jasari*: combate, pelea).

² *Esetsi*: eraso, «pelea, combate».

— Euskaldunai emen ez litxakioe ain arrera onik egin bear.
— Zergaitik ez bada? — itandu eutsan Rikrudisek.
— Emengoak ez diralako, ta gure areriorik okerrenak diralako.

— Jakin eikezu, gizona, — esan eutsan Erbesteko etxekoan-dreak — jakin eikezu, lenengo, euskaldun au ez dala gizon guda-laria; gomutau zaitte, bigarren, euskaldunen artean zagozala, ta neu bere, zeure burua sendatzen egon natxatzun emakume au euskalduna nazala; ta, azkenik, etzaitte aztu zer egin eutsun euskaldun batek, zeuk esan dozunez, zauriturik idoro zenduzanean¹.

— Baiña ez dira, andrea, euskaldun guztiak niri lagundu eustana ta zu langoak. Agaitik eta zugaitik neuk bere edozer gauza egingo neuke; baiña danakaitik ez, zerren danak ez diran onak.

— Danak onak ez. Zelan izango dira bada, gizonak eta emakumeak badira? An ta emen, onak eta txarrak, neure aitak esan eustan senera. Baiña gauza bat esan bear deusut: zuk erakusten dozunez, zerbait zor deusunari gauza on bat egingo zeunskio, besteri ez. Zer izango zan zugaz gaur, errekartean billatu zenduan euskalduna zure iritxikoa izan balitz? Zer eutsun zor zuri berak? Zuganako zer zor neukan nik?

Ez ekian zer erantzun zaurituak. Erdi lotsaturik egoan, danak berari begira eukazan-eta.

— Ezagutu egizu, gizona, — jarraitu eban Rikrudisek. — Jaungoikoak batak bestea maitetuteko agindu eban ezkerro, al dogun on guztia egin bear deusagula edozeiñi, zuzena bada zuzena dalako, ta okerra bada zuzendu daitean; ta jakin eikezu gaiñerra, euskaldunak prankotarren arerioak badira, prankotarrak lenago egindako dongakeriakaitik izan leitekezala. Etxe onetan daukagun guztiatik emongo jatzu aukeran, baiña euskaldunari egiten jakonaren ondamuz etzaitte egon, zerren zure anaia dan ta zeure buruari beste opa bear deusazun.

— Tira, tira, naikoa da jardunik, — esan eban Adalbaldok irribarrezko arpegiagaz. — Orrek gizalegea badaki ta zauriak min

¹ Zenduzanean: «Zinduzanean» (Harek-Zu) zentzuaz.

emoten deusalako zerbait esan arren, Jaungoikoaren legea jarraituten dabenetakoa da. Emoiozue nai dabena jaten ta edaten, gu, mutil eder onen aotik Amandok zer diñoskun jakiten goiazan bitartean.

Olango *laurkak*¹ egunero ikusi oi ziran Adalbaldoren etxean, ta jauregi bedeinkagarri atatik, amaika bidar, arerio sartu ziranak adiskide benetako egiñik urten oi eben.

Amandogandik menditarrak ekarri zituan agindu ta albisteak zertzuk ziran baiña? Zer izango ziran? Auñemendin ez egoala gizonak baketuteko itxurarik; geroago ta sakonagoak zirala gorrotoak; Jesusen legea gorrotoan bizi ziran arimetan ezin zala sartu; Adalbaldok erregeren jauregian egin eiala al eban guztia, prankotarrak, esetsi barik, euren buruak eta erriak zaintzen bakarrik egon eitezan geldi-geldi; ia olan bakerako biderik billatu ba al eban berak, Amandok.

¹ *Laurka*: (cuadro).



XVIII AGUR BAT

Egunak joan, egunak etorri, urteak igaro ziran onetan ta orretan. Adalbaldoren etxean jaio ziran seme ta alabak, azi ziran, ta erakutsi jakoezan erakusgarri asko ta onak. Alango gurasoak eukezan.

Txiki-txikitatik sartu jakoen ariman Jaungoikoaren bildur donea, jakituri guztien asiera zuzen ta egiazkoa; oiñez asi ziraneko, eroaten zituan aitak edo amak landerren aurrera, euren eskuakaz emon eioen gizon ta emakume beartsuai, janari, edari, soiñeko edo beste osterantzeko laguntasuna; adiñak zerbait argitu jakoezenerako esan jakoen, aberats ta txiroak danok Jaungoiko baten seme-alabak giñala, danok anaiak, zerurako jaiok, Jesusen odolagaz irabaziak; adierazo jakoen aberastasunak aberatsentzat bakarrik etzirala, ezpada geideai laguntzeko Jaunak emoniko ondasunak baiño; urte gitxitan irauten daben neke ta naigabezko bizitzea geunkala Lurrean ulertuerazi jakoen, ta zeruetan barriz beti-betiko poz, atsegin, gozotasun ta zorionak itxaroten geunkazala.

Ta umetan aro onagaz biotzaren erdian ipinten dan azia, erme oi da ondo, azi oi da ereti onean, ta *frutu* edo alort ugariak emon oi ditu bere garaian.

Adalbaldo ta Riktrudisek lau ume izan zituen: gizonezkoa le-nengoa, ta andrazkoak beste irurak. Semeari Mauranto ipiñi eutsen izentzat, eta alabai, Klotsenda, Eusebia ta Adalsenda.

Eguzkia baiño ederragoak ziran laurak, amaren itxura andikoak, euskeraz guztiz ederto ekienak, Euskalerriko eresi edo *kanta* gozoen zaleak; eta bakea egiten zanean amatxoren jaiotetxea ikusi ta aitonen illoi gainean arren egitera etorteko amesetan egozan.

— Noiz izango da bakea, ama? — itanduten eutsan sarri txikitxoanak Riktridusi.

— Bakea, alabatxoa? Jaungoikoak gura dabenean. Erregutu egiozu askotxu laster izan dedin.

Ta Adalsenda ume errubageak, bere eskutxoak baturik ta gaztaiña margoko begi ederrak zeruruntz jasota, egin oi eban arren samur-samurra, bakea izan dedin gizon petral errudunen artean. Zein gozoro entzungo eben zeruetan bere aitona Arnoldo ta Andre Luziak, Adalsendaren arren biguna, beste gauzakaitik izan ezta bere Euskalerrian euren lobatxuak ikusteagaitik!

Baiña Jaungoikoak, errubagakoan arrenak entzun arren, gu-dakaz gizonakana bialtzen daben zigorra Euskalerritik ez eban jaso nai. Urte askoan zirauen gudak eta irauteko itxurak eukezan. Ez Amandok, bere jakituri ta donetasun guztiagaz, ez Uberok eta semeak Auñemendin euken izen onagaz, beste euskaldun kristiñau askok euren gogo zintzoagaz, ez Adalbaldok prankotarren artean eukan eskubide ta agintaritza danakaz, iñok bere ezin eban Dierri biak kiskaltzen eukazan gudetarako sua amatau. Suak sua dakar, gorrotoak gorroto barriak sortu oi ditu, esetsi bat jasarri askoren iturburua izan oi da. Orregaitik, Riktrudis ezkondu zanean Portunek zabaldu zituan txinpartetatik etorri ziran gero errientzat ainbeste kalte, ainbeste odol-erreka, ainbeste arimen ondamendi.

Noizean bein naigabe sakonak izaten zituan Riktrudisek bere biotzean, euskaldun ta prankotarren arteko guda guztien jatorria bera izan zeitekeala gogamenduten jakonean; baiña bere senarrak eta elizgizonak kenduten eutsen burutik bere gogartea, bada, euren eritxiz, Portunek eukazan erru guztiak.

Neke andiak eroiazan Adalbaldok bere, prankotar ta euskaldunen arteko gudakaitik; baiña beti eukan atsegin bat: berak beti aserreak amaituteko alegin guztiak egin zituala gomutetea. Portunek bein baiño geiagotan adierazoten emon eutsan Adalbaldori, euskaldun batzuen bitartez, bildurti emetzat eukala, gudara ez eioalako; baina Adalbaldok gurago eban bildurtizat euki eiela, ta

ez guda ta aserre okerrai laguntasun apur bat geiago emon. Bere eginkizun guztia zan ainbeste urtean, erregeren aurrean egiaren alde itz egitea, euskaldunen alde atxakiak billatutea, bere lagun urkoai al ebaneraiño lagundutea, ta bere etxadi maiteari ondo begiratutea.

Baiña Klobis II-garrenaren¹ mendekoa zan edozetara bere, ta bere premesi edo *lokan*² guztiak ondo beteten ekizan zalduna. Deitu eutsan bein bere jauregira errege orrek, eta esan eutsan:

— Adalbaldo, Euskalerrira joan bear dozu.

— Zeuk agintzen deustazuna egiteko prest nago, jauna, neure gogozko ez dan gauzea agintzen badeustazu bere — erantzun eban Riktrudisen senarrak.

— Zeure zaletasunezko gauzea agintzen deustut — jarraitu eban erregek. — Noiz edo noiz euskaldunakaz darabilgun gudea amaitu nai neuke, ta zeuk zure ta Amandoren izenean sarritan esan deustazun esondea gogoraturik, erabagi dot joan zaitezela zeu gureen artera, ta begiratu daizula prankotarrak urten ez daien beren errietatik kanpora, ta Amandok barriz zabaldu daiela menditarren artean albistea: ez dogula guk geiago euskaldunakaz gudarik nai ta baketu daitezela; baiña jarraitu nai badabe, bialduko ditudala neure erritar aginpeko guztiak mendira, iñoiz izan ez dan longo triskantza gogor entzungarri bat egin daien...

— Noiz gura dozu, jauna, zure agindua betetera urten dai-dan?

— Ainbat lasterren.

— Laster izango da, bada — erantzun eutsan dukeak.

Adalbaldo, erregeren jauregitik urten ta bereala, joan zan etxera, ta esan eutsan Riktrudisi erregeren agindua.

— Ez derizot txarto — esan eutsan emazteak — eta nik txarto iritxita bere, zeure erregearen agindua egin bearko zenduke: baiña ez dozula gauza andirik egingo uste dot, gorroto matasa andiak billatuko dozuz-ta. Gaiñera... nik ez dakit... neure biotza tau-

¹ (Ordurako Klobis II-garrena zan prankotarren errege).

² (*Lokana*: obligación) (*Lar.*)

padaka asi jat, eta Jaunak badaki gure gaiñera zer egurrek etorri bear daben.

— Zer diñostazu, emakumea, — asi jakon Adalbaldo, bere emazteari atsegin ta arnasa pixka bat emoteagaitik. — Zer gura dozu nik egin bear dodan gauzea baiño errezagorik? Ez dozu entzun erregearen agindua daroidana, ta ez dakizu nai ta nai ez nik esaten dodana egin bear dabela prankotar guztiak? Eta euskaldunak barriz, gu geldirik gagozala ikusi daienean, ta Amandoren aotik entzuten dabenean ez dogula nai gudarik eta ez deustegula lurrik kenduko, itxiko ditue gudetarako tresnak eta sorotako lanetara biurtuko dira. Siñistu egidazu, Riktrudis; laster ikusi bear ditugu bake donearen argi erraiño bigun pozgarriak.

— Bai ete, Adalbaldo? — itandu eutsan emazteak, begi biak malkoz beterik eukazala —.

— Bai, emakume *leikorra*¹; bai, menditar sinistzarrekoa; bai, Riktrudis: laster naz emen bakeak egin ta gero, ta eroango zaitut bereala zeure mendietara, zeure ariztiak ikusi daizuzan, zeure lurri mun egin daiozun, zeure erritarrak zeruetaraiño jaso zaiezan eurakaitik Erbesten zer egin dozun jakin daienean.

— Noiz zoaz? — itandu eutsan Riktrudisek senarrari, bere jardunean arreta andirik ipiñi baga —.

— Ainbat lasterren esan deust erregeak, eta biar goizean goizetik urteteko asmoa daukat.

— Zeintzuk eroan bear dituzu zeugaz?

— Ez dakit, bada. Pedro Mari zarra dago ta...

— Orixe izango litzateke onena, baiña bene-benetan dago zarra: ankarik ezin jaso dau ia, ta orrek ezingo deustu lagundu.

— Lope ta beste iru edo lau otsein eroango dodaz.

— Lope! ori ez da neure naigurako morroia, baiña zeuk gura badozu...

— Gurari andirik ez daukat nik. Ostatuetan jakia billatzeko ta aukerakoa dan ezkerro, bera eroatea otu jat.

— Ori bere egia da. Zuk zeure buruari begiratuten ez dakizuta, bere sabela baizen beste gogamenik ez daukan gizon bat ondo etorriko jatzu alboan.

¹ *Leikor*: (terco).

Gau atan Adalbaldo iñoiz baiño bigunago, palagotsuago ta oniritziago egon zan bere umeakaz. Zenbat ipuin gozo esan eutsezan! Zenbat esonde ta musu emon! Adalsenda bere umetxu txikarrena belaunen gaiñean arturik, eta bere bekoki garbi zimur bagakoan munga-munga jagokola — maite dozu aita? — itanduten eutsan:

— Bai, jauna, — ziñoan umetxoak.
— Eta zein besterik?
— Amatxo.
— Ta zein aitatxo ta amatxo baiño geiago?
— Jaungoikoa.
— Neuk bere bai, aita, neuk bere bai — esaten eutsen beste umeak, belaunetatik, besoetatik eta leptotik oratuta—.
— Danok nozue maite?
— Bai, jauna, danok.
— Eta zein besterik?
— Amatxo.
— Ta zein aitatxo ta amatxo baiño geiago?
— Jaungoikoa.
— Jangoikoa beti maitetuko dozue?
— Bai, Jauna.
— Ama ta ni ildakoan bere bai?
— Bai, jauna, beti.
— Beti Jaungoikoa maite badozue bada, danok alkarregaz zeruan egongo gara, orain ementxe gagozan legez, musuka ta musuka ta musuka — ziñoan dukeak, bakotxari musu barriak emonaz.

Ez eben lo andirik egin gau atan senar-emazteak. Batak, ordu gitxi barru, ume ta emaztea itxi ta, etxetik urriñera joan bear eban. Besteari, bajoakon senarra, guda-gizonen artera: noiz etorriko zan? Jaungoikoak baekian, bestek ez. Olango gogamenak nai-koa ta geiegi izaten dira maite diran biri euren loak kentzeko.

Jagi ziran urrengo goizean goiz Erbesteko morroiak loaldi bat eginda gero, nagusi-etxeakoandrak begirik itxi бага, maneau ziran guztiak, eta Adalbaldok, beregandetasuna obeto gordetearren umeen geletan sartu barik, etxetik urtetera eioanean.

— Agur — esan eutsan Riktrudisi — laster arte.

— Tira, tira — erantzun eutsan emazteak, nai ta naiezko irri-barre bategaz — goazen alkarregaz apur baten, ta gerotxoago esango deustazu agur.

— Baiña, emakumea, orain dagoan otzagaz...

— Tira — esan eutsan barrero, atarirontz bultzada bigun bat egiñaz.

Asi ziran danak bidean. Dukearen laguntzarako lau morroiak aurrenengo, zaldi gaiñetan, ta geldi-geldi; nagusiaren zaldia eroila Pedro Mari atzeratxoago; Adalbaldo ta Riktrudis azkenengo, oiñez. Urtaril baltzaren azkenengo egunetako goiz bat zan, oraindik eguzkiak jagiteko asmorik ez eukan, zeru aldean izarrak argi ta garbi ikusten ziran, ta lurrean illun ta otz andia egoan.

— Izotz andia egin dau — zirautsan dukeak emazteari —, ta ez dakit nik zetarako jagi zorean.

— Zeu jagi ez baziña...

— Baiña nik premiñaz jagi bear neban.

— Baita neuk bere, biotzak agintzen deust eta.

— Gaur niri laguntzeko esaten deutsu?

— Bai, biar ez deutsut lagunduko-ta. Ai, zeugaz joan al banei biar, etzi ta beti, zeure arrisku guztietan lagundu daizudan. Baiña Ama naz ta etxea bakarrik itxita ezin neiteke zugaz ibilli.

— Ezta bear bere. Begiratu egiozu zuk etxeari, ta zaindu egizuz umeak. Egun gitxi barru biurtuko naz ni, zuk uste dozun arriskuak igaro бага.

— Ori nai izan daijala Jaungoikoak. Baiña arerioak daukazuz, ta arduratan ipinten zaitut: etzaitkez edonungo bideetan bakarrik ibilli: gorde eikezu zeure burua Portunegandik.

— Bai, emakumea, bai, ez eizu bildurrik euki. Zoaz etxera naikoa da ta.

— Etxera bai pozik, zeu bazetorz.

— Baiña ez dakizu ezin dodana bada?

— Bai, badakit, eta orregaitik zeuk daroazun bidean apur bat geiago lagundu gura deutsut. Nire laguntasunik ez al zenduke gura?

— Riktrudis! Zure laguntasuna gura nebalako billatu zendudazan; alkarregaz bizi garan urteetan, zure laguntasunagaz atsegiñik asko emon deustazu; zeuk ondo dakizun legez zu zaitut la-

gunik lagunena ta maiterik maiteena; nire ondasuna, nire bizitza, neure biotza ta arnasea zeu zara; baiña zeure irudipen ta bidebagako amesakaz biotza illundu ta arnasak kentzera etzakidaz gaur etorri: ez da orain zure laguntasunen ordua, agur egidazu bein, biurtu zaitetz umeakana, ta bizi zaitetz *upakean*¹, fedea ta itxaropen osoa Jaungoikoagan ipiñirik. Bein bere etxetik ez dodala urten esan leiteke.

— Agur bada, Adalbaldo. Ondo diñozu: orain ez dozu laguntasan bearrik. Agur, baiña ez aztu gero arduratan ibilteagaz.

— Ez naz aztuko. Agur—esanda, Pedro Mariri eskatu eutsan zaldia, jarri zan gaiñean, Riktrudisi begirune gozo bat egin eutsan, ta *draka-draka-draka* bere morroien atzetik ostendu zan dukea illuntasunaren erdian.

Riktrudis gelditu zan apur baten illuntasunari begira ta zaldien perra otsak entzuten, ta guztia ixildu zanean, emon eutsan negarrari estanda egiteko zorian geldituteraiño.

Pedro Marik, bere erara, gauza pozgarrizkoren batzuk esan eutsazan, ta pizkaka-pizkaka ekarri eban jauregiraiño. Erbestera eldu ziran ordurako eguna argitu eban, ta eguzkiak bere lenengo erraiñuak bialdu zituan Riktrudisen jauregia epeltzera. Baiña ez eben ezer epeldu. Zein otza ta zein utsa eritxon bere etxeari Riktrudisek!

Umeak jagita billatu zituan bere zain, ta euren amatxo negarrez etorrela ikusi ebenean, asi ziran danak negarrez, zergaitik jakin barik, biotzaren lege ezkuturen batek agintzen dabena egiñaz.

— Ez negarrik, enetxoak, — esan eutsen amak — ez egin negarrik: goazen Jesus onagana ta arren egin daigun aita Adalbaldogaitik.

Eta kurutzean josiriko Jesusen irudi aurrean belaunikoturik, arrenetan asi ziran etxeko guztiak negarrari itxi barik.

¹ (*Upake*: tranquilidad).



XIX

MENDITAR BATEN ZANZOA

Bitartean, Adalbaldo, bere emazteak buruan ipiñi eutsazan arretak ezin kendurik, bajoian Euskalerriruntz.

Emazte maitalearen irudipen ta bidebagako ustea baiño ez da;— ziñoan beretzat — ez diran gauzak ikusi eragin deutzaz bildurrak. Zeiñen bildur izan neiteke ni? Prankotar gudarien bildur? Ez, zerren guztiak ezagututen ditudan ta euren artean askok maiten nauen. Erregeren izenean noa gaiñera, ta erregeren izenari *betuste*¹ ta *menegindea*² zor deutse guztiak. Menditarren bildur izango naz? Ez, zerren ni bake soiñuan noa, ta nai izan ezkerro, mendira zetan joanik ez daukat: norbait Amandogana bialduagaz eginda daukat angoa.

Zer pozik egongo dan Amando nire albiste ona artzen dabenean! Bene-benetan nik eginkizun ederra daroat. Dierr bi bataren ta bestearen garaipen ta *illunketa*³ barik baketu ta adiskidetasuneko bidean ipiñi, kurruka ta gorrotoak kendu, batak bestea ilten diarduen besoak soloetako lanetara eroan, etxadietan upakea sartu, Jaungoikoaren legearentzat arimak irabazi. Eginkizun onetan arriskurik ez dot izango, baiña banitu⁴, geidearen onerako ta Jaun Egillearen *doakundeagaitik*⁵ poz-pozik igaro leitekez.

¹ *Betuste*: (consideración) (*Lar.*)

² *Meneginde*: (obediencia) (*Lar.*)

³ *Illunketa*: (desdoro).

⁴ *Banitu*: «banituke» dakar idazleak.

⁵ *Doakundea*: (gloria) (*Lar.*)

Ta onetarako il bear baneu, euskaldun fedegaiztokoak Jesu-
si deuten gorrotagaitik ilgo banindue ainbat obeto! Olango erio-
tzeagaz bai irabaziko neukeala betikotasuneko sari neurribagea.
A! Olango amaiera doakundez betea zeiniek emon lekidan! Egia
da, orretarako neure emazte maitea Lurbira onetan naigabez be-
terik itxi bearke neuke; itxi bearke nituke neure ume kutunak;
baiña noiz arte? Bitarte andian ez, emengo egunak laburrak dira-
ta. Orain bere, Lurreko erregeagaitik an itxi ditut. Gauza andia li-
tzateke Zerukoagaitik egun batzuk geiagoan iztea? Orrez gaiñera,
Riktrudis emakume jaungoikozkoa da, ta Jaungoikoaren legea-
gaitik il nazala jakingo baleu, laster poztuko litzateke, ta nik zerutik
lagunduko neuskeo. A! Gura baleu Jaungoikoak!

Bere *gogoketa*¹ guztiak Adalbaldiri, Lopek, berarizko beste
gogoketa bategaz kendu ta zerutik Lurrera erakarri eutsazan.

— Ugazaba — esan eutsan — ixilik zoazala-ta nago.

— Bai ete? Miña ixilik daroat, baiña neure adimena ta biotza
berbetan doaz. Berbetea gura al zenduke?

— Berbetea ainbeste bere ez baiña...

— Zer bada?

— Etxetik ezer artu barik urten dogu-ta, urdailla *gur gur* da-
rabilt eta...

— Jatea gura zenduke. Bai al daroazue zer janik?

— Jaki pixka bat badaukagu. Atsedentxu bat egin ezker...

— Tira, bada: zaldietatik jatsi gaitzean, ta bide ondoan jarrita,
artu daigun zerbait. Eta olango gauzetarako aukerako zarean ez-
kero, ostatueta danontzat jatekoa ta edatekoa billatzeko eskubi-
dea emoten deutsut, Lope.

— Ori, jauna, ederto esana da. Zure izenean eskatuta iñon
bere ez dabe ukatuko, baiña, ukatu arren e, Lurrean dagon jateko
gauzea billatuko neuke nik, usaiñean bere.

Jarri ziran danak bide ertzeko zelaitxo batean, Adalbaldok
zer-edo-zer aoan sartu eban, beste morroiak gozaldue eben ederto,
Lopek, berak bakarrik, danak aiña ta geiago gauza iruntsi zituan,
ta jarraitu eutsen euren bideari bidaztiok.

¹ *Gogoketa*: (pensamiento).

Eguerdia artean etzan beste jaterik izan; baiña, edo ardao-
ontziak eriona eukan, edo edatea izan zan, bada Loperen zaldiko
jarrilekutik dindilizka eroien, ta lenengo ostatuan sartu ziranean,
tanta bat baga agertu zan.

Asko ibilli ziran gero, ta bere ipur zabalak Loperi ondo mai-
llatu jakozan, ziñoanez.

Aurrenengo ibilli zituen egunetan ez eban gudari asko billatu,
baiña geroago ta geiago, geroago ta ugariago aurkitu zituen, ta
etxetik urten ta bigarren egunerako, Erbesteko gure gizonak Bur-
gain deritxon erritxu baten ondoan egozan.

Burgaiñen sartu baiño lenago, — «Mutillak — esan eban du-
keak — oraintxe da garaia, ta euetako batek Euskalerrira barrura
Amandogana joan bear jok.

— Neu joango nintzateke pozarren, jauna, aspaldian neure
erritarrak ikusteko gogoagaz nago-ta — erantzun eban Lopek.

— Eu? Aiñ nekatua engoala¹-ta? Ia ba, onezkero ostatueta
idoro bear andirik ez dogu izango ta, joadi eu. Baiña ondo egin
gero agindua.

— Bai, jauna, bai.

— Ardi-narru au kolkoan sartuik. Apezpiko jaunari eroaiok:
irakurri daijala, ta ononkoan albiste onak ekarri.

— Bai, jauna, bai.

— Jakirik badaukak?

— Aor aurreko ostatu baten gauza batzuk danontzako us-
tean artu dodaz.

— Guztiak eroizak, bide luzea daukak eta. Guk zer jana bi-
llatuko dogu emen. Agur, ta ondo egin agindua.

— Bai, jauna, bai.

Gont-hram² izeneko prankotarren nagusi andienetako bat
Burgain-en egoan. Adalbaldo nagusi orregana joan zan, ta erre-
geren izenean eroian agindua agertu eutsanean, «Alde onetako
gudari ta guztien burua ni naz, duke jauna; — erantzun eban na-
gusi orrek — naikoa izango litzateke, bada, erregeren izenean zer

¹ Engoala: «euala» dakar idazleak.

² Gont-hram-ek *esetsaldian gogorra* esan nai ei dau.

dakarzun nik esatea; baiña, alan bere, inguruetako beste agintari nire mendekoak etxe onetara ekarrita, guztiak zeuk itz egitea gurako neuke. Txarto ez baderitzazu, emendik ordu bi barru geienak emen egongo dira; ta dakarzuzan agindu, eskubide ta eginbear guztiak euren aurrean agertu zeinkez. Orretara, gudariak zer diñoen zeure belarriakaz entzungo dozu.»

Nagusi orren esanari Adalbaldok ondo eritxi eutsan. Gizonik ospetsuenak bereala batu zituen, erregearen gurari ta agindua zer zan esan jakoen garbiro, ta guztiak gelditu ziran burua makurturik eta berbarik esan nai ezta.

—Ixilik zakustaz danok. Ez daukazue iñork bere zer esanik?— itandu eutsen Adalbaldok.

—Zer esanak bai, baiña alperrikakoak — erantzun eban Robertok¹. — Menditarrakaz erabilli ditugun ainbeste lan ta ekiñaldi gogorak, eurakandik artu ditugun ainbeste irain, eraso ta destaiñak, zer erantzun andiak dakarkuz aora; baiña errege errege da; gure Dierriko lenengo gizon, gudari ta zalduntzat daukagu; ta berak gura badau gure frantziska edo aizkorea zein zorrotza dan euskaldunai ondo erakustsi baiño len, Auñemendiko gudari *basatiak*² edo gu, zeintzuk garan andiakoak ondo ikusi barik, ainbeste nekaldi artuta gero, arerioai kendu geinkeon sari on baten itxaropenak galduta, emen alperrierian gelditutea, erregeren guraria bete bedi.»

—«Antxinetako adiskide Roberto;— asi zan dukea esaten — orrenbeste nekaldi ta epetasun artu ondorean, *ospil*³ ta ohore baga gelditutea mingarria dana ezagututen dot; zu berbetan zagozan bitartean besteok egin deutsuezan ziñuak, euren barru-barruko guraria ikusi eragin deuste; baiña badakizue guztiok, eta zuk ederto ulertarazo dozu, gure nai izatearen gaiñean erregearena daukagula, ta erregearen gaiñean, diñot nik, Jaungoiko Egillearena. Klobis II-garrenaren gudariak, erregeren mendekoak: erregeren izenean eskatzen deutsuet, bada, gure ta euskaldunen artean

¹ Rod-berto-ren izenak itz argitsukoa esan gura ei dau.

² (*Basati*: salvaje).

³ *Ospil*: (botín) (*Lar.*)

darabilguzan eztabaida ta esetsaldi guztiak alde batera itxi daizue-zala; egun batzuetan beintzat zeuen tokietan geldi-geldirik eta bakezko arpegiakaz egon zaitezala. Neure adiskideak, neure lagun prankotarrak, neure anai maiteak, Jaungoikoaren izenean arrenez naukazue: arerioakandik aspaldietan arturiko destaiña ta urruin guztiak gaurtik aurrerantzean aztu egizue, bada Dierririk andiena ta leiñargiena parkatuten dakiena da. Zuen Lurreko erregeak bere izen onagaitik zenbat lan ta jo-ta-auste erabilli dozuen badaki, ta bakotxari berea emoteko gogoan eukiko ditu: zuen ta nire zeruetako Errege maitegarriak orain egiten deutsazuen doskaiñi apurra betiko zoriontasun ugari neurribagakoakaz sarituko deutsue. Gogoratu zaiteze, gaiñera, luzaroko gizaldietan menditarrakaz darabilgun gudea, tema ta lelo zar bat baizen besterik ez dala gaur: eurak eta geuk danok erruak ditugula, geuk geiago eurak baiño, bada gutarrak ziran Euskalerrira joan ta lurak ostu, gizonak il, etxeak erre ta beste oben negargarri asko egin zituen gudariak. Bakotxari berea emon bear jako, ta bakotxari berea emotearren esaten ditut olango gauzak, ez zueri min geiago emoteagaitik. Entzuidazue, siñistuidazue, zuen biotzetan benetako leiñargitasunari toki emon eiozue, ta iñoiz bere eizatzue damutuko.»

Adalbaldoren esanak ez eben biotz guztietara bake ta beregandetasun osoa eroan, baiña erregeren guraria zalako, dukeak beste gauza bat esan artean, geldi-geldirik egongo zirala agindu eutsen.

Adabaldo poztu zan onenbestegaz, ta urrengo goizean, eiz antzean, Aitzbarreneruntz landetatik zear joatekotan oeratu zan.

—Biderako laguntasunik gura zenduke?— itandu eutsan lenago Gont-hramek.

—Bai zera; zetarako gero?— esan eban gure dukeak. — Ez da onetan euskaldun gudalaririk izango. Ta gaiñera ni bake soiñuan nabil ta euskaldun baketsuak daroadaz neugaz.

—Aspaldian, egunaz, Ustarits-tik ona ez dira ikusi menditarrak. Goialdean izaten dira izatekoak. Baiña badaezpada bere...

—Ez, ez, eskerrik asko, ta agur.

—Agur, bada.

Bigaramonean ez egoan eizerako girorik. Seireun ta berrogeta amabi-garreneko Otsaillaren bigarren eguna zan. Laiño lodi za-

bal batek gauza guztiak bere estalpean gorde zituan. Zerurik etzan agiri, ibarrak eta mendiak etziran ikusten. Illunpetan egoan Lurra. Bidezkoook sartu ziran laster Aitz-barrengo landetara, ketan sarzen diran gizon batzuen gisan. Pinadiko zugatzak bana banaka jarten jakoezan aurreko aldean, euren tartetik zeintzuk eioazan ikustera urtengo balebe¹ legez.

Pinadi andi zabalaren erdian joiazanean, Adalbaldori, nondik eta nora ez ekiala, biotza illunduten asi jakon. Ariman, zergaitik jakin baga, larritasun andi bat eukan, bere gaiñera etorkon gertaldi txarren baten pekua legez. Eriotzea pinadian ostenduta egoala ia siñistu eban.

Ba! Bere epeltasuna izango zan: begitanduerea, emetasunezko bildurra.

Baina zergaitik bildurtu bear eban berak orduan, egundo bildurtu etzan gizona izanda? Biotzari, berak erabilli oi dituan ipuin, ames ta goraberak itandutea baizen eztago.

Ez ekian Adalbaldok zegaitik, baina bene-benetan ikaraz egoan. Jaungoikoaren deiren bat ete zan?

Irudimenak iges egin eutsan Erbestera. Riktrudisek arduran ibilli zeiteala esan eutsan, arerioak eukazala-ta. Arerioak zugazti atan bertan egon zeitekezan! Ez eban ondo egin. Gont-hramek eskintzean, laguntasuna ez artzea...

Umeak eta Riktrudis, an etxadi aldean egongo ziran, aita Adalbaldogaitik arrenetan ta arrenetan, ainbat lasterren osasunagaz eurakana biurtu zedin...

Bai! Arrena zan gauzarik onena: arren egin bear eban berak bere, ta gero etorkizuna betorrela...

Adalbaldo asi zan «Nire Jaun Jesukristo»... esaten...

Amaitu ebanean, beste gizon bat zan Adalbaldo.

Zer gertauko jakon geienez bere? Iltea? Ta iltea Jaungoikoa-gana joatea baiño beste gauzarik zer zan? O! Gura baleu Berak nire bizitzea neure gaiztakeri guztien orderako ta Bere izen donearen omenerako artu!

— Jauna — esan eutsan morroi batek onetan — jentea dago.

¹ Balebe: «baleuke» dakar.

— Non?

— Ementxe aurreko aldean, izketea dantzut.

— Ez da ardura: bakezko jentea izango da.

— Ez da ohea, jauna, ixil-ixilik neu joan ta, zeintzuk diran ikustea?

— Itxi eiozu, ta goazen aurrera. Jaungoikoak...

Adalbaldok azkenengo itzak etzituan ondo amaitu. «Bera da! Bera da! Dukea! Prankotarra! Kristiñaua! Lapurra! Gure alaben ostutzaillea!» Oneek eta beste olango eztarri askotatik batera urtendako oiua ta deadarrak entzun ziran trumoi garratz, gogor ta ikaragarri baten antzera, inpernuko gaizkin zarrak arima bat galtzean, egingo dituen garraxiren irudira, ta Adalbaldoren gorputza inguru guztietatik jaurtiriko eun gezi ta geiagok josi-josi eginda itxi eben. Adalbaldo errukigarritzko «Jesus» bat esanda zalditik bera jausi zaneko, gaiñean eban Portun, begi bietatik otsoen txingarrezko begiradea boteaz, aotik amorroaren bitza ta *lerdea*¹ eriola. Dukea ordurako ondo ilda egoan, baiña ondo il bagako aberea eiztariak amaituten daben legez, Portunek aizkorakada batean dukeari burua erdibitu eutsan, ta «bein edo bein tximista orrek nire eskuetan jausi bear zenduan» esanaz, gorpuaren gaiñean bere oin bat ipiñirik, Ozinbelzkoak deadar egin eban menditarren zanzoa.

Adalbaldoren morroiei ez eutsen ezer egin, baina ikaratuta egozan danak. Portunen lagunak Riktrudisen aideak ziran², ta euren artean egoan Lope ondo ardaoz betea, barrez-barrez...

¹ *Lerde*: adur, baba.

² (... il (Adalbaldo) fut mis a mort par les parents mêmes de Rictrude, toujours mécontents de son mariage, (*Sain Armand apotre des basques* par M.J.-M. Menjoulet, vicaire general de Bayonne. — Auch, 1869) Ogeta laugarren orrialdean).



XX

SAMIN GOZOA

Suak eta jai entzungarriak egin zituen Auñemendin Adalbaldo il zanean.

Zotin, zizpuru, illuntasun ta negar andiak eroan zituan Erbestera Adalaldoren eriotzako albisteak.

Gudako egunetan alan gertau oi da: batzuen garaia, besteen menpea; aldebatekoen algaratzarra, bestekoen malko-iturria izaten da beti.

Riktrudiseri gizon asko joan jakozan dolamen ta errukia erakustera. Kurrukarako itzak esaten zituen danak: mendi guztiak erre ta kiskaldu, gaiztakerirako bakarrik bizi zan jente dongea bein betiko amaitu: aizkora bat jasoteko altasuna eukan guztia Auñemendira eroan, gizon basatiai euren leize zuloetaraiño jarraitu, ta il danak antxe basurdeak ilten diran gisara; ori gura eben.

— Ez olangorik, — ziñoan alargun gazteak. — Nire senarra bake zalea zan, bakeak egitera joian: ez egizue, bada, bere gogoaz kontrako gauzarik egin; parkatu egiozue guztiai Adalaldoren izenean. Orrezaz gaiñera, gogoan euki egizue — ta au da niretzat gauzarik mingarriena — dukea il daben gizonak neure erritarrak eta neure aideak zirala, ni menditik ona beragaz etorri nintzalako, ezagututen ez ebelako, gizon gaiztotzat eta Euskalerrriaren areriotzat eukelako. Bere odola gura eben; orain bere odoloz ase dira, ta bakerako iñoiz baiño bide obean billatuko dituzue. Jaungoikoaren izenean, bada, bakea egin eikezue, Adalaldok zerutik lagunduko deutsue-ta.

Riktrudisek, Adalbaldo il ondorean, bere eskuaren eske etorri jakozenari jaramonik egin barik, bere burua bakartadean gordeteko asmoak artu zituan. Zer emon eikeon Lurrak? Gauza andirik ez: beste gizon andikiren baten eskua, eskintzen eutsan legez, erregeren jauregian bizi izatea, egun batzuetarako ondasunak, ames baten antzera iges egiten eben jolas-pozak, eriotzako ate ondoan bakarrik itxiko eben lagunak: utsa dana, arantzartean ezerez bat.

Eta gaiñera Riktrudis ezin zeitekean Adalaldogaz aztu. Bein emon eutsazan berari biotza, gogoa ta izatea, ta bereak bakarrik izan zeitekezan. Alperrik, bada, zaldunik ezagunenak beren esku ta ondasunak eskiñika joango jakozan; ez eban geiago gizonakaz ezer gura: aurrerantzean, bere izate guztia senarraren gomuteari ta Jaun Egilleari emon bear eutsan. Gelditu zedilla Lurra bere itxura utseko gauzakaz. Riktrudis bajoian Jaungoikoagana; bada baekian «gizonen jauregietan urte asko baiño, obeto zala Jaunaren aurrean egun bat igarotea.» Lurrean ta lurtarrakaz naikoa egun igaro zituan.

Amandoren esonde onak jarraiturik, bada, Mauronto seme nagusia ipiñi eban osaba lenapezpikoaren eskuetan, milla on gauza esanda gero, ta beste iru alabakaz Done Benitotarren *bapilde*¹ batean sartu zan.

Baiña an sartu baiño lenago Riktrudisi igaroriko gauza bat emen esatea ondo etorriko da. Adalbaldo ilda gelditu zan tokia bere begiakaz ikusi gura izan eban, bere senarra lenengo lurpean sartu eben tokian² arren ta agur batzuk egin gura izan zituan, ta orretarako Aitzbarreneruntz joan zan; ta an, azken agurrak esaten ezin asperturik, egun batean, ta bian, ta iruan, kurutze baten ondoan belauniko, ordu luzeak igaro ebazan. Baegoan bein, bakarrik ain zuzen, negarrez, zotinga ta arrenetan, beti legez, ta sartu jakon bitartean ixil-ixilik illerrira euskaldun menditar bat, Portun berbera.

¹ (*Bapilde*: convento) (*Lar.*)

² (Gero Adalaldoren gorpua Elnongo *bapilde* edo bakartegira eroana izan zan).

Portun astiune andian egon zan Riktrudiseri begira, onek igarri barik. Negar egiteko gogoia etorkon euskaldun gogorrari ainbeste urtean ikusi bagako adiskide maitea ain negartsua billatu ebanean. Gizona barrurago sartzen asi zanean, begiratu eban emakumeak nor ete zan, ta begirada baten ezagutu eban bere are-rio maitalea.

— Zer dakarzu zuk ona? — itandu eutsan Riktrudisek bapere ikaratu barik.

— Zeu ikustera etorri naz, Riktrudis, ta Auñemendiko bideak zabalik daukazuzala esatera.

— Eskerrik asko, baiña ez daukat orain Auñemendira joan bearrik.

— Zeure erria ez dozu maite?

— Bai, baiña beste bat maiteago.

— Prankotarrena?

— Ez, zerua.

— Ta or lurpean dagoan ori maite zenduan?

— Biotz guztiagaz. Berari bizitza emoteagaitik itxiko neuke neurea.

— Orduan orri bizitza kendu deutsenak guztiz gorrotauko dituzu?

— Ori ez, ez dot nik iñor gorrotau gura. Nire senarra il dabe-nagaitik egunero arren egingo dot neugaz batera zeruan gertau daitezana.

— Zeruan zeugaz batera? Ta nondik joaten da zerura?

— Kristiñau onak daroen bidetik.

— Eta zeru orretan guztiak alkar maitetuten dabe?

— Guztiak. Ara bazatoz, an maitetuko zaitut. Agur.

Riktrudisek Portuni agindu eutsana bere bizitza guztian egin eban. Bakartadean igaro zituan bere azken ordurarteko egunak, bere senarra il ebenagaitik eta Euskalerra maitagaitik erregutu-ten.

Maillarik mailla gauza on guztietan goren goreneraiño igon eban; bapildeko buru izan zan berrogei urtean, ta bere alaba ta mendeko guztiai milla onbide erakutsita gero, zeruetan sartzeko eukan gurari andi gozo batek il eban Auñemendiko Lorea, 687-garren urtean, 74 urte zituala.

Bere bitartez Jaungoikoak egin zituan mirariakaitik, Elizeak, Riktrudis il zanetik urte batzuetara, altaretan ipiñi eban, ta euskal-dun askok done Riktrudisen izena jakin ez arren, Pranzia ta Belji-katarrak ezagutu eben antxiñetatik zenbateraiño dakian zeruetatik lagunduten, ta bere izenaren onoregarritzat eliza bat eta beste baiño geiago jaso zituen¹.

¹ (Après sa mort, de nombreux miracles rendirent son nom populaire au sein du pays où elle s'endormit dans le Seigneur, et de nos jours encore, il y a plusieurs paroisses placées sous son invocation dans les diocèses d'Arras et de Cambrai. Elle a une très belle chapelle dans l'église de Marchiennes, qui possède ses reliques jusqu'au moment de la Revolution française. En un mot, Sainte Rictrude est, dans le Nord de la France, l'une de saintes les plus connues et les plus invoquées. (Menjoulet-ek, len aitaturiko liburuan.)

Son culte est très répandu au Nord de la France: dan les diocèses de Cambrai et d'Arras plusieurs églises sont placées sous invocation. (*Recherches historiques sur le pays basque*, par l'abbé P. Haristoy. Bayone. — Paris. 1884.)

No hay para qué tratar de otras cosas de esta memorable bascongada porque nos ocuparía demasiado. Sólo diremos que finó santamente su carrera mortal el año 687, a los 74 años de edad y 40 de prelatura, según Andrés Silvio y Mabilonio, o en 688, según Buzclin; que al transcurrir los tiempos y por los muchos milagros obtenidos por su intercesión fue Santa Rictrudis popularísima en Francia y en Bélgica; que se edificaron muchas iglesias y capillas con su advocación y que, en no pocos lugares, se celebró su festividad como de precepto riguroso, absteniéndose los fieles de trabajo servil.

Juan, monje de San Amando, escribió en versos latinos la vida de Santa Rictrudis a ruegos del obispo Erluino, de la diócesis Camaracense.

De lo insertado acerca de la edad en que murió la Santa bascona y el año del fallecimiento se comprende el descuido de su autor* cuando dice que murió en 690, a los 85 años.

Los autores más próximos a los días de Santa Rictrudis y la cronología de los Bolandos no dejan lugar a duda.

Santa Rictrudis sobrevivió a San Amando tres años. El Santo Obispo falleció en Elnon en 684; luego el año exacto parece ser el designado, o sea, 687. (Labayruk, len aitaturiko *Historia general del Señorío de Bizcaya* deritxon liburuan.)

* (Menjoulet-egaitik diño).



XXI GUENA

Ara nik ikusi ta ikasitako gauzak esan, irakurlea. Baiña bada-
kit zerbait geiago jakin naian egongo zarana, ta zuri deusudan
begiruneagaitik albistetu batzuk geiago emon gura neuskizuz.

Amando jauna onkaiz bete-beterik, Riktrudis baiño iru urte
lenago il eta joan zan Jaungoikoagana, Euskalerrian, kristinauak
asko ugaritu zirala ikusita gero.

Auñemendin bake osasungarriaren argi ederra agertu zan
noizbaiten, Riktrudisen arrenari eskerrak; eta Portun, emakume
donea azkenengo ikusi ebanetik laster bere erruak ezagaturik,
kristiñau egin zan, ta arako done Pablo baten gisara, zar-zarra zala
bere, erririk erri ebillen Jesukristoren legea zabaltzen, bere gazteta-
ko gaiztokeri guztiak autortuaz. Riktrudisegaz gura eban bizi ze-
ruetan.

Lope Nagi errukarria, moskor andi baten ostean *sormiñak*¹
jo ta il izan, barbarik egin baga.

Adalbaldo prankotarra ta bere seme alaba Mauronto, Clo-
tsenda, Eusebia ta Adalsenda, laurak, bizitza on baten bitartez
eriotza on batera eldu ziran, ta zeruan daukaguz orain gure bitar-
tekotzat.²

¹ (*Sormin*: apoplejía).

² (*Son fils et ses filles* (Riktrudisenak) imiteren son exemple: se fut una dou-
ble generation de Saints. Car l'Eglise á placé sur les autels, outre Saint Adalbauld

Euskaldun guztiok an gertau gaitetzala.
Baiña ez daigun aztu euskaldunak garala esanda beste barik
ez garala zeruetan sartuko.

et Sainte Rictrude, leur fils Saint Mauronte, abbé de Breul, leurs filles Sainte Euse-
bie ou Isoye, abbesse de Hamay, Sainte Clothsende, abbesse de Marchiennes
après sa mère, et Sainte Aldesende, qui mourut tres Jeune. (Menjouletek, len
esandako liburutzuan.)

Sa fête est (Riktrudisena) fixée au 17 Mai; celle de Saint Maurant, abbé de
Merville, au 5 Mai; celle de la bienheureuse Clotsenda, abbesse de Marchiennes
après Sainte Rictrude, au 30 de Juin; celle de Sainte Eusebie au 16 Mars; et en
fin celle de Sainte Adalsende, au 24 Décembre. (Haristoy, *loco citato*).

Toda esta familia figura en el Santoral. (Labayruk, aitaturiko liburuan.)

AURKIBIDEA¹

Orialdea

SARRERA, Rosa M. ^a Arano	7
ITZAURREA	19
I. Ama-alabak	25
II. Batzarra	38
III. Iru eresi	44
IV. Portun barrutik	51
V. Gizon arrotza	57
VI. Bidez bide	68
VII. Euskal-etxea	74
VIII. Amesak eta egiak	81
IX. Zurrumurru gaiztoak	88
X. Ondorengoak	95
XI. Otsoa ta artzánora	105
XII. Il gaua	111
XIII. Bakartadean	118
XIV. Post nubila	125
XV. Barreak eta negarrak	131
XVI. Amandoren lana	139
XVII. Erbeste-ko bizia	147
XVII. Agur bat	154
XIX. Menditar baten zangoa	161
XX. Samin gozoa	168
XXI. Guena	172

¹ Aurkibidea: «aurpidea» dakar.

SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»
Aurkezpena: Xabier Perea - J. M. Agirre
2. JOSETXO
Jose Manuel Etxeita
Aurkezpena: Aitor Etxebarria - A. Arejita
3. AZALPENAK
Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»
Aurkezpena: Jon Kortazar
4. BERTOLDA ETA BERTOLDIN
G. C. della Croce - «Otxolua»
Aurkezpena: Adolfo Arejita
5. JAIOKO DIRA
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Lino Akesolo
6. EDO GEUK EDO IÑOK EZ.
EUSKERAREN ALDE
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»
Aurkezpena: Xabier Perea - Adolfo Arejita
7. IPUIN ANTZEKO ALEGI
MINGOTSAK
Mikel Zarate
8. BATETIK BESTERA
Ebaristo Erkiaga
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
9. AUÑEMENDIKO LOREA
Txomin Agirre
Aurkezpena: Rosa Mari Arano

Agertzekotan:

KRESALA
Txomin Agirre

JAIOTERRI MAITIA
J.M. Etxeita

IZLAUZKO BILDUMA
R. M. Azkue